

## XEDAPEN OROKORRAK

### HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

# 134

*163/2014 DEKRETUA, uztailaren 29koa, Ontzi eta Itsasontzien Makineria Zainketa Antolatzeko goi-mailako teknikariari dagokion curriculuma ezartzen duena.*

Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren 10.1 artikulua ezartzen duenez, Estatuko Administrazio Orokorrak finkatuko ditu Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalan aditzera emandako lanbide-prestakuntzako eskaintzak osatuko dituzten profesionaltasun-ziurtagiriak eta -tituluak, betiere Konstituzioaren 149.1.30. eta 7. artikuluan xedatutakoaren arabera eta Lanbide Heziketaren Kontseilu Nagusiari kontsultatu ondoren.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 39.6 artikulua xedatzen duenez, Espainiako Gobernuak, autonomia-erkidegoei kontsultatu ostean, Lanbide Heziketako ikasketei dagozkien titulazioak ezarriko ditu, baita titulazio horietako bakoitzaren curriculumaren oinarriko alderdiak ere.

Ekonomia Iraunkorraren martxoaren 4ko 2/2011 Legeak eta Ekonomia Iraunkorraren Legea osatzen duen martxoaren 11ko 4/2011 Lege Organikoak –Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko 5/2002 Lege Organikoa eta Hezkuntzaren 2/2006 Lege Organikoa aldatzen dituenak–, hainbat lege-aldaketa adierazgarri eragin dute bestelako ekonomia baten garapena sustatzeko eta bizkortzeko, hau da, ekonomia lehiakorragoa eta berritzaileagoa, produkzio-sektore tradizionalak berritzeko gauza izango dena eta kalitateko enplegu egonkorra eskatzen duten beste jarduera batzuetarantz bidea egiteko gauza izango dena sustatzeko eta bizkortzeko.

Hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen uztailaren 29ko 1147/2011 Errege Dekretuaren 9. artikuluan definitzen da lanbide-heziketako tituluen egitura. Horretarako, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionala, Europar Batasunak finkatutako jarraibideak, eta gizarte-intereseko beste alderdi batzuk hartu dira kontuan.

7. artikulua titulu horien lanbide-profila zehazten du. Lanbide-profil horretan sartuko dira konpetentzia orokorra, lanbide-konpetentzia, konpetentzia pertsonalak eta sozialak eta, hala badagokio, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalaren konpetentzia-atalak. Horrenbestez, titulu bakoitzak lanbide-kualifikazio oso bat, gutxienez, hartuko du barnean, betiere Lanbide Heziketako tituluek produkzio-sistemaren beharrei eta hiritartasun demokratikoa egikaritzeko aukera emango duten balio pertsonal eta sozialei eraginkortasunez erantzuteko.

Uztailaren 13ko 1075/2012 Errege Dekretuak Ontzi eta Itsasontzien Makineria Zainketa Antolatzeko goi-mailako teknikariaren titulua ezartzen du, eta haren gutxienerako irakaskuntzak zehazten ditu. Dekretu horrek ordeztu egiten du apirilaren 22ko 722/1994 Errege Dekretua, Itsasontziaren Makinak eta Instalazioak Gainbegiratzeko eta Kontrolatzeko goi-mailako teknikariaren titulua arautzen zuena.

Bestetik, Hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen aurrez aipatutako 1147/2011 Errege Dekretuaren 8. artikulua 2. atalean xedatzen duenez, hezkuntza-administrazioek ezarriko dituzte Lanbide Heziketako irakaskuntzen curriculumak. Edonola ere, errege dekretu horretan bertan xedatutakoa eta titulu bakoitza erregulatzen duten arauetan xedatutakoa errespetatu beharko dute.

Hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko eskumenen esparruari dagokionez, Autonomia Estatutuaren 16. artikuluan aditzera ematen denez, «Konstituzioaren lehen xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatzeko, irakaskuntza, zabalera, maila, gradu, era eta espezialitate guztietan, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskuduntzapean dago, Konstituzioaren 27. artikuluan ezarritakoari eta hura garatzen duten Lege Organikoei, eta 149.1.30. artikulua Estatuari ematen dizkion ahalmenei eta hori guztia betetzeko eta bermatzeko behar den goi inspekzioari kalterik egin gabe».

Bestalde, otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuak hezkuntza-sistemaren barruan Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoaren esparrurako.

Azaldutako aurrekarien arabera, dekretu honen helburua da Itsasontziaren Makinak eta Instalazioak Gainbegiratzeko eta Kontrolatzeko goi-mailako teknikariaren tituluari dagozkion Lanbide Heziketako irakaskuntzetarako curriculuma ezartzea Euskal Autonomia Erkidegorako, betiere Itsasontziaren Makinak eta Instalazioak Gainbegiratzeko eta Kontrolatzeko goi-mailako teknikariaren tituluaren gutxieneko irakaskuntzak finkatzen dituen uztailaren 13ko 1075/2012 Errege Dekretuaren babesean.

Itsasontziaren Makinak eta Instalazioak Gainbegiratzeko eta Kontrolatzeko goi-mailako teknikariaren titulu honen curriculumean alderdi hauek deskribatzen dira: alde batetik, tituluak adierazten duen lanbide-profila (kualifikazioak eta kompetentzia-atalak zerrendatzen dira, eta lanbide-kompetentziak, pertsonalak eta sozialak deskribatzen dira); eta, bestetik, tituluak biltzen dituen helburu orokorren eta lanbide-moduluen bidez, besteak beste, ezarritako irakaskuntzak (lanbide-modulu bakoitzari dagozkion ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak eta edukiak, eta horiek antolatuta eta ezartzeko jarraibideak eta zehaztapenak barne hartuta).

Helburu orokorrak profileen deskribatzen diren kompetentzia profesional, pertsonal eta sozialetatik atera dira. Haietan, ikasleak heziketa-zikloaren amaieran eskuratu behar dituen gaitasunak eta lorpenak adierazten dira; hortaz, lehen iturria dira heziketa-zikloa osatzen duten lanbide-moduluetako bakoitzean landu beharreko edukiak eta bereganatu behar dituzten ikaskuntzaren emaitzak lortzeko.

Modulu bakoitzean jasotako edukiak irakatsi eta ikasteko prozesuaren euskarria dira; ikasleak trebetasun eta abilezia teknikoak, etorkizun profesionalean aurrera egiteko kontzeptuzko oinarri zabala eta lortu nahi den kualifikazioarekiko lanbide-nortasun koherentea islatuko duten portaerak eskura ditzen.

Honako dekretu hau bideratzean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. artikulutik 22. artikulura bitartean aurreikusten diren izapideak bete dira.

Ondorioz, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren proposamenez, Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak emandako txostena eta gainerako aginduzko txostenak aztertuta, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren arabera, eta Jaurilaritzaren Kontseiluak 2014ko uztailaren 29an egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, hauxe

## XEDATZEN DUT

### I. KAPITULUA

#### XEDAPEN OROKORRA

1. artikulua.– Xedea eta aplikazio-esparrua.

1.– Dekretu honek Ontzi eta Itsasontzien Makineria Zainketa Antolatzeke goi-mailako teknika-ren tituluari dagozkion Lanbide Heziketako irakaskuntzetarako curriculuma ezartzen du, Euskal Autonomia Erkidegorako.

2.– Ikastetxeak duen autonomia pedagogikoaren eta antolamendukoaren ildotik, hari dago-kio bere ikastetxearen ikasketa proiektua ezartzea, eta proiektu horretan ezarriko ditu bere irakaskuntza-lanaren ezaugarriak eta nortasuna zehazteko, eta lanbide-moduluaren programazioak prestatzeari buruzko irizpideak finkatzeko behar diren erabakiak.

3.– Ikastetxearen ikasketa proiektuaren esparruan, heziketa-zikloaren arduraren irakasle-tal-deari eta, zehazki, irakasle bakoitzari dagokio programazioak prestatzea. Horretarako, ezartzen diren helburu orokorrak kontuan izan beharko ditu, lanbide-modulu bakoitzean bildutako ikas-kuntzaren emaitzak eta edukiak errespetatu beharko ditu, eta irakaskuntzen erreferentziazko lanbide-profila hartu beharko du euskarri.

## II. KAPITULUA

### TITULUAREN IDENTIFIKAZIOA ETA LANBIDE PROFILA

#### 2. artikulua.– Tituluaren identifikazioa.

Ontzi eta Itsasontzien Makineria Zainketa Antolatzeke goi-mailako teknikariaren titulua elementu hauek identifikatzen dute:

- Izena: Ontzi eta itsasontzien makineria-zainketa antolatzea.
- Maila: Goi-mailako Lanbide Heziketa.
- Iraupena: 2.000 ordu.
- Lanbide-arloa: Itsasoa eta arrantza.
- Irakaskuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatuko erreferentzia: INSN-5b.
- Goi-mailako hezkuntzako kualifikazioen Espainiako esparruan duen maila: 1. maila, goi-mai-lako teknikaria.

#### 3. artikulua.– Lanbide-profila.

1.– Titulu honen kompetentzia orokorra honako hau da: itsasontziaren propulzio-plantaren, makineria osagarriaren eta zerbitzuen zainketa-lanak antolatzea eta gainbegiratzea, informazio teknikoan oinarrituta, bai eta lehorrean dauden ontzietan elementu horiek muntatzeko eta zaintzeko zerbitzua antolatzea ere, baliabideak zehaztuta, giza taldeak zuzenduta eta makinaren guardiak antolatu eta gauzatu; betiere STCW eta STCW-f nazioarteko hitzarmenetan eta indarreko lege-rian xedatutakoaren arabera; halaber, esleitzen zaizkion zainketa-, erregulazio- eta kontrol-lanak ere egin behar dira, ezarritako teknika eta prozedurak trebezia baliatuta, itsas bidaiaren segur-tasuna bermatzearren ezarritako baldintzetan, kalitateari eta lan- eta ingurumen-segurtasunari dagokienez.

#### 2.– Kompetentzia profesionalak, pertsonalak eta sozialak.

Honako hauek dira titulu honen kompetentzia profesionalak, pertsonalak eta sozialak:

- a) Ontziko makinetako instalazioen prestakuntza antolatzea eta zuzentzea, zeharkaldiko segurtasuna bermatzearren; horretarako, zeharkaldiko kontsumoen eta errespetuen hornidura ez ezik, tresneriak eta instalazioak martxan jartzeko prozedurak ere zehaztuko dira.
- b) Ontzi eta itsasontzietako propulsiio-plantaren eta makineria osagarriaren eta zerbitzukoaren zainketarako plana egitea; horretarako, terminologia ingelesa menderatuta, dokumentazio teknikoak interpretatuko dira, ontziaren ezaugarriak eta zeharkaldiaren inguruabarrak baloratuko dira, eta esku hartzeko prozedurak eta jardunak egiteko aldizkakotasuna finkatuko da.
- c) Ontzien zainketan, biltegirako, tailerrerako eta bezeroenganako arretarako espazioak antolatzea, zerbitzuaren kalitatea bermatzearren; horretarako, biltegia kudeatzeko eta hornitzaileekin negoziatzeko teknikak erabiliko dira eta instalazioen eta materialen egoera ona bermatuko da.
- d) Baliabide materialen eta giza baliabideen antolamendua definitzea, indarreko arauekin bat; horretarako, bezeroenganako arretarako prozedurak eta ontziak edo elementuak hartzeko eta konpondutakoan ateratzeko prozedurak zehaztuko dira.
- e) Propulsiio-plantaren eta makineria osagarriaren zainketa-lanak gainbegiratzea eta egitea; horretarako, funtzionamendua arautu eta teknika espezifikoak aplikatuko dira.
- f) Ontziko zerbitzuei loturiko zainketa-lanak gainbegiratzea eta egitea (zamalan-sistemak, bizkarreko makinak eta arrantza-parkea, besteak beste), ontziaren ezaugarrien arabera.
- g) Ontzian instalatutako kontrol-sistema automatikoen erregulazioa eta zainketa gainbegiratzea eta egitea; horretarako, erregulaziorako definitutako programak, lengoaiak eta irizpideak ebaluatuko dira, xedatutako prestazioen arabera.
- h) Instalazioen eta sistema elektriko eta elektronikoen kontrola eta zainketa gainbegiratzea eta egitea; horretarako, ezaugarriak baloratuko dira, beharizan energetikoak zehaztu eta kontrolatuko dira, eta teknika espezifikoak aplikatuko dira, eraginkortasuna bermatzeko xedeaz.
- i) Hozteko instalazioen eta girotzeko sistemen kontrola eta zainketa gainbegiratzea eta egitea.
- j) Makinen guardiak programatzea, egitea eta betetzen direla gainbegiratzea; horretarako, nork bere eginkizunak beteko ditu, eta aurreikusitako jardunak edo larrialdiek eragindako jardunak egingo ditu, STCW eta STCW-f kodeekin eta indarreko legeekin bat, eta ingelesa erabiliko da nahitaezkoa denean.
- k) Ontzietako ekipoen eta instalazioen instalazioa gainbegiratzea eta egitea; horretarako, xedatutako prozedurak beteko dira eta ezartzen diren dokumentazio teknikoa eta zerbitzuko egingo dira.
- l) Suteen aurkako ekipoen eta zerbitzuen eta salbamendurako bitartekoen eskuragarritasun operatiboa eta mantentzea gainbegiratzea, ezarritako protokoloen arabera.
- m) Itsasoko larrialdietako lanak zuzentzea; horretarako, egoera ebaluatuko da eta ezarritako planak betetzen direla gainbegiratuko da.
- n) Itsasontzi barruko larrialdi medikoei erantzutea, ezarritako jardun-protokoloen arabera.
- ñ) Laneko egoera berrietara egokitzea, egunean izanda lanbide-ingurunearen gaineko ezagutza zientifikoak, teknikoak eta teknologikoak; prestakuntza eta baliabideak bizitza osoko ikaskuntzan kudeatuta, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabilia.
- o) Egoerak, arazoak eta gorabeherak konpontzea, ekimenez eta autonomiaz dagokion eskumen-eremuan, eta sormenez, berrikuntzaz eta hobetzeko gogoaz norberaren eta lantaldearen zereginetan.

p) Lantaldeak arduraz antolatu eta koordinatzea; horretarako, haien garapena gainbegiratuko da, harreman onak ezarriko dira, lidergoa hartuko da, eta lantaldean sortzen diren gatazkak konpontzeko aterabideak proposatuko dira.

q) Parekoekin, nagusiekin, bezeroekin eta ardurapeko pertsonekin komunikatzea; komunikazio-bide eraginkorrak erabilita, informazioa edo ezagupen egokiak emanda, eta dagokion lan-eremuan parte hartzen duten lagunen autonomia eta eskumenak errespetatuta.

r) Norberaren eta lantaldearen lan-garapenean ingurune seguruak sortzea, laneko eta ingurune arriskuen prebentziorako prozedurak gainbegiratuta eta aplikatuta, betiere enpresaren arautegian eta helburuetan xedatutakoarekin bat.

s) Produkzioko edo zerbitzugintzako prozesuetan bildutako lanbide-jardueretan, kalitate-prozedurak, irisgarritasun unibertsalekoak eta «denontzako diseinukoak» gainbegiratzea eta aplikatzea.

t) Enpresa txiki bat sortu eta abiarazteko oinarrizko kudeaketa egitea eta dagokion lanbide-jardueran ekimena izatea, erantzukizun sozialez jokatuta.

u) Jardueraren ondoriozko eskubideak baliatzea eta betebeharrak betetzea, indarrean dagoen legerian xedatutakoaren arabera, eta bizitza ekonomikoan, sozialean eta kulturean aktiboki parte hartuta.

3.– Titulu honetan biltzen diren Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko kualifikazioen eta kompetentzia-atalen zerrenda:

– Osatutako lanbide-kualifikazioak:

a) Itsasontziko propulzio-plantaren, makinaren eta ekipo osagarrien zainketa gainbegiratzea eta funtzionamendua kontrolatzea. MAP594\_3. (1033/2011 Errege Dekretua, uztailaren 15ekoa). Kompetentzia-atal hauek barnean hartzen ditu:

UC1958\_3: itsasontziko propulzio-motorraren eta horren zerbitzu osagarrien funtzionamendua kontrolatzea eta zainketa gainbegiratzea.

UC1959\_3: itsasontzia lehorrean egoteari atxikitako elementuen eta propulzio-plantaren makina eta sistema osagarrien funtzionamendua kontrolatzea eta zainketa gainbegiratzea.

UC1960\_3: itsasontzian kontrol-sistema automatikoen funtzionamendua kontrolatzea eta zainketa gainbegiratzea.

UC1961\_3: itsasontziko instalazio elektriko eta elektronikoen funtzionamendua kontrolatzea eta zainketa gainbegiratzea.

UC1962\_3: itsasontziaren hozteko eta girotzeko instalazioen eta tresneriaren funtzionamendua kontrolatzea eta zainketa gainbegiratzea.

UC1963\_3: itsasontziko propulzio-plantaren, makinaren eta tresneria osagarriaren zainketa kudeatzea.

UC1954\_2: ontzi barruko segurtasunarekin, biziraupenarekin eta osasun-laguntzarekin loturiko jarduerak garatzea.

UC0808\_2: ingelesez erabiltzaile independentearen mailan komunikatzea, ontziaren zainketa-aren, segurtasunaren, biziraupenaren eta ontzi barruko osasun-laguntzaren eremuan.

b) Kirol-ontzien eta laketontzien sistemen eta ekipoen zainetak antolatzea eta gainbegiratzea. TMV605\_3. (1789/2011 Errege Dekretua, abenduaren 16koa). Konpetentzia-atal hauek barne hartzen ditu:

UC1993\_3: kirol-ontzi eta laketontzietako zainketa kudeatzea.

UC1996\_3: ontzia lehorrean egoteari atxikitako elementuen eta propulsioko nahiz gobernuko sistemen zainketa antolatzea eta gainbegiratzea.

UC1997\_3: kirol-ontzietako eta laketontzietako energia elektrikoa sortzeko, metatzeko eta kontsumitzeko sistemen eta tresneriaren zainketa antolatzea eta gainbegiratzea.

UC1998\_3: kirol-ontzi eta laketontzietako sistema elektronikoen zainketa antolatzea eta gainbegiratzea.

UC1999\_3: kirol-ontzi eta laketontzietako fluido-zerbitzuen eta hozteko eta girotzeko sistemen zainketa antolatzea eta gainbegiratzea.

4. artikulua.– Lanbide-ingurunea.

1.– Profesional hauek itsasontzi zibiletan eta arrantza-ontzietan egiten dute lan, ontzi eta itsasontzietako makinetako ofizial, lehen ofizial eta makinaburu moduan, betiere indarreko legerian ezarritako mugak errespetatuta tona kopuruari, motor-potentziari eta bidaiari-edukierari dago-kienez; era berean, ontzigintzan eta ontzien konponketan eta zainketan jarduten duten edozein tamainatako enpresa publiko edo pribatuetan ere egiten dute lan, norberaren edo besteren kontura. Halaber, norberaren edo besteren kontura jardun dezakete kirol-ontzi eta laketontziak eraikitzen eta zaintzen dituzten enpresa txiki eta ertain publiko nahiz pribatuetan, ezarritako araudiari jarraikiz. Egoera jakin batzuetan, ingelesa erabili beharko du komunikatzeko bidetzat.

2.– Zeregin eta lanpostu aipagarrienak hauek dira:

Makinaburua, ekainaren 12ko 973/2009 Errege Dekretuaren 14.2 artikuluan itsas mekanikari nagusiari ezartzen zaizkion esleipenekin.

Makinetako ofiziala edo makinetako lehen ofiziala, ekainaren 12ko 973/2009 Errege Dekretuaren 14.2 artikuluan eta Merkantzia Ontzidiko Zuzendaritza Nagusiaren 2010eko maiatzaren 31ko Ebazpenean itsas mekanikariari ezartzen zaizkion esleipenekin. Ebazpen horren bitartez, itsasontziko mekanikari nagusiak eta itsasontziko mekanikariak egiaztatzeko kursoak ezartzen dira, gehienez ere 6.000 KW-rainoko merkataritza-ontzietan jardun dezaten.

Arrantza-enpresetako ikuskatzailea.

Manufaktura-industrietako instalazioen zainketa elektromekanikoetako taldeburua.

Hozteko instalazioen eta girotzeko sistemen instalazioko eta zainketako taldeburua.

Kirol-ontzi eta laketontzien propulsioko eta gobernu-sistemetakotailerburua.

Kirol-ontzi eta laketontzien propulsioko eta gobernu-sistemetakotailer-arduraduna.

Kirol-ontzi eta laketontzien sistema elektriko-elektronikoetako tailerburua.

Kirol-ontzi eta laketontzietako fluido-zerbitzuetako eta hozteko eta girotzeko sistemetakotailer-burua.

Kirol-ontzi eta laketontzien peritu tasatzailea.



## III. KAPITULUA

## HEZIKETA ZIKLOAREN IRAKASGAIK, ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK, ETA IRAKASLEAK

5. artikulua.– Heziketa-zikloaren irakasgaiak.

1.– Heziketa-zikloaren helburu orokorrak:

a) Ontzi eta itsasontzietako makineria martxan jartzeko eta zaintzeko prozedurak ezartzea, zainketa-historia eta -erregistroen azterketa abiapuntu hartuta, giza baliabideak eta baliabide materialak zehaztuta eta dokumentazio teknikoa landuta.

b) Ontzietako makinen elementuak muntatzeko prozedurak ezartzea, giza baliabideak eta baliabide materialak zehaztuta eta dokumentazio teknikoa landuta.

c) Ontzi eta itsasontzien makineria-zainketarako ekipo eta baliabideen hornidura zehaztea eta kontrolatzea, itsasontziaren egonkortasunean duten eragina aztertuta, biltegitatzeko guneak itsas bidaiaren ezaugarrien edo lehorreko lanaren helburuen arabera antolatuta eta hornitzaileekin negoziazio-teknikak aplikatuta.

d) Ontzien konponketako, zainketako eta ikuskaritzako arreta-zerbitzua antolatzea ezarritako araudia beteta, zerbitzua lan- eta ingurumen-segurtasuneko baldintzetan gauzatzeko.

e) Ontzi eta itsasontzietako makineriaren, instalazioen eta zerbitzuen matxura elektromekanikoak diagnostikatzea, segurtasun-baldintzetan funtzionatuko dutela bermatzeko beharrezkoak diren teknika eta baliabideak baliatuta.

f) Ontzi eta itsasontzietako piezak, makina multzo eta azpimultzoak, instalazioak eta zerbitzuak konpontzeko garaian soldadurako eta mekanizazioko teknikak aplikatzea eta gainbegiratzea, baliabideak trebetasunez eta segurtasunez baliatuta.

g) Itsasontziko propulzio-plantaren eta makineria osagarriaren eta ontzietako motorren zainketa-lanak egitea eta gainbegiratzea, beharrezkoak diren elementuak instalatuta eta eskatutako kontrol eta doikuntzak eginda.

h) Itsasontziko zerbitzuekin (zamalanelarako sistemak, bizkarreko makineria eta arrantza-parkea, besteak beste) loturiko zainketa-lanak eta ontzia lehorrean egoteari atxikitako bestelako elementuen zainketa-lanak egitea eta gainbegiratzea, lan-prozedurak kontrolatuta eta teknika espezifikoak aplikatuta.

i) Kontrol-sistema automatikoak programatzea eta doitzea, aldagai eta osagaiak definituta ezarritako prestazioak garatzearen.

j) Ontzi eta itsasontzietako sistema pneumatiko eta hidraulikoetako sistemen kontrola, erregulazioa eta zainketa egitea, muntatzeko, desmuntatzeko eta konfigurazioko prozedurak/teknikak aplikatuta operatibotasuna bermatzearen.

k) Ontzi eta itsasontzietako instalazioetan eta sistema elektriko eta elektronikoetan zainketa-lanak egitea eta gainbegiratzea, energia ontzi barruan banatzen dela ziurtatzeko.

l) Ontzi eta itsasontzietako hozteko instalazioen eta girotzeko sistemen zainketa eta muntaketa egitea eta gainbegiratzea lehorrean, lurrean edo itsas bidaietan daudela, ezarritako prozedurak definituta, kontrolatuta eta beteta.

m) Makina-ganberaren guardiako prozedurak eta jarduerak ezartzea eta esleitutako eginkizunak gauzatzea, nazioarteko arauak interpretatuta eta sor litezkeen gertakizun eta errutinei kasu eginez, itsas bidaiari segurtasuna bermatzearren.

n) Suteen aurkako instalazioen eta tresneriaren, eta salbamendurako bitartekoen funtzionamendua eta kontserbazio-egoera identifikatu eta baloratzea, aplikatu beharreko araudia eta egiaztatze-protokoloak interpretatuta; horien eskuragarritasun operatiboa eta zainketa gainbegiratzeko.

ñ) Itsasoko larrialdi-egoerak interpretatu eta horiei aurrea hartzea, dauden jardun-planak, eta barruko eta kanpoko egoerak aztertuta, salbamenduko eta suteen aurkako borrokako teknikak erabilia; eragiketak zuzentzeko.

o) Gaixoei eta istripua izan dutenei arreta egiteko eta esku hartzeko protokoloak aplikatzea, itsasontzi barruan eskuragarri dauden bitartekoak eta teknikak, eta irratir bidezko kontsulta medikorako sistemak deskribatu eta erabilia; larrialdi medikoei erantzuteko.

p) Lanbide-eremuan komunikazioa garatzea, ingelesa egoki erabilia egoera bakoitzean, eta itsasoaren eta arrantzaren sektoreko fraseologia normalizatua trebetasunez maneiatuta, itsasontziaren makineria-zainketa antolatu eta gainbegiratzeko.

q) Sektoreko bilakaera zientifikoarekin, teknologikoarekin eta antolamendukoarekin lotzen diren ikaskuntza-baliabideak eta -aukerak aztertzea eta erabiltzea, baita informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ere, eguneratze-izpirituari eusteko eta laneko egoera berrietara eta egoera pertsonal berrietara egokitzeke.

r) Sormena eta berrikuntzako izpiritua garatzea lanaren eta norberaren bizitzaren prozesuetan eta antolamenduan agertzen diren erronkei erantzuteko.

s) Erabakiak arrazoituta hartzea eta, horretarako, inplikaturako aldagaiak aztertzea, hainbat esparrutako jakintzak integratzea eta arriskuak eta erabaki okerrak hartzeko aukera onartzea, askotariko egoerei, arazoei edo gorabehereri aurre egiteko eta horiek ebazteko.

t) Gidaritza, motibazio, gainbegiratze eta komunikazioko teknikak garatzea talde-laneko testuinguruetan, betiere lantaldeen antolamendua eta koordinazioa errazteko.

u) Komunikazio-estrategiak eta -teknikak aplikatzea eta transmitituko diren edukietara, xedera eta hartzaileen ezaugarrietara egokitzea, komunikazio-prozesuen eraginkortasuna ziurtatzeko.

v) Laneko arriskuen prebentzioko eta ingurumen-babeseko egoerak ebaluatzea, norberaren eta taldearen prebentziorako neurriak proposatuz eta aplikatuz, lan-prozesuetan aplikatzekoa den araudiaren arabera, betiere ingurune seguruak bermatzeko.

w) Irisgarritasun unibertsalari eta «denontzako diseinuari» erantzuteko beharrezkoak diren lanbide-ekintzak identifikatzea eta proposatzea.

x) Kalitate-parametroak identifikatzea eta aplikatzea ikaskuntza-prozesuan egindako lanetan eta jardueretan, ebaluazioaren eta kalitatearen kultura baloratzeko eta kalitate-kudeaketako prozedurak gainbegiratzeko eta hobetzeko.

y) Kultura ekintzailearekin, enpresakoarekin eta ekimen profesionalekoarekin erlacionatutako prozedurak erabiltzea, enpresa txiki baten oinarrizko kudeaketa egiteko edo lan bati ekiteko.

z) Baldintza sozialak eta lanekoak arautzen dituen lege-esparrua kontuan harturik, gizarteko agente aktibo gisa dituen eskubideak eta betebeharrak zein diren jakitea, herritar demokratiko gisa parte hartzeko.



2.– Honako hau da heziketa-zikloa osatzen duten lanbide-moduluen zerrenda:

- a) Itsasontzien propulzio-plantaren eta makineria osagarriaren zainketa antolatzea.
- b) Ontzi eta itsasontzien lehorreko zainketa antolatzea eta motor termikoak muntatzea.
- c) Ontzi eta itsasontzietako automatismo hidraulikoen eta pneumatikoen programazioa eta zainketa.
- d) Instalazio eta sistema elektrikoen zainketa eta muntaketa antolatzea ontzi eta itsasontzietan.
- e) Hozteko instalazioen eta girotzeko sistemen zainketa eta muntaketa antolatzea ontzi eta itsasontzietan.
- f) Ontzi eta itsasontzien makineria-zainketa planifikatzea.
- g) Makinen guardia antolatzea.
- h) Ingelesa.
- i) Larrialdien kontrola.
- j) Itsasontziko osasun-laguntzaren antolamendua.
- k) Ontzi eta itsasontzien makineria-zainketa antolatzeko proiektua.
- l) Laneko prestakuntza eta orientabidea.
- m) Enpresa eta ekimen sortzailea.
- n) Lantokiko prestakuntza.

I. eranskinean zehaztu da lanbide-moduluen ordu-esleipena eta lanbide-moduluak zein kurtso-tan eman beharko diren.

Lanbide-heziketaren eskumena duen sailak arautu ditzakeen heziketa-eskaintzen arabera egokitu ahal izango da moduluen ordu-esleipena eta moduluak zein kurtso-tan emango diren, dekretu honen 11. artikuluan xedatutakoarekin bat eginik.

3.– Lanbide-modulu bakoitzerako, ikaskuntzaren emaitzak (prestakuntzaldia amaitzean ikasleak jakin, ulertu eta egin dezan espero dena deskribatzen dutenak), eta ebaluazio-irizpideak eta eman beharreko edukiak ezartzen dira. II. eranskinean ezarri da hori guztia.

4.– Lantokiko prestakuntzako modulua, bestalde, bigarren kurtso azken hamahiru asteetan garatuko da, eta ikastetxean egindako lanbide-modulu guztien ebaluazio positiboa lortu ondoren egingo da.

6. artikulua.– Espazioak eta ekipamenduak.

Prestakuntza garatzeko, eta ezarritako emaitzak eta konpetentziak lortzeko gutxieneko espazioak eta ekipamenduak III. eranskinean zehazten dira.

7. artikulua.– Irakasleak.

1.– Prestakuntza-ziklo hau osatzen duten lanbide-moduluak honako irakaskuntza-kidegoetako irakasleek emango dituzte: Bigarren Hezkuntzako katedradunak, Bigarren Hezkuntzako irakasleak eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoak, betiere Dekretu honen IV. eranskineko 1. paragrafoan ezarritako espezialitateen arabera.

2.– Aipatu irakaskuntza-kidegoetako irakasleei oro har eskatzen zaizkien titulazioak otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoak dira. Izan ere, Errege dekretu horrek onartzen du Hezkuntzako maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan aipatzen diren irakasle-kidegoetako espezialitate berrietan sartzeko eta eskuratzeko araudia, eta arautzen du lege horren hamazazpigarren xedapen iragankorrean adierazten den sarrerako aldi baterako erregimena. Ondorio horietarako, aipatu titulazioen baliokideak –irakaskuntza-espezialitateen arabera– dekretu honen IV. eranskineko 2. paragrafoan jasotakoak dira.

3.– Hezkuntzakoaz bestelako administrazioetako titulartasun pribatuko nahiz titulartasun publiko ikastetxeetako irakasleentzat, titulua osatzen duten lanbide-moduluak emateko behar diren titulazioak eta eskakizunak dekretu honen IV. eranskinaren 3. atalean eman dira aditzera. Nolanahi ere, aditzera emandako titulazio horiek lortzeko irakaskuntzek lanbide-moduluen helburuak bete beharko dituzte. Helburu horiek barnean hartuta ez badaude, titulazioaz gain, lanbide-arlo horrekin lotzen den sektorean gutxienez hiru urteko lan-esperientzia frogatu beharko da «ziurtagiri» bidez –ikaskuntzaren emaitzekin inplizituki lotzen diren enpresetan produkzio-jarduerak garatzen hiru urteko esperientzia frogatu beharko du ziurtagiriak–.

4.– Sailaren ardura izango da lanbide-moduluak ematen dituzten irakasleek zehaztutako eskakizunak bete dituzten, bermatuz horrela irakaskuntza horien kalitatea.

#### IV. KAPITULUA

##### BESTE IKASKETA BATZUETARAKO SARBIDEAK ETA LOTURA.

##### BALIOZKOTZEAK, SALBUESPENAK ETA EGOKITASUNAK. BALIOKIDETASUNAK, ETA ONDORIO AKADEMIKOAK ETA PROFESIONALAK. URRUTIKO ESKAINTZA ETA BESTELAKO MODALITATEAK

8. artikulua.– Prestakuntza-ziklo honetara sartzeko lehentasuna, batxilergoan ikasitako modalitateak eta ikasgaiak aintzat hartuta.

Heziketa-ziklo honetara sartzeko lehentasuna izango dute batxilergoan Zientziak eta Teknologia modalitatea ikasi dutenek.

9. artikulua.– Beste ikasketa batzuetarako sarbideak eta haiekiko lotura.

1.– Ontzi eta Itsasontzien Makineria Zainketa Antolatzeko goi-mailako teknikaren tituluak aukera ematen du goi-mailako edozein heziketa-ziklotara zuzenean sartzeko, betiere horretarako ezarritzen diren onarpen-baldintzetan.

2.– Ontzi eta Itsasontzien Makineria Zainketa Antolatzeko goi-mailako teknikaren tituluak aukera ematen du graduiko unibertsitate-tituluak eskuratzeko ikasketetara zuzenean sartzeko, betiere horretarako ezartzen diren onarpen-baldintzetan.

3.– Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak baliozkotze-araubidea ezarriko du Ontzi eta Itsasontzien Makineria Zainketa Antolatzeko goi-mailako teknikari-tituluaren eta berari lotutako graduiko unibertsitate-tituluaren artean. Baliozkotze-araubidea errazteko asmoz, dekretu honetan ezarritako irakasgaietan 120 ECTS kreditu esleitu dira prestakuntza-ziklo honetako lanbide-moduluen artean.

10. artikulua.– Baliozkotzeak, salbuespenak eta egokitasunak.

1.– Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren babesean Laneko prestakuntza eta orientabidea modulua edo Enpresa eta ekimen sortzailea modulua gaindituta dituenak modulu horiek baliozkotuta izango ditu lege horren babespeko beste edozein ziklotan.

2.– Hezkuntza-sistemaren antolamendu orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren babesean ezarritako lanbide-moduluen eta maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren babesean ezarritakoen arteko baliozkotzeak V. eranskinean adierazten dira.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren 27. artikuluan ezarritakoaren arabera, Lantokiko prestakuntza lanbide-modulua osorik edo zati batean salbuestea erabaki ahal izango da, baldin eta heziketa-ziklo honekin lotutako lan-esperientzia egiaztatzen bada, artikulua horretan jasotako baldintzen arabera.

4.– Laneko esperientziaren bidez eskuratutako lanbide-kompetentziak aintzat hartzeko uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuan ezarritako prozeduraren bitartez, tituluaren barnean hartzen diren kompetentzia-atal guztiak egiaztatu dituztenek Laneko prestakuntza eta orientabidea modulua baliozkotzea eskatu ahal izango dute, baldin eta:

– urtebeteko lan-esperientzia, gutxienez, egiaztatzen badute.

– jarduera prebentiboaren oinarrizko funtzioak betetzeko ezarritako prestakuntzaren egiaztagiria badute –Prebentzio-zerbitzuen erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera emandako egiaztagiria izango da–.

5.– Ontzi eta Itsasontzien Makineria Zainketa Antolatzeke goi-mailako teknikaren tituluaren irakaskuntzako lanbide-moduluen eta kompetentzia-atalen arteko egokitasuna –horiek baliozkotzeko edo salbuesteko– eta titulu honetako lanbide-moduluen eta kompetentzia-atalen arteko egokitasuna –horiek egiaztatzeko– VI. eranskinean jasotzen da.

11. artikulua.– Urrutiko eskaintza eta bestelako modalitateak.

Lanbide-heziketaren eskumena duen sailak arautu egingo ditu ziklo honetako irakaskuntzak eskaini ahal izateko baimena eta eskaintza horren oinarrizko alderdiak (hala nola moduluen iraupena eta sekuentziarioa), araubide orokorrean ezarritakoaz bestelako eskaintza osoaren modalitatean, bai eta urrutiko irakaskuntzan edo beste modalitate batzuetan ere.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.– Titulazio baliokideak eta lanbide-trebakuntzekiko lotespena.

1.– Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren hogeita hamaikagarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, Hezkuntzari eta Hezkuntzako Erreforma Finantzatzeari buruzko abuztuaren 4ko 14/1970 Lege Orokorreko teknikari espezialistaren tituluak uztailaren 13ko 1075/2012 Errege Dekretuan ezarritako Ontzi eta Itsasontzien Makineria Zainketa Antolatzeke goi-mailako teknikaren tituluaren ondorio profesional eta akademiko berberak izango ditu. Hona aipatutako titulua:

Itsas Mekanikako teknikari espezialista, Itsasoa eta Arrantza adarrean.

2.– Apirilaren 22ko 722/1994 Errege Dekretuak ezarritako Ontzi eta Itsasontzien Makineria Zainketa Antolatzeke goi-mailako teknikariaren tituluak eta uztailaren 13ko 1075/2012 Errege Dekretuak ezartzen duen Ontzi eta Itsasontzien Makineria Zainketa Antolatzeke goi-mailako teknikariaren tituluak ondorio profesional eta akademiko berberak izango dituzte.

3.– Laneko prestakuntza eta orientabidea lanbide-modulurako dekretu honetan xedatutako prestakuntzak trebatu egiten du laneko arriskuen prebentzioko oinarrizko mailako jardueretarako

urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuan xedatutako lanbide-erantzukizunez arduratzeko, baldin eta gutxienez 45 eskola-ordu ematen badira. Errege-dekretu horrek prebentzio-zerbitzuen araudia onartzen du.

4.– Ontzi eta Itsasontzien Makineria Zainketa Antolatzeko goi-mailako teknikariaren titulua dutenek lanbide-titulazioak eta espezialitate-ziurtagiriak eskuratu ahal izango dituzte, 4. artikuluan adierazten diren lanbide eta lanpostuetako jardunei dagokienez, titulu honetako lanbide-modulurako ezarritako prestakuntzak honako hau betetzen du eta:

– Itsasontzi zibiletako langileentzako eta makinetarako STCW Nazioarteko Kodeko Prestakuntza kodearen A-III/1 ataleko konpetentzia-arauetan ezarritakoa, baita arrantza-ontzietan langile horiei STCW-f Nazioarteko Kodeko eranskinaren II. kapituluko 5. arauaren gehigarriak ezarritakoa ere. Halaber, bete egiten ditu STCW kodeko A-VI/1 ataleko konpetentzia-arauak eta STCW-f kodeko III. kapituluko 1. arauaren gehigarriari dagokiona.

– Bete egiten ditu 973/2009 Errege Dekretua, ekainaren 12koa, Merkataritza-itsasketako titulazio profesionalak arautzen dituena, eta FOM/2296/2002 Agindua, irailaren 4koa, besteak beste, Merkataritza-itsasketako makinetako marinelaren eta itsas mekanikari nagusiaren titulu profesionalen prestakuntza-programa arautzen duena eta oinarritzko prestakuntzako eta erreskate-txalupa ez-azkarretako espezialitate-ziurtagiriak arautzen dituena.

– Bete egiten du 930/1998 Errege Dekretua, maiatzaren 14koa, Merkataritza-itsasketako eta arrantza-sektoreko lanbide batzuen titulazio eta egokitasunaren baldintza orokorre buruzkoa. Dekretu horrek hainbat aldaketa izan zuen, honako dekretu hauen bidez: urriaren 31ko 1347/2003 Errege Dekretua, ekainaren 6ko 653/2005 Errege Dekretua eta ekainaren 12ko 973/2009 Errege Dekretua.

– Bete egiten du Sustapen Ministerioaren 11260 Ebazpena, 2010eko maiatzaren 31koa, itsas mekanikariei eskuduntza gehiago emateko baldintzak ezartzen dituena.

5.– Dekretu honetan ezarritako prestakuntzak bete egiten ditu, konpetentzia-atalei lotutako modulu guztien artean eta modu bateratuan, batetik, fluordun gasak maneiatzearen arloko prestakuntza espezifikoa, eta, bestetik, fluordun gasetako hoztaileen edozein kargatako hozteko sistemak dituen tresneria maneiatzeko konpetentziari buruzko egiaztagiria lortzeko eskakizunak, betiere Fluordun gasak eta horietan oinarritutako tresneria merkaturatzeko eta maneiatzeko arauak eta haiek erabiltzen dituzten profesionalen egiaztagiria emateko modua ezartzen dituen ekainaren 16ko 795/2010 Errege Dekretuan ezarritako zehaztapenekin bat etorriz. Egiaztagiri hori lortze aldera, dekretu honetan garatutako titulua beste baten baliokide deklaritzen da, hau da, Instalazio Termiko eta Fluidodunak Mantentzeko goi-mailako teknikariaren tituluaren baliokidea. Azken titulu hori otsailaren 15eko 220/2008 Errege Dekretuaren bidez arautu zen, eta fluordun gasak eta horietan oinarritutako tresneria merkaturatzeko eta maneiatzeko legean ezarritako titulua ordeztzen du.

## BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Lanbide Heziketako Sailburuordetzak aukera izango du dekretu honen I. eranskinean ezarritakoaz bestelako iraupena duten proiektuak baimentzeko, baldin eta moduluen kurtsokako banaketa aldatzen ez bada eta titulua sortzeko errege-dekretuan modulu bakoitzari esleitutako gutxieneko orduak errespetatzen badira.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko uztailaren 29an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,  
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

## UZTAILAREN 29KO 163/2014 DEKRETUAREN I. ERANSKINA

## LANBIDE MODULUEN ZERRENDA, ORDU ESLEIPENA ETA KURTSOA

Kodea	Lanbide modulua	Ordu esleipena	Kurtsoa
1308	1. Itsasontzien propulzio-plantaren eta makineria osagarriaren zainketa antolatzea	198	1
1309	2. Ontzi eta itsasontzien lehorreko zainketa antolatzea eta motor termikoak muntatzea	160	2
1310	3. Ontzi eta itsasontzietako automatismo hidraulikoen eta pneumatikoen programazioa eta zainketa	200	2
1311	4. Instalazio eta sistema elektrikoaren zainketa eta muntaketa antolatzea ontzi eta itsasontzietan	231	1
1312	5. Hozteko instalazioen eta girotzeko sistemen zainketa eta muntaketa antolatzea ontzi eta itsasontzietan	198	1
1313	6. Ontzi eta itsasontzien makineria-zainketa planifikatzea	60	2
1314	7. Makinen guardia antolatzea	60	2
0179	8. Ingelesa	132	1
0800	9. Larrialdien kontrola	132	1
0802	10. Itsasontziko osasun-laguntzaren antolamendua	60	2
1315	11. Ontzi eta itsasontzien makineria-zainketa antolatzeko proiektua	50	2
1316	12. Laneko prestakuntza eta orientabidea	99	1
1317	13. Enpresa eta ekimen sortzailea	60	2
1318	14. Lantokiko prestakuntza.	360	2
	Zikloa, guztira	2.000	



## UZTAILAREN 29KO 163/2014 DEKRETUAREN II. ERANSKINA

## LANBIDE MODULUAK: IKASKUNTZAREN EMAITZAK, EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETA EDUKIAK

1. lanbide-modulua: Itsasontzien propulzio-plantaren eta makineria osagarriaren zainketa antolatzea

Kodea: 1308

Kurtsoa: 1

Iraupena: 198 ordu

ECTS kredituetarako baliokidetzatza: 14.

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Propulzio-plantak prestatu eta martxan jartzen ditu, instalazioaren ezaugarriak eta tresneria osagarriaren funtzionaltasuna energia-eraginkortasuneko irizpideen arabera balioetsita.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Segurtasunez nabigatu ahal izateko baldintzak balioetsi ditu, itsasontziaren zerbitzuetako eta propulzio-plantako elementuen operatibotasuna eta ezaugarriak –dokumentazio teknikoan ezarritakoak– egiaztatuta.

b) Propulzio-planta segurtasun-baldintzetan martxan jartzeko prozesua ezarri du, itsas bidaiari ekiteko funtsezko elementuen eta zerbitzuen (ardatz-lerroa eta makina-ganberako gobernatzeko sistema, aireztapena eta erauzketa, besteak beste) funtzionaltasuna prestatzeko eta egiaztatzeko eragiketen sekuentzia zehaztuta.

c) Ontzi-aldaketak segurtasun-baldintzetan egiten direla eta erregaiarekin egiten diren eragiketetan araudian ezarritako betekizunak betetzen direla egiaztatu du, itsas ingurunearen kutsadura prebenitzeko.

d) Olioan, erregaien, galdaretako eta motorrak hozteko uren azterketa protokolizatuak egin ditu, propietateak kontrolatuta eta behatutako anomaliak zuzenduta.

e) Olio eta erregaia arazteko gailuen, aire-konpresoreen eta ura produzitzeko eta banatzeko tresneriaren eragiketa-prozedurak egiaztatu ditu, horien funtzionamendu-parametroen baldintzak eta balioak fabrikatzailearen zehaztapenekin bat datozela egiaztatuta.

f) Olio-urak bereizteko eta hondakin-urak tratatzeko planten eragiketa-prozedurak egiaztatu ditu, funtzionamendu-parametroen balioak araudian ezarritakoaren arabera doituta eta egiaztatuta.

g) Lantalde batean txertatu da, eta taldea zuzentzeko garaian lider izateko gaitasuna eta propulzio-planta martxan jartzeko prestaketa-lanetan arazoak konpontzeko gaitasuna duela frogatu du.

2.– Makina eragileak (barne-errekuntzako motorra, lurrunezko galdara/turbina edo gas-turbina) martxan jartzen ditu eta horien funtzionamendua ebaluatzen du, betiere horien errendimendua itsas bidaiaren plangintzaren arabera balioetsita.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Makina eragilea osatzen duten talde funtzionaletako elementu bakoitzaren funtzionamendua eta ezaugarriak lan-zikloan betetzen duten eginkizunarekin lotu ditu.

b) Makina eragilearen sistema osagarrien funtzionamendu-parametroetan behatutako desbideratzeak zuzendu ditu dokumentazio teknikoan zehaztutakoaren arabera.

c) Makina eragilea abiarazteko prozesua segurtasunez gauzatzen dela gainbegiratu du, zerbitzu osagarriekiko interakzioa abiarazte-sekuentzian ezarritako baldintzen arabera egiten dela egiaztatuta.

d) Makina eragilearen errendimendua eta energia-eraginkortasuna zehaztu ditu, garatutako potentzia kalkulatuta eta neurri zuzentzaileak hartu behar ote diren balioetsita.

e) Makina eragilea prest dagoela egiaztatu du, funtzionamendu-parametroak eta diagramak egiaztatuta eta egin beharreko doikuntzak eginda.

f) Makina eragilearen segurtasun-sistema berriz tresnatu du, larrialdiko geldialdia eragin duten anomaliak egiaztatu eta zuzenduta, eta berriz martxan jarri aurretik operatibo dagoela egiaztatuta.

g) Lurrunezko propulsiio-planta, besteak beste, martxan jartzeko, erregimena aldatzeko eta itzaltzeko eragiketen segurtasun-arauak eta prozedurak aplikatzeko protokoloak zehaztu ditu.

h) Gas-turbinari dagokionez, ezarritako eragiketa-prozedurak betetzen direla egiaztatu du, funtzionamendu-parametroak dokumentazio teknikoan ezarritakoekin bat datozela egiaztatuta eta behatutako desbideratzeak zuzenduta.

3.– Ontzi eta itsasontzietako propulsiio- eta gobernu-sistemen zainketa prebentiboak eta prediktiboak programatzen eta koordinatzen ditu, eskura dituen baliabideak abiapuntu hartuta eta dokumentazio teknikoa balioetsita.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Zainketa-protokoloak ezarri ditu, tresneriaren informazio teknikoa eta erregistroetan lortutako informazioa abiapuntu hartuta.

b) Zainketa prediktiboetako dagozkien datuak biltzeko protokoloak ezarri ditu, neurtzeko teknikak aplikatuta eta tresneriaren egoera operatiboa balioetsita.

c) Zainketa-lanen banaketa –denborari dagokionez– egin du, tresneriaren eskakizunak eta funtzionamendu-zirkunstantziak aintzat hartuta.

d) Lan-eremua prestatzeko prozedura finkatu du, zainketa behar duen tresneriaren edo sistemen isolamendu mekanikoa eginda eta dokumentazio teknikoa erabilita.

e) Zainketa-lanetako desmuntatzeko eta muntatzeko sekuentzia finkatu du, kontingentzien aurreko jardunak aurreikusita.

f) Giza baliabideak eta baliabide materialak esleitu ditu, lan-karga, lehentasuna, erabilgarritasuna eta esku-hartzeen optimizazioa aintzat hartuta.

g) Kanpoko baliabideek egin behar dituzten zainketa-lanak finkatu ditu, dokumentazio teknikoaren gomendioei eta erabilgarri dauden baliabideei erreparatuta.

h) Zainketa-lanetako eragiketei buruzko informazioa erregistratzeko protokoloak zehaztu ditu.

4.– Ontzi eta itsasontzietako propulsiio- eta gobernu-sistemen zainketa-lan prebentiboak eta prediktiboak egiten eta gainbegiratzen ditu, beharrezkoak diren baliabideak zehaztuta eta antolatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Zainketa egitearren, propulzio-sistemaren eta makineria osagarriaren elementuak desmuntatzeko, muntatzeko eta horien egoera egiaztatzeko eragiketak gainbegiratu ditu, ezarritako protokoloei jarraikiz eta baliabideak zorroztasunez baliatuta.

b) Desmuntatu ostean zer eragiketa egin behar duen zehaztu du, egiaztapenean lortutako parametroen balioak dokumentazio teknikoarekin alderatuta eta lehentasunak zehaztuta.

c) Propulzio-plantako elementu edo tresneria baten gain egin beharreko zainketa-lanetako ekintzak zehaztu eta gauzatu ditu, zainketa prediktiboko tekniken bitartez lortutako grafiko eta datuetan oinarrituta.

d) Karelez kanpoko motorra, karelez kanpoko/barruko motorra eta ur-zurrustako motorra duten ontzien propulzio-sistemen zainketa-lanak egiten ditu euren energia-eraginkortasuna eta operatibotasuna bermatzeko, dokumentazio teknikoaren eta emandako jarraibideen arabera.

e) Motor termiko baten elementuen (kulatak, injekzio-sistema gainelikatzeko-sistema, besteak beste) egokitzapenak eta doikuntzak egin ditu, zainketa egin ostean eta zehaztutako balioen arabera.

f) Funtzionaltasun- eta fidagarritasun-probak eta azken doikuntzak sistematikoki egin ditu, funtzionamenduaren hasierako baldintzak berrezarri direla egiaztatuta.

g) Zainketa-lanetan bete beharreko kalitate-irizpideak aintzat hartu ditu.

h) Egindako zainketa-lanak adierazitako formatuan erregistratu ditu.

5.– Ontzi eta itsasontzietako propulzio-sistemetak matxurak diagnostikatzen ditu, parametroen balioak eta adierazpenak interpretatuta eta dokumentazio teknikoan bildutako informazioa baliatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Matxuraren sintomak identifikatu ditu, diagnostikatu behar den tresneria edo sistema lokalizata eta beste tresneria edo sistemekin zer nolako harremana duen zehaztuta.

b) Dokumentazio teknikoan ezarritako diagnostiko-protokoloak jarraitu ditu, eragiketetan lortutako datuak balioetsita.

c) Matxuraren garrantzia balioetsi du, zentzumenen bidez egiaztapenak eginda eta neurgailuen eta auto-diagnostikoa egiteko sistemen bidez lortutako parametroen balioak dokumentazio teknikoan ezarritakoekin erlazionatuta.

d) Matxuraren diagnostikoa egiteko behar izan duen denbora balioetsi du, propulzio-plantaren lan-baldintzei erreparatuta.

e) Matxuraren garrantziaren eta diagnostikoaren txosten teknikoa egin du, konponketa egiteko garaian lehentasunak ezarri ahal izateko moduan, konpontzeko aukerak eta hartu beharreko neurri aringarriak justifikatuta.

f) Egindako diagnostikoaren arabera dauden konponketa-aukerak ebaluatu ditu, erabili beharreko baliabideak eta prozedura zehaztuta eta hautatutako aukera justifikatuta.

6.– Ontzi eta itsasontzietako propulzio-sistemen matxurak konpontzeko eragiketak egiten eta gainbegiratzen ditu, diagnostikoan oinarrituta zer esku-hartze egin behar den zehaztuta eta lortutako operatibotasunaren leheneratzea balioetsita.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Desmuntatzeko eta muntatzeko eragiketen sekuentzia dokumentazio teknikoan ezarritakoari jarraikiz ezarri du.

b) Konponketa egiteko behar dituen giza baliabideak eta baliabide materialak zehaztu eta hautatu ditu, lehentasun-irizpideak eta dokumentazio teknikoan lortutako datuak kontuan izanik.

c) Eskatutako zerbitzu alternatiboak edo larrialdikoak ezarri ditu, itsasontziaren, tripulazioaren eta ingurumenaren segurtasunari eustea ahalbidetzeko.

d) Matxuratutako elementuarekin zer eragiketa egin behar den erabaki du (aldatuta konponetzea edo tailarrera bidaltzea, besteak beste), elementuaren egoera eta ezarritako lehentasunak balioetsita.

e) Karelez kanpoko motorra, karelez kanpoko/barruko motorra eta ur-zurrustako motorra duten ontzien propulzio-sistemen matxurak konpondu ditu, euren operatibotasuna bermatzeko beharrezkoak diren doikuntzak eginda.

f) Konpondu ostean, tresneriaren edo sistemaren funtzionamenduko hasierako baldintzak berrezarri ote diren egiaztatu du, egin beharreko doikuntzak eginda eta fluidoek galerarik ez ezik, barrutik kanpo dagoen parametroen baliorik ere ez dagoela egiaztatuta.

g) Konponketa-lanetan bete beharreko kalitate-irizpideak aintzat hartu ditu.

h) Egindako esku-hartzeen xehetasunak adierazitako formatuan erregistratu ditu.

7.– Propulzio-plantaren gainbegiratze- eta zainketa-lanetan laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak ebaluatzen eta betetzen ditu, dagozkion arriskuak identifikatuta eta horiei aurrea hartzeko neurriak aplikatuta, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Egin beharreko lanari dagozkion laneko eta ingurumeneko arriskuak zehaztu ditu, bai eta horien arriskugarritasun-maila ere, aplikatu beharreko araudia baliatuta.

b) Ohikoen diren arrisku-egoeretan babesteko eta jarduteko plana diseinatu eta ezarri du, eta inplikaturako langileei plana betetzea zein garrantzitsua den ikusarazi die.

c) Segurtasun-elementuak (makinak eta norbera babesteko ekipamendua) bakoitzaren funtzionaltasunarekin lotu ditu, eta egin beharreko lanaren arabera zer neurri hartu behar den zehaztu du.

f) Larrialdiko sorgailuen eta koadroen abiarazteko eta akoplatzeko sekuentzia egiaztatu du, itzalaldia gertatzean.

g) Eragiketetan erabiltzen diren prozedura eta baliabideetan lan-arriskuen prebentzioari buruzko arauak betetzen direla gainbegiratu du.

2.– Banaketa-koadroen eta kontsumitzaileen funtzionamendu-baldintzak dokumentazio teknikoaren arabera ebaluatzen ditu, funtzionamendu-parametroak egiaztatuta eta indarreko eta maniobrako zirkuituetan babesak erregulatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Funtzionamendu-parametroak egiaztatu ditu eta indarreko eta argiztapeneko zirkuituetako kontsumitzaileen koadro nagusiko babes-elementuak egiaztatu ditu, abiarazte selektiboak ezarritakoaren arabera jokatzeko duela egiaztatuta.

b) Transformadore monofasikoen eta trifasikoen funtzionamendu-probak eta -saiakuntzak egin ditu, definitutako funtzionamendu-parametroekin bat datozeala egiaztatzeko.

c) Makina birakariak koipeztatzeko, garbitzeko eta lerrokatzeko prozedurak definitu ditu, tenperaturaren eta bibrazioaren ezarritako baldintzetan oinarrituta.

d) Motor elektriko monofasikoen eta trifasikoen funtzionamendua egiaztatu du, parametroak dokumentazio teknikoaren arabera egiaztatuta, eta babesak eta abiarazteko denborak erregulatuta.

e) Itsasontziko instalazioetan (hotz-planta eta serbolema, besteak beste) aplikatutako korrante elektrikoaren banaketa-sistemen funtzionamendua egiaztatu eta erregulatu du, loturiko eskemak interpretatuta.

f) Maiztasun-bihurgailuen funtzionamendua egiaztatu du, parametroak dokumentazio teknikoaren arabera egiaztatuta.

g) Eragiketetan erabiltzen diren prozedura eta baliabideetan lan-arriskuen prebentzioari buruzko arauak betetzen direla gainbegiratu du.

3.– Motor eta tresneria elektrikoak eta elektronikoak abiarazteko eta kontrolatzeko sistema elektrikoak muntatzen ditu, haiei loturiko eskemak eginda eta esku-hartzea araudiaren eta zehaztapen teknikoaren arabera gauzatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Instalazio elektrikoaren indarreko eta maniobrako zirkuituaren eskema egin du, sinbologia normalizatua aplikatuta.

b) Abiarazteko (zuzena, bira-inbertsorea, izarra/triangela eta sekuentziala) hainbat instalaziotarako zirkuituen osagaien eta kableatuaren dimentsionatua egiaztatu du, zehaztapen teknikoaren arabera.

c) Muntatzeko prozedurak gainbegiratu ditu, eta indarreko eta maniobrako instalazioen konexio-natua muntatzeko eskemarekin eta araudiarekin bat datorrela egiaztatu du.

d) Egindako muntaketaren operatibotasuna egiaztatu du, kalkuluak egiaztatuta, funtzionamendu-parametroak neurtuta eta, hala badagokio, eskatutako neurketak eginda.

e) Tresneria aldatzearen ondorioz, instalazioa berraztertu du eta egindako aldaketak dokumentu bidez justifikatu ditu.

f) Taldean lan egiteko arauak eta segurtasuneko arauak errespetatu ditu.

4.– Itsasontziko instalazio elektrikoen zainketa prebentiboa, prediktiboa eta zuzentzailea programatzen eta gainbegiratzen ditu, dokumentazio teknikoa interpretatuta eta jarraitu beharreko prozedurak definituta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Makina elektrikoen, koadroen, korrante zuzeneko tresneriaren eta maiztasun-bihurgailuen zainketa-protokoloak ezarri ditu, informazio teknikoan eta zainketa prebentiboko datuetan oinarrituta.

b) Matxurak diagnostikatzeko prozedurak zehaztu ditu, informazioaren tratamenduan eta matxuren konponketa-erregistroan oinarrituta.

c) Zainketa egiteko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak hautatu ditu, lehen-tasun-irizpideak eta lan-karga kontuan izanik.

d) Zainketa-lanen banaketa –denborari dagokionez– egin du, itsas bidaiaren baldintzak edo tailerreko antolamendua aintzat hartuta.

e) Zainketa- eta konponketa-lanetan kanpoko bitartekoak erabiltzeko aukera balioetsi du, irizpide teknikoak eta eskura dituen baliabideak kontuan izanik.

f) Zainketa-planean eta jardun-protokoloetan aldaketak egitea aurreikusi du, matxuren eta lortutako informazioaren arabera.

g) Zainketa elektrikoaren informazioa tratatzeko eta erregistratzeko baliabideak definitu ditu, araudiaren eta definitutako ereduaren arabera.

5.– Sorgailu, transformadore, motor, talde bihurgailu eta banaketako koadro nagusien zainketa zuzentzaileak egiten ditu, informazio teknikoa aztertuta eta neurketak eginda.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Matxuratuta dagoen tresneria edo elementua isolatu egin du esku-hartzeari ekin aurretik, neurtzeko tresneriaren bidez deskonektatuta dagoela egiaztatuta eta segurtasunez lan egiteko neurriak hartuta.

b) Desmuntatutako elementuak, erremintak eta tresnak kokatuko diren lan-eremua mugatu eta egokitu du.

c) Konponketa-lanen eraginpeko tresneriaren elikadurari eustea ahalbidetuko duten elikadura alternatiboak edo larrialdikoak ezarri ditu.

d) Tresneria edo elementu elektrikoa dokumentazio teknikoan finkatutako sekuentziaren arabera desmuntatu eta muntatu du.

e) Tresnerian matxuratuta dauden elementuak konpondu edo aldatu ditu, berriz funtzionatzen duela egiaztatu du eta esku-hartzea erregistratu du.

f) Laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentzio-neurriak eta zainketa-protokoloak betetzen ote diren balioetsi du.

g) Egindako esku-hartzeetan informazioa erregistratzeko eta biltzeko baliabideak ba ote diren kontrolatu du.

h) Tresneria eta elementu elektrikoaren zainketa-programak eguneratzeko aukera balioetsi du, konponketen historiari erreparatuta.

6.– Korrante zuzeneko zirkuitu eta zerbitzuen zainketa egiten du; horretarako, eskemak interpretatu eta programatutako edo eskatutako eragiketak egiten ditu, eta lortutako operatibotasuna balioesten du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Ontzi eta itsasontziaren korrante zuzeneko motorrak eta energia elektrikoa kargatzeko, sortzeko (eolikoa, eguzkiarena edo mekanikoa) eta metatzeko tresneriaren zainketa-lanak egin edo gainbegiratu ditu, ezarritako planaren arabera.

b) Korrante zuzeneko motorretan eta energia elektrikoa kargatzeko, sortzeko eta metatzeko tresnerian izandako matxura diagnostikatu eta balioetsi du, neurtutako parametroetan eta dokumentazio teknikoan oinarrituta.

c) Tresneria konpondu du, esku-hartzearen sekuentzia aplikatu du, dokumentazio teknikoa aintzat hartu du, funtzionamendua egiaztatu du eta esku-hartzea erregistratu du.

d) Tresneria elektriko-elektronikoen, gobernu-tresneriaren, alarman, larrialdiko argien eta korrante zuzeneko seinaleztapenaren elikadura-sistemen zainketa-lanak egin eta gainbegiratu ditu, definitutako tresnak eta dokumentazio teknikoa erabilia.

e) Tresneria elektriko-elektronikoen, gobernu-sistemen, alarman, larrialdiko argien eta korrante zuzeneko seinaleztapenaren elikadura-sistemetak matxura diagnostikatu eta ebaluatu du, eskemak interpretatuta eta neurtutako parametroak balioetsita.

f) Matxura konpondu du eta elikadura berrezarri du tresneria elektriko-elektronikoetan, gobernu-sistemetan, alarmetan, larrialdiko argietan eta korrante zuzeneko seinaleztapenean; horien funtzionamendua egiaztatu du, esku-hartzea erregistratu du eta eskemetan zuzenketak egin ditu.

g) Laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentzio-arauak, eta laneko erremintak eta tresneria erabiltzeko jarraibideak betetzen ote diren egiaztatu du.

7.– Tresneria elektrikoaren eta elektronikoaren gainbegiratze- eta zainketa-lanetan laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak ebaluatzen eta betetzen ditu, dagozkion arriskuak ebaluatuta eta horiei aurrea hartzeko neurriak aplikatuta, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Sistema elektriko eta elektronikoak konpondu eta zaintzeko tresneria, erremintak eta tresnak manipulatzeko dauden arriskuak eta arriskugarritasuna identifikatu ditu.

b) Tresneria elektrikoak eta elektronikoak araudian eskatutako babesak eta adierazpenak badi-tuztela egiaztatu du, sarera konektatu aurretik.

c) Tresneria diagnostikatzeko eta zerbitzuan jartzeko eragiketak prestatu eta egiteko hartu behar diren segurtasuneko eta norbera babesteko neurriak deskribatu ditu.

d) Konponketarik edo aldaketarik egin aurretik tresneria deskonektatuta dagoela egiaztatu du, izan daitezkeen berrelikadurak aurreikusita eta tentsiorik ez dagoela ziurtatuta.

e) Instalazio eta ekipo elektriko eta elektronikoen ordena eta garbitasuna balioetsi ditu, arriskuen prebentziorako faktoretzat hartuta.

f) Bateria-taldeak biltegitatzeko, maneiatzeko eta zaintzeko kontuan izan beharreko alderdiak aintzat hartu ditu.

g) Itsasontziaren eta ontzi osagarrien energia elektrikoa sortzeko, banatzeko eta metatzeko sistemak zaintzeko eta instalatzeko lanetan sortutako hondakinak kudeatzeko araudia aplikatu du.

h) Hondakinak gaika biltzeko eta desagerrarazteko sistema errespetatu du, bai eta produktu arriskutsuak biltegitatzeko eta manipulatzeko prozedurak ere.

## B) Edukiak:

1.– Hornidura elektrikoa balioestea, erregulatzea eta neurtzea.

Sorgailu trifasikoen elementu elektrikoak eta elektronikoak identifikatzea.

Sorgailu elektrikoaren funtzionamendua egiaztatzea.

Sorgailuak akoplatzeko eta desakoplatzeko prozesuen sekuentzia eta prozedurak deskribatzea.

Alternadoreak erregulatzea.

Kanpoko korrante-hartunearen akoplamendua egiaztatzea.

Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzea.

Alternadore trifasikoa erregulatzeko metodoak:

– Alternadorearen errotorearen eta estatorearen eraketa.

– Eskuiladun alternadorea eta alternadoreari atxikitako eszitriza.

– Tentsioa erreaktantziekin eta konpoundajearekin erregulatzea.

– Erregulazio elektronikoa.

Eskuilarik gabeko alternadorea erregulatzeko metodoak:

– Alternadore nagusia eta alternadore osagarria, estatorean induktorea duela eta errotorean induzitua.

– Diodo birakariak.

– Tentsioaren erregulazaile elektronikoa.

Alternadoreen abiadura (maiztasuna) erregulatzeko sistemak:

– Abiadura-erreguladore hidraulikoak.

– Abiadura-erreguladore elektronikoa.

– Abiaduraren murrizketa kargarekin.

Alternadoreak babesteko sistemak.

Etengailu automatikoa edo disjuntorea babesteko eta erregulatzeko metodoak:

– Babes magnetikoa zirkuitulaburretarako.

– Gaiakargen babes termikoa.

– Gutxieneko tentsioko harila.

Gaiakargako errelea erregulatzeko metodoak:

– Alarmak eta funtsezkoak ez diren zerbitzuak abiarazteko denboren eta gaiakarga-balioen erregulazioa.

– Alternadorea deskonektatzeko gaiakarga-balioaren erregulazioa. Deskonexio-denbora.

Alternadoreen akoplamenduaren kontrola:

– Kargen orekatzea, kargaren erregulazioa abiadura aldatuta.

– Alternadorearen funtzionamendua motor sinkrono moduan, alderantzizko potentzia-errelea.

– Alderantzizko potentzia-errelearen doikuntza, alarmarako eta alternadorea deskonektatzeko.

Alternadoreen deskonexioaren kontrola eta kanpoko korrante-hartunearen konexioa:

– Alternadoreen eskusioa eta kanpoko korrante-hartunea.

– Faseen segidako errelea.

Larrialdi-koadroa eta larrialdiko sorgailuaren konexioa:

– Larrialdiko sorgailuaren abio automatikoa.

– Koadro nagusiko tentsio-akatsko errelea.

– Larrialdiko koadroa koadro nagusiarekin konektatzea.

– Larrialdiko koadroari konektatutako elementuak.

– Larrialdiko koadroaren eskuzko abioa.

Egitekoak garatzeko ekimena.

Taldean jardutea eta integratzea.

Ordena eta metodoa jarduerak egitean.

Ezarritako epeekiko konpromisoa izatea.

Hondakinak birziklatu eta biltegitratzeko prozesuekiko konpromisoa.

2.– Koadro nagusiaren eta kontsumitzaileen kontrola.

Eskemak interpretatzea.

Transformadoreen funtzionamendu-probak eta -saiakuntzak egitea.



Makina birakariak koipeztatzeko, garbitzeko eta lerrokatzeko prozedurak deskribatzea.

Indarreko eta maniobrako zirkuituetan babesak erregulatzea.

Motor elektriko monofasikoen eta trifasikoen funtzionamendua egiaztatzea.

Maiztasun-bihurgailuaren funtzionamendua egiaztatzea.

Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzea.

Koadro elektrikoetako neurketa elektrikorako sistemak:

– Neurri-sistemak: haril mugikorra, burdina mugikorra, elektrodinamikoa, indukziokoa eta xafla dardarakorrak.

– Irismena areagotzea intentsitatearen eta tentsioaren neurrian, korrante zuzenean eta korrante alternoan.

– Sistema trifasikoen potentzia-neurria.

Koadro nagusiaren babesak:

– Etengailu automatikoak. Bimetal termikoa. Haril magnetikoa.

– Gutxieneko tentsioko errelea.

– Gehieneko tentsioko errelea.

Transformadore monofasikoak martxan jartzeko eta kontrolatzeko metodoak:

– Transformadorearen funtzionamendua hutsik eta kargatuta.

– Hutseko saiakuntza eta transformadorearen zirkuitulaburra.

– Transformadore trifasikoak martxan jartzeko eta kontrolatzeko metodoak:

– Nukleoaren kontrola.

– Transformadorea konexioatzea.

– Hutseko saiakuntza eta transformadore trifasikoaren zirkuitulaburra.

Makina birakarien tenperaturaren eta bibrazioaren neurriak:

– Konexio malguak. Lerrokadura. Laser bidezko lerrokadura.

– Garbitzeko eta koipeztatzeko prozedurak.

Korrante alternoko motor trifasikoak kontrolatzeko metodoak:

– Urtxintxa-kaiola motako motorra. Errotore harilkatua eta eraztun marruskatzaileak dituen motorra.

– Estatorearen harilketa trifasikoak. Polo-pareen kopurua.

– Bira-inbertsioa.

Abiarazte-prozesua korrante alternoko motorretan:

– Zuzeneko abioa.

– Izar/triangelu abioa. Pare/abiadura eta intentsitate/abiadura kurbak. Abiaraztean parea gutxitzea.

– Abiarazte progresiboko kontaktore elektronikoak.

Urtxintxa-kaiola motako motor monofasikoaren kontrola:

– Fase zatitua duen motorra, harilketa osagarriarekin.

– Fase zatitua duen motorra, kondentsadorearekin.

Talde bihurgailuen kontrola:

– Bloke-diagramak: transformadorea, artezgailua, zuzeneko busa, inbertsioa eta irteerako iragazkiak.

Artezteko prozedurak:

– Artezketa diodoekin. 6 pultsuko eta 12 pultsuko artezgailuak.

– Artezketa kontrolatua (IGBT).

Hiru mailako inbertsorearen kontrola:

– Inbertsioa IGBTarekin.

– IGBTen kontrola.

– Irteerako iragazkiak,  $dv/dt$ .

Hozteko unitatearen kontrola:

– Aire bidezko hozketa.

– Ur desionizatu bidezko hozketa.

Eragiketak zehaztasunez egitea.

Talde-lanean lagundu eta sartzea.

Ingurunea (pertsonak eta ekipamendua) errespetatzea.

Arreta erabilitako erremintak, tresnak eta makinak kontserbatzea.

Norbera babesteko ekipamendua erabiltzea.

3.– Motorrak abiarazteko eta kontrolatzeko sistema elektrikoen muntaketa egitea eta gainbegiratzea.

Eskema elektrikoak egitea.

Eskemak interpretatzea.

Sistema elektrikoak muntatzea.

Muntaketa zehaztapen teknikoen arabera egiaztatzea: kableatua, osagaiak, eta abar.

Indarra babesteko eta maniobrako elementuak erregulatzea.

Norbera babesteko ekipamendua erabiltzea.

Instalazioa zuinkatzea.

Egindako aldaketak dokumentu bidez justifikatzea.

Eskema egitea:

- Indar-eskema edo nagusia, eta aginte- edo maniobra-eskema.
- Kable anitzeko eta kable bakarreko eskema elektrikoa.

Abio-sistemak muntatzeko metodoak:

- Behe-tentsioko instalazioetarako araudia.
- Korrontearen intentsitatea zehaztea.
- Tentsio-erorketak.
- Kableen hautaketa.
- Taulak.

Indarra babesteko eta maniobrarako elementuak erregulatzeko metodoak:

- Etengailuak, sakagailuak eta adierazleak erregulatzeko.
- Motorren babesa. Gainkargako errele termikoa.

Maniobra-elementuak erregulatzeko metodoak:

- Kontaktoreak. Kontaktu osagarriak. Atzeraelikadura.
- Maniobra-errelea.
- Harilketa-tenperaturaren detektagailuak.
- Konektatzeko eta deskonektatzeko tenporizadoreak. Erregulazioa.

Tentsioaren, intentsitatearen eta jarraitutasunaren neurriak: polimetroa, osziloskopioa eta matxarda anperimetrikoak.

Egitekoak garatzeko ekimena.

Taldean jardutea eta integratzea.

Ordena eta metodoa jarduerak egitean.

Ezarritako epeekiko konpromisoa izatea.

Hondakinak birziklatu eta biltegitratzeko prozesuekiko konpromisoa.

4.– Itsasontziko instalazio elektrikoaren zainketa prebentiboak, prediktiboak eta zuzentzaileak programatzea.

Dokumentazio teknikoa interpretatzea.

Zainketa-programa lantzea.

Isolamendu elektrikoa neurtzea.

Makina elektrikoetan tenperatura eta korrante-intentsitatea neurtzea.

Matxurak diagnostikatzeko prozedurak zehaztea.

Errodamenduen funtzionamenduaren eta akoplamenduaren kontrola.

Koadro nagusiaren erregulazio-parametroen definizioa.

Ikuskapenen erregistro-dokumentuak betetzea.

Zainketa-programa lantzeko metodoak:

– Maiztasuna.

– Lan-kargak.

Zainketa prediktiboak egiteko teknikak:

– Isolamenduari, bibrazioei, tenperaturei eta zaratei buruzko datuak lortzea eta horien tratamendua.

– Tentsioaren, intentsitatearen eta potentziaren neurriak lortzea eta horien tratamendua.

– Neurketa-teknikak.

– Zainketaren datu-baseak lantzea.

Isolamendu elektrikoa, neurketa:

– 380 V edo 660 V barren eta 220 V barren isolamendu-adierazleak.

– Fase-kontsumoaren orekatzea.

– Isolamendua neurtzeko gailuak (Meger).

– Korrante-ihesak hautematea eta alarma.

– Isolamenduaren muga-balioak.

Makina elektrikoetan tenperatura eta korrante-intentsitatea neurtzeko metodoak:

– Harilketa-tenperaturaren neurketa. Haizagailuen funtzionamendua.

– Tenperatura-sentsoreak alternadore motor berezietan eta transformadoreetan.

Errodamenduen funtzionamendua eta akoplamendua kontrolatzeko metodoak:

– Bibrazioen neurketa.

– Errodamenduen tenperaturaren neurketa.

Koadro nagusiaren erregulazio-parametroak:

– Koadro nagusiaren eskema elektrikoa eta dokumentazioa interpretatzea.

– Etengailuen parametroak.

– Funtsezkoak ez diren zerbitzuak deskonektatzeko protokoloak.

Ikuskapenak erregistratzeko dokumentuak.

Egitekoak garatzeko ekimena.

Taldean jardutea eta integratzea.

Ordena eta metodoa jarduerak egitean.

Ezarritako epeakiko konpromisoa izatea.

Hondakinak birziklatu eta biltegitzeko prozesuekiko konpromisoa.

5.– Sorgailu, transformadore, motor eta talde bihurgailuak eta banaketako koadro nagusia gainbegiratzea eta zaintzea.

Konpondu beharreko elementua isolatzea eta seinaleztatzea.

Elikadura alternatiboak ezartzea.

Tresneria edo elementu elektrikoa desmuntatzea eta muntatzea.

Matxuratutako elementua konpontzea edo aldatzea.

Zainketa protokoloak betetzea.

Koadro nagusiko matxurak aurkitzea eta konpontzea.

Matxuren erregistroa.

Koadro eta tresneria elektrikoaren babesak, jardunen bati ekin aurretik:

– Tresneriari lurra jartzea.

– Isolamenduaren erresistentzia-neurgailuak (ISOMETER).

Zerbitzu alternatiboak edo larrialdikoak.

Matxuren konponketa makineria elektrikoan:

Muntatzeko eta desmuntatzeko sekuentziak.

– Dokumentazio teknikoa.

Koadro nagusiko matxurak aurkitzea eta konpontzea.

– Matxurak aurkitzeko sekuentzia.

– Konponketa-proposamenak eta -alternatibak.

– Muntatze- eta desmuntatze-prozesuak eta -teknikak.

– Funtzionamenduaren egiaztapena.

Egitekoak garatzeko ekimena.

Taldean jardutea eta integratzea.

Ordena eta metodoa jarduerak egitean.

Ezarritako epeakiko konpromisoa izatea.

Hondakinak birziklatu eta biltegitzeko prozesuekiko konpromisoa.

6.– Korrante zuzeneko tresneriaren eta instalazioen zainketa.

Eskemak interpretatzea.

Energia elektrikoa kargatzeko, sortzeko (eolikoa, eguzkiarena edo mekanikoa) eta metatzeko tresneriaren zainketa.

Karga-tresnerian matxurak diagnostikatzea.

Matxuratutako elementua konpontzea edo aldatzea.

Esku-hartzea erregistratzea.

Bateriak kargatzeko alternadoreetako tentsio-erreguladoreak doitzeta eta egiaztatzea.

Larrialdiko argi-sistemen zainketa.

Alarma-sistemen zainketa.

Laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak aplikatzea.

Baterien zainketa:

- Metagailu motak.
- Kargako eta deskargako korrontea eta tentsioa.
- Barne-erresistentzia.
- Baterien egoeraren egiaztapena.

Baterien karga-sorgailuaren konponketa eta zainketa:

- Baterien kargaren intentsitatea.
- Baterien kargaren erregulazioa eta kontrola.

Bateriak kargatzeko alternadoreetako tentsio-erreguladoreak doitzeko eta egiaztatzeko metodoak.

Panel fotovoltaikoen eta aerosorgailuen zainketa.

Abio-motor elektrikoaren zainketa.

Zubi-tresnak korronte zuzenaz elikatzea.

Larrialdiko argi-sistemen zainketa-prozesua.

Alarma-sistemen zainketa-prozesua.

Egitekoak garatzeko ekimena.

Taldean jardutea eta integratzea.

Ordena eta metodoa jarduerak egitean.

Ezarrিতako epeakiko konpromisoa izatea.

Hondakinak birziklatu eta biltegitratzeko prozesuekiko konpromisoa.

7.– Lan arriskuen prebentzioa eta ebaluazioa.

Makinen instalazioetan arriskuak identifikatzea eta ebaluatzea.

Lanaren arabera erabili beharreko prebentzio-neurriak deskribatzea.

Konponketa egin aurretik tresneria deskonektatzea.

NBEak erabiltzea.

Lan-eremuan segurtasun-sinboloak eta -seinaleak interpretatzea.

Istripurik izanez gero egin beharreko jarduketa deskribatzea.

Hondakin eta produktu arriskutsuen manipulazioa:

Makinen instalazioetako arriskuen ebaluazioa.

Prebentzio-neurriak eta kontingentzien aurreko erantzuna.

Gaur egungo araudia.

Prekuzio-neurriak eragiketa- eta zainketa-lanetan:

– Instalazio elektrikoetan eta esparru itxietan egin beharreko lanak.

– Arriskuak lana altueran egiteagatik.

Norbera eta taldea babesteko neurriak:

– Norbera babesteko ekipamendua (NBE).

– Segurtasun-seinaleztapena.

Lan-eremuaren prestakuntza.

Higienea lanean.

– Zarata-mugak.

– Argiztapen- eta aireztapen-baldintzak.

– Lokalen/espazioen tenperatura eta hezetasuna.

– Ergonomia eragiketak egitean.

Hondakin eta produktu arriskutsuak manipulatzeko prozesua:

– Hondakinak gaika biltzeko eta desagerrarazteko sistema.

– Arauak.

Egitekoak garatzeko ekimena.

Taldean jardutea eta integratzea.

Ordena eta metodoa jarduerak egitean.

Ezarritako epeakiko konpromisoa izatea.

Hondakinak birziklatu eta biltegitratzeko prozesuekiko konpromisoa.

5. lanbide-modulua: Hozteko instalazioen eta girotzeko sistemen zainketa eta muntaketa antolatzea ontzi eta itsasontzietan

Kodea: 1312

Kurtsoa: 1

Iraupena: 198 ordu

ECTS kredituetarako baliokidetza: 9.

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Hozteko instalazioaren eta girotzeko sistemaren funtzionamendua ebaluatzen du eta, horretarako, prozesuan esku hartzen duten termodinamikaren funtsezko legeak interpretatzeaz gain, osagaien eginkizuna identifikatu ere egiten du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Entalpia- eta entropia-diagramak egin ditu, lan mekanikoaren kurbak eta instalazioaren beroa kalkulatu.

b) Sistemaren parametroak, konexioak eta ezaugarriak egiaztatzeko neurketak egin ditu, dokumentazio teknikoa eta instalazioaren premiak balioetsita.

c) Hotz-sistemaren funtzionamendu termodinamikoa ebaluatu du, motaren arabera (ponpa bidez edo konpresore bidez), P-V eta T-S diagramak erabilia.

d) Bero-ponpa bidezko girotze-sistema baten lau bideko balbularen operatibotasuna egiaztatu du.

e) Kondentsazio- eta lurrunketa-sistemen egoera egiaztatu du, horien funtzionamendu termodinamikoa interpretatuta P-V eta T-S diagramen bidez.

f) Lurrungailua hozgarriaz elikatze erabilitako espantsio-sistemak egiaztatu ditu, instalazioaren ezaugarriei, eraketari eta lan-diagramei erreparatuta.

g) Instalazioen aparatu osagarrien operatibotasuna egiaztatu du, ezarritako parametroen arabera.

h) Hozteko instalazioetan eta girotzeko sistemetan eragiten duten hozgarrien propietate orokorrak balioetsi ditu, horien ezaugarri fisikoei, kimikoei eta termodinamikoei erreparatuta.

i) Segurtasuneko eta ingurumeneko protokoloak aplikatu ditu gas fluordunekin jardutean.

2.– Hozteko instalazio batean edo girotzeko sistema batean martxan jartzeko, funtzionamenduko eta geldiarazteko prozedurak definitzen eta egiten ditu, lan-parametroak kontrolatuta eta laneko eta ingurumeneko segurtasun-arauak beteta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Ihes-proba, purgatze-proba, huts-proba eta hozgarria eta olio kargatzeko proba egin ditu, besteak beste, eta instalazioaren eskuzko balbulak eta balbula automatikoak doitzeko prozedurak zehaztu ditu.

b) Hotz-instalazioa abiarazteko sekuentzian esku hartzen duten elementu elektrikoak egiaztatu eta doitu ditu.

c) Instalazioa abiarazteko prozesuaren sekuentziazioa programatu du, kontroleko eta erregulazio elementuak doitu.

d) Instalazioaren funtzionamendu-parametroak kontrolatzeko sekuentzia definitu du.



e) Instalazioa martxan dagoen bitartean abiarazteko eta geldiarazteko presostatoak eta termos-tatoak definitu eta sekuentziatu ditu, zehaztaperen teknikoari erreparatuta.

3.– Hotzeko instalazioen, girotzeko sistemen eta instalazio berezien zainketa prebentiboa programatzen ditu, dokumentazio teknikoa interpretatuta eta jarraitu beharreko prozedurak definituta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Presio eta tenperatura txikiko eta handiko eremuetan kokatuta dauden aparatu eta elementuen zainketa prebentiboko prozesuen sekuentzia definitu du, ohikoen diren konfigurazioen arabera.

b) Prozesu bakoitzeko giza baliabideak eta baliabide materialak definitu ditu, araudiaren eta kalitate-planen arabera.

c) Hozteko eta izozteko kasu berezietarako lan-prozedura landu du.

d) Hozgarria eta olio biltzeko eta tratatzeko prozedurak definitu eta sekuentziatu ditu, segurtasunari eta ingurumen-protokoloei erreparatuta.

e) Informazioa transmititzeko prozedurak definitu ditu, hiztegi teknikoa erabilia.

f) Matxurak diagnostikatzeko eta balioesteko beharrezkoak diren formatuak landu ditu, informazioaren tratamenduari dagokionez.

4.– Hozteko instalazioetan eta girotzeko sistemetan matxuren eta disfuntzioen diagnostikoa egiten eta gainbegiratzen du, dokumentazio teknikoa aztertuta eta tresneriaren eta instalazioen funtzionaltasuna balioetsita.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Ontzi eta itsasontzietan maiz matxuratzen diren sistema edo instalazioen kasuak, egoerak eta osagaiak definitu ditu, erregistroetako informazioa tratatuta eta dokumentazio teknikoaren bitartez.

b) Hotzeko instalazioetan eta girotzeko sisteman matxura aurkitzeko eta diagnostikatzeko prozeduraren sekuentzia definitu du, lan-eremuaren eta zehaztaperen teknikoaren arabera.

c) Diagnostikatzeko teknikak eta erremintak ezarritako prozeduraren arabera aplikatu ditu.

d) Matxuraren garrantzia zehaztu du, jarduteko sekuentzia makinaren eta osagaiaren arabera definituta.

e) Informazioa biltzeko eredu normalizatuak landu ditu, matxura edo disfuntzio motaren arabera eta eremua, denbora eta ezaugarriak aintzat hartuta.

5.– Hozteko instalazioak konpontzeko prozesuak gauzatzen eta gainbegiratzen ditu, prozedura normalizatuak aplikatuta eta egindako esku-hartzeen kalitatea balioetsita.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Presio eta tenperatura txikiko eremuetan matxurak edo disfuntzioak konpontzeko jardunaren prozesuak definitu eta sekuentziatu ditu, zehaztaperen teknikoaren eta kalitate- eta segurtasun-irizpideen arabera.

b) Presio eta tenperatura handiko eremuetan matxurak edo disfuntzioak konpontzeko jardunaren prozesuak definitu eta sekuentziatu ditu, zehaztaperen teknikoaren eta kalitate- eta segurtasun-irizpideen arabera.

c) Kirol-ontzietan matxurak edo disfuntzioak konpontzeko jardunaren prozesuak definitu eta sekuentziatu ditu.

d) Konponketetan erabili beharreko erremintak eta tresnak zehaztu ditu, lanen kalitatearekin eta segurtasunarekin loturiko irizpideak aintzat hartuta eta lantaldeen jarduna zehaztuta.

e) Lan-banaketa egin du, lehentasuneko eta segurtasuneko irizpideei erreparatuta.

f) Konpontzeko teknikak eta prozedurak aplikatu ditu makinaren edo osagaiaren arabera.

g) Konpondutako makinak edo elementuak martxan jartzen direla eta horien funtzionaltasuna egiaztatu du, martxan jartzeko protokoloak aplikatuta.

h) Hondakinak, hozgarriak eta olioak biltzeko protokoloak bete ote diren egiaztatu du.

i) Matxuraren txosten teknikoa egin du eta, hala badagokio, matxura-liburua bete du.

6.– Propultsio-plantaren gainbegiratze- eta zainketa-lanetan, laneko eta ingurumeneko arrisku-  
kuen prebentzioari buruzko arauak ebaluatzen eta betetzen ditu, dagozkion arriskuak identifikatuta  
eta horiei aurrea hartzeko neurriak aplikatuta, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Egin beharreko lanari dagozkion laneko eta ingurumeneko arriskuak zehaztu ditu, bai eta horien arriskugarritasun-maila ere, aplikatu beharreko araudia baliatuta.

b) Ohikoen diren arrisku-egoeretan babesteko eta jarduteko plana diseinatu eta ezarri du, eta inplikaturako langileei plana betetzea zeinen garrantzitsua den ikusarazi die.

c) Segurtasun-elementuak (makinak eta norbera babesteko ekipamendua, besteak beste) bakoitzaren funtzionaltasunarekin lotu ditu, eta egin beharreko lanaren arabera zer neurri hartu behar den zehaztu du.

d) Lan-eremuan zainketa-lanak egin aurretik egin beharreko prestaketa-lanak egin eta gain-  
begiratu ditu, instalazioen eta tresneriaren ordena eta garbitasuna arriskuaren eta patologien  
prebentziorako faktoretzat hartuta.

e) Laneko higiene-arauak arauok ez betetzeak ekarritako ondorio fisikoekin eta psikikoekin lotu  
ditu.

f) Arrisku-faktore psikosozialen eragina kontuan hartu du eta egin beharreko prebentzioko  
esku-hartzeak zehaztu ditu, bai antolamenduaren arloan, bai arlo pertsonalean.

g) Hondakinak gaika biltzeko eta desagerrarazteko sistema ezarri eta errespetatu du, bai eta  
produktu arriskutsuak biltegitatzeko eta manipulatzeko prozedurak ere.

h) Istripu-arriskuak minimizatuko dituzten laneko ohiturak hartzea bultzatzen duten goi-mailako  
teknikariaren jarrerak balioetsi ditu.

B) Edukiak:

1.– Hotzeko eta girotzeko instalazioen hasierako diagnostikoa.

Entalpia- eta entropia-diagramak egitea.

Sistemaren parametroak, konexioak eta ezaugarriak egiaztatzekeo neurketak egitea.

Funtzionamendu-parametroak neurtzea.

Hotz-sistemaren funtzionamendu termodinamikoa ebaluatzea, P-V eta T-S diagramen bidez.

Kondentsazio- eta lurrunketa-sistemen egoera egiaztatzea.

Segurtasunari eta ingurumenari buruzko protokoloak aplikatzea.

Lan mekanikoaren eta beroaren kurben kalkulua:

Termodinamika hotz- eta bero-instalazioetan aplikatuta.

– Mollier-en grafikoa: P-V eta T-S diagramen bidezko kalkulua.

– Hozte-ziklo ideala.

Hozteko eta izozteko instalazioen funtzionamendu-parametroak neurtzeko prozesua:

– Konpresio mekanikoa.

– Aire girotua.

Funtzionamendua ebaluatzeko prozedurak:

– Konpresoreak.

– Lurrungailuak.

– Kondentsadoreak eta ur-dorreak.

– Espantsio-erreguladoreak.

– Hozteko ganberak.

– Balbulak.

Segurtasun-neurriak gas fluordunekin.

Egitekoak garatzeko ekimena.

Taldean jardutea eta integratzea.

Ordena eta metodoa jarduerak egitean.

Ezarritako epeakiko konpromisoa izatea.

Hondakinak birziklatu eta biltegitratzeko prozesuekiko konpromisoa.

2.– Martxan jartzeko, funtzionatzeko eta geldiarazteko prozedurak eta sekuentziak definitzea eta aplikatzea.

Ihes-proba, purgatze-proba, huts-proba eta hozgarria eta olio kargatzeko proba egitea.

Hotz-instalazioa abiarazteko sekuentzian esku hartzen duten elementu elektrikoak egiaztatzea eta doitzea.

Instalazioa abiarazteko prozesua programatzea.

Parametroak kontrolatzeko prozedurak zehaztea.

Hozteko instalazio bat edo girotzeko sistema bat martxan jartzeko, funtzionamenduko eta geldiarazteko prozesua deskribatzea.

Martxan dagoen bitartean, instalazioaren parametroak egiaztatzea.

Espantsio- eta lurrunketa-sistemak martxan jartzea, zaintzea eta geldiaraztea.

Konpresorearen eta kondentsadorearen hozteko sistemak martxan jartzea, zaintzea eta geldiaraztea.

Karter konpresorearen olioko berokuntza-sistemak martxan jartzea, zaintzea eta geldiaraztea.

Hozteko instalazioaren eguneroko parte egitea.

Hozteko instalazioaren zainketa-plana egitea.

Kontrol-probak:

- Ihesak.
- Hutseko purgak.
- Karga.
- Martxan jartzea.

Karter konpresorearen olioko berokuntza-sistemak martxan jartzeko, funtzionatzeko eta geldiarazteko prozesua:

- Sekuentzien definizioa.
- Olioaren tenperatura.

Karterraren lubrifikatze-sistemak martxan jartzeko, funtzionatzeko eta geldiarazteko prozesua:

- Sekuentzien definizioa.
- Lubrifikatze-ponparen presioa.
- Karterraren olio-maila.

Konpresorearen eta kondentsadorearen hozteko sistemak martxan jartzeko, funtzionatzeko eta geldiarazteko prozesua:

- Sekuentzien definizioa.
- Aire-haizagailuen eta ur-ponpen ikuskapena.

Espantsio- eta lurrunketa-sistemak martxan jartzeko, funtzionatzeko eta geldiarazteko prozesua:

- Sekuentzien definizioa.
- Espantsio-balbularen operatibotasun-parametroak.

Martxan dagoen bitartean, instalazioaren parametroak egiaztatzea.

- Olioaren eta hozgarriaren mailak.
- Hozgarriaren egoeraren bisoreak.

– Hezetasun-iragazkia.

– Antzigarra kentzeko sistema.

– Ihes-detektagailuak.

– Balbulak.

Iraupen luzeko geldialdia egiteko prozedurak.

Deskonexio-prozedurak.

Egitekoak garatzeko ekimena.

Taldean jardutea eta integratzea.

Ordena eta metodoa jarduerak egitean.

Ezarritako epeakiko konpromisoa izatea.

Hondakinak birziklatu eta biltegiratzeko prozesuekiko konpromisoa.

3.– Hotzeko instalazioen eta girotzeko sistemen zainketa prebentiboa programatzea.

Zainketa prebentiboa programatzea.

Zainketa prebentiboko materialak, erremintak eta tresneria hautatzea.

Kontrolak planifikatzea: egunerokoak eta guardiakoak.

Hozgarria eta olioia biltzeko eta tratatzeko prozedurak definitzea eta sekuentziatzea.

Zainketa-orria betetzea.

Zainketa-lanak egitea instalazioko elementuen funtzionamendu-orduen arabera.

Inbentarioa egitea errespetuzko piezak kontrolatzeko eta biltegiratzeko.

Itsasontzietan eta ontzi-tailerretan zainketa sekuentziatzeko teknikak. Laneko plangintza eta lan-orriak egitea.

Hotzeko instalazioen eta girotzeko sistemen zainketa-tresneria itsasontzian.

Hotzeko instalazioen eta girotzeko sistemen zainketa-tresneria ontzien zainketa-tailerretan.

Talde-lanerako prozedurak.

Zainketa prebentiboko materialak, erremintak eta tresneria.

Zainketa-prozesuak presio txikiko eta handiko guneetan:

– Presioen neurketa eta kontrola. Presostatoak.

– Tenperaturen neurketa eta kontrola. Termostatoak.

Hotz-sistemen zainketa-prozedurak:

– Konpresore bidezko hotz-sistema baten funtzionamendu-parametroak.

– Ponpaketa bidezko hotz-sistema baten funtzionamendu-parametroak.

– P-V eta T-S diagramen aplikazioa.

– Neurketak eta kontrolak.

Kondentsazio- eta lurrunketa-sistemen zainketa-prozedurak:

– Kondentsadoreen funtzionamendu termodinamikoa tipologiaren arabera: airea eta ura.

– Lurrungailuen funtzionamendu termodinamikoa motaren arabera: frigorigenoak, plaka eutek-tikoak eta gatzun-bainuak.

– P-V eta T-S diagramen aplikazioa.

– Neurketak eta kontrol-prozedurak.

Hotz-sistemen zainketa-prozedurak:

– Espantsio-sistemen funtzionamendu termodinamikoa.

– Espantsioa kontrolatzeko elementuen neurketak eta kontrolak.

Elementu osagarrien zainketa-prozedurak:

– Olio-bereizgailua.

– Hezetasuna kentzeko iragazkiak.

– Likido- eta gas-bisorea.

Hozgarriak eta olioak lan-eremuaren eta araudiaren arabera biltzeko prozedurak.

Informazioa biltzeko baliabideak:

– Erregistro-sistemak, araudiaren arabera.

– Erregistroko hiztegi teknikoa.

– Erregistro-baliabideak lantzea.

Egitekoak garatzeko ekimena.

Taldean jardutea eta integratzea.

Ordena eta metodoa jarduerak egitean.

Ezarritako epeakiko konpromisoa izatea.

Hondakinak birziklatu eta biltegitratzeko prozesuekiko konpromisoa.

4.– Hozteko instalazioetan eta girotzeko sistemetan matxurak eta disfuntzioak diagnostikatzea.

Dokumentazio teknikoa interpretatzea.

Ontzi eta itsasontzietako matxura ohikoenak deskribatzea.

Matxurak aurkitzeko eta diagnostikatzeko lan-sekuentzia deskribatzea.

Matxuraren garrantzia zehaztea.

Erregistro-baliabideak lantzea.

Matxurei buruzko informazioaren tratamendua:

- Erregistroen eta erregistro-orrien balioespena.
- Matxuraren kausen zehaztapena, makinaren eta osagaien arabera.

Diagnostikoak egiteko prozedurak:

- Diagnostikoa sekuentziatzeko teknikak, makinaren eta osagaiaren arabera.
- Neurketak eta kontrolak presio txikiko eremuetan.
- Neurketak eta kontrolak presio handiko eremuetan.
- Tolerantziaren kontrolak.
- Diagnostikatzeko erremintak eta sistemak.

Matxurak aurkitzeko prozedurak.

- Sekuentziatzeko teknikak.
- Osagaiak isolatzeko prozedurak eta protokoloak.
- Tolerantziaren kontrolak.
- Neurketako eta kontroleko erreminten eta tresneriaren hautaketa eta erabilera.
- Funtzionaltasun-probak.

Egitekoak garatzeko ekimena.

Taldean jardutea eta integratzea.

Ordena eta metodoa jarduerak egitean.

Ezarritako epeakiko konpromisoa izatea.

Hondakinak birziklatu eta biltegitratzeko prozesuekiko konpromisoa.

5.– Hozteko instalazioak konpontzeko prozesuak gauzatzea eta gainbegiratzea.

Matxurak konpontzeko jarduna definitzea eta sekuentziatzea.

Lanak banatzea, lehentasuneko eta segurtasuneko irizpideei erreparatuta.

Hozgarria eta olio kargatzea.

Kontrolak egitea: egunerokoak eta guardiak.

Matxurak konpontzea.

Sistemaren funtzionaltasuna gainbegiratzea.

Matxuraren txosten teknikoa egitea eta, hala badagokio, matxura-liburua betetzea.

Konpontzeko prozedurak sekuentziatzeko protokoloak. Lan-banaketa.

Laneko erreminten eta tresneriaren hautaketa.

Ontzietako konponketa- eta zainketa-lanetako tailerretako lanak antolatzea, hotz- eta girotze-eremuan.

Presio eta tenperatura txikiko eremuetan matxurak konpontzeko prozedurak:

– Eraginpeko tresneria.

– Neurketak eta kontrolak.

Presio eta tenperatura handiko eremuetan matxurak konpontzeko prozedurak:

– Eraginpeko tresneria.

– Neurketak eta kontrolak.

Funtzionaltasun-probak.

– Aldatutako piezen eta osagaien neurketak eta kalibrazioak.

– Funtzionamendu-parametroen doikuntza eta erregulazioa.

Hondakinen, hozgarrien eta olioien tratamendua kontrolatzeko baliabideak.

Matxurei buruzko informazioaren kontrola eta lanketa.

Egitekoak garatzeko ekimena.

Taldean jardutea eta integratzea.

Ordena eta metodoa jarduerak egitean.

Ezarritako epeakiko konpromisoa izatea.

Hondakinak birziklatu eta biltegitratzeko prozesuekiko konpromisoa.

6.– Lan arriskuen prebentzioa eta ebaluazioa.

Makinen instalazioetan arriskuak identifikatzea eta ebaluatzea.

Lan-eremuan segurtasun-sinboloak eta -seinaleak interpretatzea.

Arrisku-egoeretan babesteko eta jarduteko planak diseinatzea eta ezartzea.

Hozgarriak eta olioak maneiatzeko, biltegitratzeko eta kargatzeko garaian hartu beharreko neurriak deskribatzea.

Lan bat egiteko garaian segurtasun-orriak betetzea.

NBEak erabiltzea.

Hondakinak biltzea eta biltegitratzea.

Istripurik egonez gero gauzatu beharreko jarduketa deskribatzea.

Makinen instalazioetako arriskuen ebaluazioa.

Prebentzio-neurriak eta kontingentzien aurreko erantzuna.

Gaur egungo araudia.

Prekauzio-neurriak eragiketa- eta zainketa-lanetan:



– Makina-gelan eta esparru itxietan egin beharreko lanak.

– Arriskuak lana altueran egiteagatik.

Norbera eta taldea babesteko neurriak:

– Norbera babesteko ekipamendua (NBE).

– Segurtasun-seinaleztapena.

– Lan-eremuaren prestakuntza.

Higienea lanean.

– Zarata-mugak.

– Argiztapen- eta aireztapen-baldintzak.

– Lokalen/espazioen temperatura eta hezetasuna.

– Ergonomia eragiketak egitean.

Hondakin eta produktu arriskutsuen manipulazioa:

– Hondakinak gaika biltzeko eta desagerrarazteko sistema.

– Arauak.

Egitekoak garatzeko ekimena.

Taldean jardutea eta integratzea.

Ordena eta metodoa jarduerak egitean.

Ezarritako epeakiko konpromisoa izatea.

Hondakinak birziklatu eta biltegitatzeko prozesuekiko konpromisoa.

6. lanbide-modulua: ontzi eta itsasontzien makineria-zainketa planifikatzea

Kodea: 1313

Kurtsoa: 2

Iraupena: 60 ordu

ECTS kredituetarako baliokidetzatza: 4.

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Ontzi edo itsasontziko makineriaren zainketa-plana ezartzeko lan-prozedurak definitzen ditu, ezaugarri teknikoak aztertuta eta jardun-protokoloak definituta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Ontzi edo itsasontziko makinen edo instalazioen hasierako egoeraren kontrol-partea egin du, itsasontzi edo ontzi motaren arabera.

b) Makina edo osagai bakoitzaren kontrol-parametroak eta kausa ohikoenak zehaztu ditu, matxuren historien azterketan oinarrituta.

c) Makina edo osagai bakoitzaren lan-fitxa espezifikokoak egin ditu, zainketa prebentiboen, prediktiboen eta zuzentzaileen sekuentzia adierazita, bai eta ezartzeko beharrezkoak diren baliabideak ere.

d) «Denontzako diseinu»aren printzipioak balioetsi ditu zainketa-tresnak eta -erremintak definitzeko garaian.

e) Matxurak diagnostikatzeko eta lokalizatzeko jarraibideak landu ditu, makina edo osagai bakoitzaren kasuan beharrezkoak diren protokoloak eta baliabideak definituta.

f) Makinak eta osagaiak konpontzeko eskuliburuak egin ditu, erabili beharreko prozedurak eta baliabideak definituta eta esku-hartzeetan lehentasun-irizpideak balioetsita ezarritako larrialdi-mailen arabera.

g) Laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentzio-neurriak definitu ditu, bai eta kalitate-plana aplikatzeko neurriak ere, indarreko legeriaren arabera.

h) Zainketako informazio teknikoa erregistratzeko sistema eta ereduak landu ditu.

2.– Itsasontziko makineria ustiatzeko eta zaintzeko beharrezkoak diren kontsumoen, ordeko piezen, erreminten eta materialen premiak ezartzen ditu, egonkortasun-baldintzak aztertuta eta kargatzeko, estibatze eta karga berdintzeko prozedurak definituta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Beharrezkoak diren kontsumoen eta horniduren kalkuluak egin ditu, programatutako zainketak eta bidaiaren ezaugarri eta baldintzak aintzat hartuta.

b) Erregai, olio eta ordeko piezen izakinen kontrol-zerrenda osatu du tankeen zundaketa-kontrola eginda eta hidrokarburoen liburuko erregistro-datuetatik ateratako taula eta kurba hidrostatiakoak aztertuta.

c) Makina-gelaren egonkortasun-txostena egin du itsasontziaren plano eta zehaztapenetan oinarrituta eta altuera metazentrikoa, kalatua eta eskora kalkulatuta.

d) Kontsumoak eta hornidurak kargatzeko, estibatze eta karga berdintzeko protokoloak zehaztu ditu, substantzia arriskutsuen zainketa-arauak aplikatuta.

e) Bidaia osoko kontsumoen eta ontzi-aldaketen sekuentzia programatu du, itsas bidaian maki-neriaren funtzionaltasuna eta definitutako egonkortasun-baldintzak bermatzeko moduan.

f) Olio eta erregaien laginak hartzeko eta analisirako protokoloak definitu ditu, horiek berritzeko prozedurak propietate kimikoen arabera definituta.

3.– Itsasontzia ur gainean eta lehorrean ikuskatzeko eta sailkatzeko zainketa-lanak eta azterketak antolatu eta gainbegiratzeko prozedurak definitzen ditu, prozedurak eta giza baliabideak definituta eta indarreko araudia aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Instalazioan ikuskatzeko eta kontrolatzeko prozedurak definitu ditu, nabigazio-planean eta Itsasontziak Sailkatzeko eta Ikuskatzeko Sistemetako arauetan oinarrituta eta eskatutako dokumentazioa beteta.

b) Hondartzealdietako kontrol- eta zainketa-prozedurak zehaztu ditu, itsasoko urarekin lan egingen duen tresneriaren eta kroskoaren egoera eta portaera balioetsita.

c) Hondartze-kasuko lanen tenporalizazioa prestatu du indarreko legediari eta nabigazio-planari jarraikiz.

d) Itsasontziaren hondartze bakoitzerako lan-plana prestatu du, zainketa-protokoloak ontziaren ur gaineko edo lehorreko egoeraren eta zainketa-planaren arabera.

e) Kanpoko giza baliabideen erabilera zehaztu du, finkatutako lan- eta lege-arloko baldintza eta arauen arabera.

f) Hondartzealdian gainbegiratzeko prozedurak zehaztu ditu, itsasoko urarekin funtzionatzen duen tresneriaren funtzionaltasuna eta kroskoaren egoera ikusteko probak zehaztuta.

4.– Zainketa-tailerraren espazioa antolatzeko eta gainbegiratzeko sistema definitzen du, ustiapena bermatzeko beharrezkoak diren baliabideak zehaztuta eta indarreko araudia aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Laneko guneak zehaztu ditu zainketa-planean eta ustiapen-baldintzetan oinarrituta.

b) Gune bakoitzeko hornidura zehaztu du, merkatu-baldintzei eta funtzionaltasunaren, ekonomia- eta ergonomiaren irizpideei jarraikiz.

c) Plano batean itsasontziaren edo tailerraren guneen banaketa irudikatu du, dagokion sinbologia erabilia.

d) Hondakinak tratatzeko eta biltzeko arauak eta prozedurak definitu ditu, baliabide egokiak indarreko araudiaren arabera zehaztuta.

e) Laneko guneen kontrol- eta zainketa-prozedurak zehaztu ditu, indarreko araudiari jarraikiz.

f) Makinak, tresneria eta ontziak hartzeko, txandatzeko eta entregatzeko prozedurak zehaztu ditu.

g) Bezeroei arreta emateko arauak eta prozedurak zehaztu ditu, indarreko legedia aplikatuta.

h) Erregistroari eta zerbitzuaren kalitateari buruzko informazioa biltzeko eta tratatzeko baliabideak zehaztu ditu.

5.– Ordezko piezak, materialak eta zainketa-lanetako tresneria hornitzeko eta biltegiratzeko sistemaren funtzionamenduaren antolamendua zehazten eta gainbegiratzen du, kontsumoak kontrolatuta eta dokumentazioa kudeatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Ordezko piezak, materialak eta tresneria hornitzeko eta ateratzeko sistema definitutako kontsumoaren arabera definitu du, eta berritze-premiak balioetsi ditu.

b) Ordezko piezen eta zainketa-lanetako materialen stock optimoak eta segurtasunekoak kalkulatu ditu, eskaintzaren baldintzak, itsas legedia eta zereginen sekuentziarioa aztertuta.

c) Materialak kokatzeko eta kodetzeko metodoa zehaztu du, laneko arriskuen prebentzioko araudia aplikatuta eta erabilgarritasuna, kokalekua zehazteko erraztasuna eta espazioaren aprobetxamendua balioetsita, eta itsasontzien kasuan, zehaztutako egonkortasun-irizpideak ere bai.

d) Stockak kontrolatzeko prozedura zehaztu du, hornitzaileen baldintzak eta zainketa-plana balioetsita.

e) Stockak eta aldizkako inbentarioa kudeatzeko dokumentazioa prestatu du, indarreko araudiaren eta ezarritako ereduaren arabera.

f) Biltegiko kokapena eta banaketa aurreikusitako ordenaren eta kontserbazioaren metodoekin bat datozela egiaztatu du, biltegiaritutako elementuen erabilgarritasuna balioetsita.

6.– Ordezko piezen, kontsumoen eta materialen aurrekontuak egiten ditu, kalitatearen eta kostuaren arteko erlazioak aztertuta eta bezeroekin negoziatzeko teknikak aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Partidak banakatu ditu, kostuan taldeen eta xehetasun berezien arabera identifikatuta.

b) Materialen eta erreminten aurrekontua egin du, baliabideen erabilgarritasuna balioetsita.

c) Ontziak konpontzeko aurrekontua egin du, denbora eta aleko kostuak aintzat hartuta.

d) Konponketaren gauzatze-kostuak kalkulatu ditu, lan-planaren eta banakapenen arabera.

e) Hornitzaileekin eta bezeroekin negoziazio-teknikak erabili ditu, errespetua eta profesionaltasuna adierazita eta sortutako konfiantza balioetsita.

f) Eskaintzetan kalitate-prezio erlazioa aztertu du, itsas bidaiaren edo tailerreko premiekin bat ote datorren justifikatuta.

7.– Ontzi eta itsasontzietako lantaldeei zuzendutako prestakuntza-ekintzak prestatzen ditu, ekintza horien garapena eta emaitzak ebaluatzen ditu, eta jarduerak programatzeko eta taldeak behatzeko nahiz talde-dinamikako teknikak aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Lantaldearen prestakuntza-programa prestatu du, eta helburuak, ekintzen sekuentzia eta ebaluazio-irizpideak indarreko legediaren eta zerbitzuaren premien arabera definitu ditu.

b) Prestakuntza-ekintzak programatu ditu, eta helburuak, baliabideak, tenporalizazioa, dinamizatzeko estrategiak eta ebaluatzeko metodoak zehaztu ditu.

c) Prestakuntza-ekintzaren baliabideak prestatu ditu eta definitutako programazioaren arabera egokitu ditu, euskarri egokiak hautatuta eta baliabideak zehaztasunez baliatuta.

d) Zehaztutako metodoetan oinarrituta, ebaluazio-tresnak prestatu ditu, egin beharreko lorpenak eta atzeraelikadurako estrategiak zehaztuta.

e) Zehaztutako dinamizazio-estategiak aplikatu ditu, egokiak ote diren balioetsi du eta prestakuntza-ekintzaren garapenean zuzenketak egin ditu, egindako behaketetan oinarrituta.

f) Zehaztutako programaren eta ekintzen ebaluazio-txostena prestatu du, aplikatutako tresnen bitartez lortutako informazioan oinarrituta, egindako lorpenak adierazita eta hobetzeko proposamenak eginda.

B) Edukiak:

1.– Ontzi eta itsasontzietan zainketa prozedurak ezartzea.

Hasierako kontrol-partiak prestatzea.

Matxura ohikoenak eta kontrol-parametroak zehaztea, historiak aztertuta.

Makina bakoitzaren zainketa zuzentzaileei buruzko informazio teknikoa lantzea.

Makinak eta osagaiak konpontzeko eskuliburuak lantzea.

Zainketako informazio teknikoa erregistratzeko sistema eta ereduak lantzea.

Hasierako kontrol-partiak prestatzeko metodoak:

- Itsasontziaren zainketa osoaren kontzeptua.
- Zainketa Produktibo Osoa (ZPM), itsasontzietan aplikatuta.
- Itsasontzien ereduak eta instalazioak.
- Itsasontzietako zainketa-indizeak.
- Kontrol-partiak: legezko eskakizunak eta ereduak.

Historietako datuen tratamendua eta matxura-partiak:

- Matxuraren kausaren zehaztapena, makinaren eta osagaien arabera.
- Kausalitate- eta fidagarritasun-kontzeptuak.

Programatutako zainketa:

- Programatutako zainketa-planaren osagaiak.
- Zainketa-motak eta oinarritzko prozedurak.
- Zainketa-jarraibideak eta -fitxak. Araudia.
- Lan-kargen esleipena.

Matxurak diagnostikatzeko eta aurkitzeko prozedurak:

- Matxurak diagnostikatzeko eta aurkitzeko teknikak.
- Diagnostikatzeko baliabideak. Prest jartzea eta kalibrazioa.
- Zainketa prediktibo telekudeatua.

Zainketa zuzentzaileei buruzko informazio teknikoa prestatzeko metodoak:

- Zainketa zuzentzaileen kontzeptua.
- Konponketen sailkapena.
- Muntatzeko eta desmuntatzeko teknikak.
- Osagaiak konpontzeari edo aldatzeari buruzko erabakiak hartzeko prozesua.

Legedia eta oinarritzko arauak:

- Ingurumen-kudeaketa itsasontzietan eta zainketa-tailerretan.
- Kalitate-planak. Kalitatea kontrolatzeko teknikak eta baliabideak.

Zainketa-informazioaren tratamendua eta erregistroa:

- Nazioarteko hitzarmenetan ezarritako arauak.

– Informazioa biltzeko baliabideak: erregistroak, txostenak eta lan-partearak.

– Artxibatzeke eta ustiatzeko sistemak.

Egitekoak garatzeko ekimena.

Taldean jardutea eta integratzea.

Ordena eta metodoa jarduerak egitean.

Ezarritako epeakiko konpromisoa izatea.

Hondakinak birziklatu eta biltegitratzeko prozesuekiko konpromisoa.

2.– Itsas bidaiarako kontsumoak eta ordezeko piezak zehaztea.

Kontsumoak eta hornidurak kalkulatzeko.

Erregai, olio eta ordezeko piezen izakinen kontrol-zerrenda prestatzea.

Makina-gelaren egonkortasun-txostena prestatzea.

Kontsumoak eta hornidurak kargatzeko, estibatzeke eta karga berdintzeko protokoloak zehaztea.

Olio eta erregaien laginak hartzeko eta analisirako protokoloak zehaztea.

Kontsumoak eta hornidurak kalkulatzeko metodoak. Nabigazio-plana.

Kontrol-zerrendak. Izakinen kalkulua:

– Tankeen zundaketa.

– Taula eta kurba hidrostatiakoak.

– Hidrokarburoliburuaren maneia eta interpretazioa.

– Mailen irakurketa.

Egonkortasun-txostena:

– Eraikuntza-elementuak, itsasontzi-motaren eta planoen arabera.

– Itsasontziaren egonkortasun-baldintzak eta -printzipioak. Karenak. Parea edo beso zuzentzailea. Egonkortasun-kurbak eta -taulak.

– Egonkortasun-kalkuluak.

– Flotagarritasunaren erreserba.

Kontsumoen eta ordezeko piezen banaketa, egonkortasun-baldintzen arabera.

Kontsumoak eta ordezeko piezak kargatzeko eta karga berdintzeko prozedurak.

Erregaien eta produktu kutsatzaileen zainketa-protokoloak. Araudia.

Itsas bidaietan erregaiak ontziz noiz aldatu erabakitzeke prozedurak:

– Erregaiak garraiatzeke instalazioak. Fluidoak igartzeko eta ponpatzeke sistemak.

– Likido eta fluidoentz portaera egonkortasun-baldintza aldakorretan.

– Fluidoaren noranzkoa eta eskoran duen eragina.

Erregaien eta olioaren analisia:

– Laginak hartzeko prozedurak.

– Erregaien eta olioaren analisia. Biskositatea, azidotasuna eta ezpurutasunak.

– Berritzeko protokoloak.

Egitekoak garatzeko ekimena.

Taldean jardutea eta integratzea.

Ordena eta metodoa jarduerak egitean.

Ezarritako epeetako konpromisoa izatea.

Hondakinak birziklatu eta biltegitratzeko prozesuekiko konpromisoa.

3.– Hondartzealdiko konponketak eta ikuskapenak antolatzeko eta gainbegiratzeko prozedurak definitzea.

Instalazioak kontrolatzeko eta ikuskatzeko prozedurak definitzea:

– Itsasontziak ikuskatzeko eta Sailkatzeko Sistemetak arauak interpretatzea.

– Eskatutako dokumentazioa betetzea.

Hondartze-kasuko lanen tenporalizazioa prestatzea, indarreko legediari eta nabigazio-planari jarraikiz.

Hondartzealdiko zainketa-lanak definitzea.

Hondartze-kasurako lan-plana egitea.

Kanpoko giza baliabideak definitzea.

Instalazioak kontrolatzeko eta ikuskatzeko prozedurak:

– Itsasontziak ikuskatzeko eta Sailkatzeko Sozietateen arauak.

– Ikuskatu beharreko lanak eta instalazioak.

– Ikuskapeneko eta hondartzealdiko dokumentazio teknikoak.

Hondartzealdiko zainketa-lanak:

– Ekintza galbanikoa prebenitzeko metodoak. Ekintza galbanikoaren aurkako produktuak.

– Ekintza korrosiboa prebenitzeko metodoak. Korrosioaren kontrako produktuak.

– Kroskoa konpontzeko teknikak eta prozedurak.

Hondartze-kasuko lanak tenporalizatzeko eta sekuentziatzeko prozedurak:

– Hondartzealdiko sekuentzia.

– Instalazioen egoera kontrolatzeko probak.

Hondartzealdiko lan-plana:

– Lanak hautatzeko jarraibideak: makineriaren operatibotasuna.

– Laneko prozedurak eta jarraibideak.

Kanpoko giza baliabideak:

– Lantaldeak eta lanbide-kategoriak.

– Kontratuak eta lan-baldintzak. Araudia eta hitzarmenak.

Hondartze-kasuko zainketa gainbegiratzeko teknikak:

– Lehorreko eta ur gaineko lan-prozeduren kontrola.

– Kroskoaren funtzionaltasun-probak.

Egitekoak garatzeko ekimena.

Taldean jardutea eta integratzea.

Ordena eta metodoa jarduerak egitean.

Ezarritako epeakiko konpromisoa izatea.

Hondakinak birziklatu eta biltegiratzeko prozesuekiko konpromisoa.

4.– Zainketa-tailerraren antolamendua eta kontrola.

Laneko guneak zehaztea zainketa-planean oinarrituta.

Gune bakoitzerako beharrezkoa den hornidura zehaztea.

Ontziak zaintzeko eta konpontzeko tailerretan guneak zehaztea.

Banaketa-planoak egitea.

Hondakinak biltzeko eta tratatzeko sistemak deskribatzea.

Bezeroei arreta emateko prozedurak eta arauak aplikatzea.

Itsasontzian zainketaguneak banatzeko jarraibideak:

– Makina-gela antolatzea.

– Guneak erabiltzeko arauak, itsasontzi motaren arabera.

– Bizkarreko erabilerarako prebentzio-neurriak.

Ontziak zaintzeko eta konpontzeko tailerretako guneak:

– Segurtasunari buruzko araudia laneko guneetan.

– Antolamendu-ereduak. Zainketa zentralizatuak eta banatuak.

– Itsasoko probak egiteko guneen definizioa eta araudia.

Ekipamenduaren zehaztapena:

– Makineria-tipoa.

– Ekipamenduak: jasotzeko tresneria, garraioa, segurtasuna eta bulegoa.



Banaketa-planoak. Sinbologia.

Hondakinak biltzeko eta tratatzeko sistemak:

- Hondakinak kudeatzeri buruzko araudia.
- Biltzeko sistemak eta baliabideak.

Laneko guneen kontrola eta zainketa.

Bezeroari arreta emateko sistemak:

- Ibilgailuen zainketa-tailerretan arreta emateko metodologiak eta ereduak.
- Bezeroarenganako arreta-plana.
- Aplikatu beharreko legedia.

Informazioa biltzeko eta tratatzeko metodoak. Datuak babesteko legea.

Egitekoak garatzeko ekimena.

Taldean jardutea eta integratzea.

Ordena eta metodoa jarduerak egitean.

Ezarritako epeakiko konpromisoa izatea.

Hondakinak birziklatu eta biltegitratzeko prozesuekiko konpromisoa.

5.– Biltegia kudeatzea.

Ordezko piezak hornitzeko eta ateratzeko sistema definitzea.

Stock optimoa eta segurtasuneko kalkulatzea.

Materialak kokatzeko eta kodetzeko metodoa zehaztea.

Stockak kontrolatzeko prozedura zehaztea.

Stockak kudeatzeko dokumentazioa prestatzea eta aldizkako inbentarioa egitea. Indarreko arauen eta ezarritako ereduaren arabera.

Biltegitratzea egokia dela egiaztatzea.

Ordezko piezak eta zainketa-materialak:

- Nahitaezko ordezkoi piezei buruzko araudia.
- Kalitateen eta merkatuko eskaintzen balioespena.

Hornikuntza-sistemak:

- Sarreren eta irteeren kudeaketa. Dokumentazioa.
- Hornikuntza-ereduak, merkatuko kontratuen arabera.
- Hornitzaileekiko negoziazioa.

Stocken kudeaketa:

– Stock optimoak eta segurtasunekoak.

– Kontrola eta inbentarioa.

Ordezko piezak, materialak eta tresneria sailkatzeko sistemak:

– Nibelazioa, zainketa-planaren arabera.

– Kodetze-metodoak.

– FIFO, LIFO.

Biltegiatze-espazioen antolamendua.

– Antolamendu-ereduak.

– Metatzeko baliabideak eta bitartekoak. Kalitateak eta merkatuko baldintzak.

– Ergonomia eta irismena biltegioko banaketan.

Substantzia arriskutsuei eta sukoiei buruzko araudiaren aplikazioa biltegiatzean.

Ordezko piezak, materialak eta tresneria kontserbatzeko prozedurak:

– Kontserbazio-arauak, motaren arabera.

– Kontserbazioko materialak.

– Korrosioa eta higadura saihesteko neurriak.

– Suaren, kolpeen eta hausturen aurkako prebentzioa.

Egitekoak garatzeko ekimena.

Taldean jardutea eta integratzea.

Ordena eta metodoa jarduerak egitean.

Ezarritako epeakiko konpromisoa izatea.

Hondakinak birziklatu eta biltegiatze prozesuekiko konpromisoa.

6.– Aurrekontuak egitea.

Partidak banakatzea: kostuak taldearen arabera, eta xehetasunak.

Konponketen aurrekontuak egitea.

Hornitzaileekin eta bezeroekin negoziatzea.

Eskaintzen kalitate-prezio erlazioa aztertzea.

Konponketak eta zainketak banakatzea.

Materialen zerrendak egiteko metodoak:

– Ordezko piezak.

– Materialak.

– Tresneria eta erremintak.

Materialen ezaugarriak lantzea.

Zerrendak egitea tresneriaren eta tekniken arabera:

- Ontzi edo itsasontziaren sistemak eta instalazioak.
- Matxurak.
- Zainketa.

Sailkapen-taulak: kalitatea, erresilientzia, konpontzeko edo aldatzeko erraztasuna.

Kontratuak eta fakturazioa:

- Eskulanaren kostuak.
- Gainkostuen kalkulua.

Tailerreko zainketa-kostuaren ebaluazioa.

Bezeroekin negoziatzeko teknikak.

Legedi fiskala. Portu-agintarien legedia.

Biltegiratze-kostuak.

Egitekoak garatzeko ekimena.

Taldean jardutea eta integratzea.

Ordena eta metodoa jarduerak egitean.

Ezarritako epeakiko konpromisoa izatea.

Hondakinak birziklatu eta biltegiratzeko prozesuekiko konpromisoa.

7.– Prestakuntza ekintzak egitea lan taldean.

Lantalderako prestakuntza-programa lantzea.

Material didaktikoak prestatzea.

Prestakuntza-ekintzak programatzea, helburuak, baliabideak eta tenporalizazioa zehaztuta.

Prestakuntza-ekintzaren baliabideak lantzea eta egokitzea.

Prestakuntza-jarduerak ebaluatzea.

Ebaluazio-txostena prestatzea.

Legedia eta prestakuntzako esku-hartze eremuak itsas eta arrantzaren sektorean:

- Birziklatze profesionalerako prestakuntza.
- Lan- eta ingurumen-arriskuen prebentzioko prestakuntza.
- Larrialdi-egoeretan jarduteko prestakuntza.

Prestakuntzako eta informazioko ekintzen programazio didaktikoa:

- Ikaskuntza-prozesua helduekin.

- Metodo didaktikoak eta programaziokoak.
- Helburuen eta ebaluazio-irizpideen definizioa.
- Edukien definizioa eta sekuentziarioa: unitate didaktikoak egitea.

Prestakuntzako eta informazioko jardueren garapena:

- Lan-ingurunean prestakuntza-jarduerak hautatzeko irizpideak.
- Jardueren zuzendaritza.

Material didaktikoak:

- Materialak hautatzea.
- Prestakuntzako materiala prestatzea, hainbat baliabide eta euskarri erabilita (inprimatuta, ikus-entzunezkoak, baliabide informatikoak, besteak beste).

- Jabetza intelektualari buruzko arauak.

Ebaluazio didaktikoa:

- Ebaluazio-metodoak.
- Adierazleak hautatzea.
- Ebaluazioaren plangintza: estrategiak eta sekuentzia.
- Ebaluazio-teknikak eta -tresnak. Diseinatzeko eta lantzeko jarraibideak.
- Probak.
- Autoebaluaziorako tresnak.
- Ebaluazio-tresnen banako eta taldeko aplikazioa.
- Ebaluazioari buruzko informazioaren tratamendua.

Egitekoak garatzeko ekimena.

Taldean jardutea eta integratzea.

Ordena eta metodoa jarduerak egitean.

Ezarritako epeakiko konpromisoa izatea.

Hondakinak birziklatu eta biltegitratzeko prozesuekiko konpromisoa.

7. lanbide-modulua: Makinen guardia antolatzea

Kodea: 1314

Kurtsoa: 2

Iraupena: 60 ordu

ECTS kredituetarako baliokidetzatza: 4.

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Makinen guardietan bete beharreko jardun-protokoloak definitzen ditu, jasotako informazioa eta guardiei buruzko araudia balioetsita.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Zubitik jasotako informazioa eta ezarritako zainketa-planak balioetsi ditu.
- b) Tripulazioak guardian bete beharreko eginkizunak araudian xedatutakoaren arabera zehaztu ditu, eta guardiak eraginkortasunaren eta segurtasunaren irizpideei jarraikiz eta nazioarteko araudia betez antolatu ditu.
- c) Makinaburuaren agindu iraunkorrak prestatu ditu, eta egoera kritikoen aurrean guardian jarduteko protokoloak definitu ditu.
- d) Guardian gauzatu beharreko tankeen eta kontsumoen kontrol-protokoloa definitu du, itsasontziaren egonkortasunean, asentuan eta eskoran duten eragina aintzat hartuta.
- e) Guardian bete beharreko komunikazio-protokoloak zehaztu ditu, zehatzak eta argiak izatea balioetsita eta makina-gelako berezko terminologia erabilita.
- f) Informazio idatzia (erregistro ofizialak eta dokumentazio teknikoa) tratatzeko protokoloak – guardian bete behar direnak– definitu ditu.
- g) Itsasontzirako eta itsas bidaiarako beharrezkoa den segurtasun-materiala egiaztatzeke protokoloak definitu ditu.
- h) Guardian gertatutako kontingentzien eta larrialdien aurrean jarduteko protokoloak definitu ditu, indarreko legediari eta itsas bidaiaren planari jarraikiz.

2.– Makinetako marinelen jarduerak egiten ditu, ezarritako jagoletza- eta komunikazio-prozedurei jarraikiz eta baliabide errealak edo simulatuak baliatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Makinetako marinela guardia dagokion arduradunaren aginduetara egiteko gaitasuna duela onartu du, araudiari jarraikiz.
- b) Gorabeherak komunikatzeko protokoloak bete ditu, hiztegi espezifikoa egoki erabilita eta eskatutako hizkuntzan.
- c) Zainketaren jagoletza-protokoloak bete ditu, ezarritako protokoloen eta jasotako aginduen arabera.
- d) Galdaren funtzionamendua segurua dela kontrolatu du, ezarritako protokoloei jarraikiz.
- e) Propultsio-plantaren eta tresneria osagarriaren funtzionamendua segurua eta eraginkorra dela kontrolatzeko eta egiaztatzeke protokoloak aplikatu ditu.
- f) Guardian, hondakin-urak husteko jardun-protokoloak bete ditu, kutsadurari buruzko nazioarteko arauak beteta.
- g) Larrialdi-kasuan, ezarritako planen arabera eta guardiako arduradunak emandako jarraibideei jarraikiz jokatu du.
- h) Guardia-txanda ezarritako protokoloei jarraikiz egin du.

3.– Makinen guardian ofizialaren jarduerak egiten ditu STCW/STCW-f hitzarmenari jarraikiz, makinetako tresneriaren eta instalazioen zainketako eta funtzionamenduko baldintzak gainbegiratu eta errutinazko baldintzetan ezarritako protokoloak beteta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Makinetako guardia-ofizialaren gaitasuna onartu du, araudiari jarraikiz.
- b) Olioien eta erregaien ontzi-aldaketak definitu ditu, hautemandako desbideratzeak ezarritako egonkortasun-baldintzen arabera zuzenduta.
- c) Zainketa-lan prebentiboak egokiak eta kalitatezkoak direla gainbegiratu du, zainketa-plana-  
ren eta guardiako programazioaren arabera.
- d) Agintea eskuzko modura aldatzeko eragiketak egin ditu, itsasontziaren propulsioko eta  
gubernuko tresneria automatikoan larrialdia edo matxura izaten denerako protokoloei jarraikiz eta  
jasotako aginduen arabera.
- e) Alarma-sistemen, galdararen eta zamalanetarako makineriaren funtzionamendua gainbegi-  
ratu du, eta egin beharreko doikuntzak egin ditu.
- f) Guardiako jardueretan lider izan da, gatazkak konponduta eta lankidetzaz sustatuta.
- g) Martxaren erregimena eragotz dezaketen gertakariei buruz (propulsaizailea geratzea, planta  
itzaltzea, besteak beste) zer informazio helarazi behar den erabaki du, bai eta ezarritako segur-  
tasun- eta ingurumen-baldintzak ere, eta erabili beharreko hiztegia balioetsi du.
- h) Ezarritako erregistroak (makinetako egunerokoa edo besterik) bete ditu, eta erregistratutako  
informazioaren fidagarritasuna eta kalitatea egiaztatu ditu.

4.– Guardian eta egoera txarrean (ur mugatuak, eguraldi txarra eta sakonera txikiko urak, bes-  
teak beste) gertatu diren eta makinetako instalazioetan eragina duten kontingentziak konpontzen  
ditu; horretarako, lortutako informazioa aztertzen du eta zerbitzuen operatibotasunari eta segur-  
tasun-baldintzei eusteko beharrezkoak diren esku-hartzeak egiten ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Propulsiio-plantaren funtzionamendu optimoaren maila eta erregai-kontsumoaren maila opti-  
moa hautatu ditu guardian, egoera txarrean.
- b) Propulsiio-plantaren eta makineria osagarriaren funtzionamendu-tarteak aldatu ditu larrial-  
diko maniobrak egin bitartean, ur mugatuetan nabigatzen.
- c) Kontsumo-anomaliak zuzendu ditu, behatutako kausen arabera.
- d) Alarmen bidez makina-ganberetan hautemandako anomaliak (tresneriaren lubrikazio-olioak  
presio txikia izatea, kojinete batek tenperatura handia izatea, hozteko urak tenperatura handia  
izatea, besteak beste) konpondu ditu, eta ezarritako protokoloaren arabera jokatu du.
- e) Makina-ganberetan alarmen bidez hauteman ez diren anomaliak (zirkuituetan ihesak izatea,  
mailak edo tenperaturak aldatzea, besteak beste) konpondu ditu, eta ezarritako protokoloaren  
arabera jokatu du.
- f) Sute- eta kutsadura-arriskuak ezabatu ditu, nazioarteko arauak eta protokoloak beteta, erre-  
gaien edo olioien isuririk sor ez dadin.
- g) Egoera txarrean nabigatzen den bitartean izandako matxuren kasuan, protokoloak aplikatu  
ditu.

5.– Makina-guardian larrialdiko eragiketak egiten eta ebaluatzen ditu, lider izanik eta ezarritako protokoloen arabera jokatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Makina-gelan sute-alarmak jo ostean jardun du, larritasun-maila balioetsita eta ezarritako protokoloak eta koadro teknikoa betearazita.

b) Itsasontzia uzteko protokoloa bete du, zubitik jasotako aginduei jarraikiz.

c) Makina-gelan sortutako ur-bide baten aurrean nola jokatu behar den erabaki du, eta hartutako erabakia balioetsi du.

d) Hondartze-kasuan jarduteko protokoloa bete du.

e) Makinaren larrialdiko geldialdia egin du, itsasoaren egoera eta ezarritako protokoloak balioetsita.

f) Trafiko handia eta talka-arriskua dagoen tokian nabigatzeko jardun-protokoloak bete ditu.

g) Ur mugatuetan eta sakonera gutxikoetan nabigatzeko jardun-protokoloa bete du.

h) Eguraldi txarrak eragindako matxuren aurrean jarduteko protokoloa bete du, hautemandako arazoan arabera.

i) Ainguratzealdian aingura arrastaka eramatean protokoloaren arabera jokatu du.

j) Gizon-emakumerik kareletik jausi ostean makina prestatu du, zubiko aginduei jarraikiz.

B) Edukiak:

1.– Guardian jarduteko protokoloak definitzea.

Agindu iraunkorrak prestatzea.

Tripulazioak guardietan dituen eginkizunak deskribatzea.

Makinaburuaren aginduak prestatzea.

Makinen guardian egin beharreko komunikazio-protokoloak definitzea.

Informazio idatzia tratatzeko protokoloak definitzea:

– Erregistro ofizialak.

– Dokumentazio teknikoa.

Guardian gertatutako kontingentzien eta larrialdien aurrean jarduteko protokoloa definitzea.

Aurreikusitako itsas bidaiaren azterketa:

– Itsas bidaian izango den eguraldia.

– Abiadura meteorologiaren arabera egokitzea.

– Zainketa-planak:

Guardiako langileen eginkizunak eta protokoloak ezartzea:

– Guardiako langileen eginkizunak.

- Guardia eratzeko eta antolatzeko irizpideak.
- Aplikatzekoa den araudia. STCW eta STCW-f hitzarmenak.
- Guardiako langileen erantzukizuna.
- Itsasoko Gizarte Institutuaren legeria eta araudia.
- Kideekiko lidergo- eta babes-printzipioak.
- Guardiak programatzeko metodoak.

Agindu iraunkorrak.

Guardietan itsasontziaren errendimendua zehaztea.

- Bira-erregimena eta aurrera-martxa.
- Kontrol termiko teorikoa eta erreala.
- Erregai-kontsumoa hainbat abiaduratan.

Kontsumoek asentuan, hasierako egonkortasunean eta eskora iraunkorrean duten eragina:

- Tankeen edukieraren kalkulua. Edukieren taulak.
- Tankeen egoeraren egiaztapena. Zundaketaren prozedurak.

Guardian eskura dagoen dokumentazioa egiaztatzea:

- Informazioa erregistratzeko sistemak.
- Makinaren egunerokoa betetzea.
- Instalazioetako jarraibideak.

Guardietan hondakin-urak kudeatzea, araudiari jarraikiz.

- Hidrokarburoaren ondoriozko kutsadurari buruzko araudia (MARPOL).
- Kindurtza-bereizgailuaren erabilera.

Kontingentzia-planen prestakuntza.

Talde-lanerako arauak.

Egitekoak garatzeko ekimena.

Taldean jardutea eta integratzea.

Ordena eta metodoa jarduerak egitean.

Ezarritako epeakiko konpromisoa izatea.

Hondakinak birziklatu eta biltegitratzeko prozesuekiko konpromisoa.

2.– Makinetako marinelen guardia.

Makinetako marinelenak guardia dagokion arduradunaren aginduetara egiteko duen gaitasuna deskribatzea.



Jagoletza-protokoloak betetzea.

Guardia-txanda ezarritako protokoloek jarraikiz egitea.

Larrialdirik egonez gero gauzatu beharreko jarduketa deskribatzea.

Makinen berezko terminologia erabiltzea.

Makinetako marinelaren eginkizunak STCW eta STCW-f hitzarmenen arabera.

Guardia tripulazio iraunkorrik gabeko makinaguneetan.

Komunikazio-protokoloak:

– Agindu normalizatuak.

– Segurtasun-errondak.

– Gorabeherak jakinaraztea.

– Guardiako dokumentazioa.

– Guardia-txanda.

– Fraseologia normalizatuak.

Zainketa-prozedurak guardia-zerbitzuan:

– Alarmek funtzionatzen dutela egiaztatzea.

– Galdaren jagoletza.

– Propultsio-planta eta tresneria osagarria kontrolatzea.

Jarrerak guardian:

– Nagusiekiko betebeharrak.

– Guardia-taldearekin taldean lan egiteko jarraibideak.

Betebeharrak guardian larrialdi-kasua izanez gero:

– Larrialdiko prozedurak aplikatzea.

– Sutearen, uholdearen eta xukatzearen abisua.

– Larrialdiko tresneria funtzionaraztea.

Egitekoak garatzeko ekimena.

Taldean jardutea eta integratzea.

Ordena eta metodoa jarduerak egitean.

Ezarritako epeekiko konpromisoa izatea.

Hondakinak birziklatu eta biltegitratzeko prozesuekiko konpromisoa.

3.– Makinen guardiako ofizialaren gainbegiratze-lana.

Makinen guardiako konpetentzia deskribatzea.

Olioen eta erregaien ontzi-aldaketak deskribatzea.

Agintea eskuzko modura aldatzeko eragiketak egitea, protokoloei jarraikiz.

Martxa-erregimena eragozten duten gertakariei buruzko zer informazio helarazi behar den erabakitzea.

Ezarritako erregistroak betetzea.

Guardiako ofizialaren eginkizunak STCW eta STCW-f hitzarmenen arabera.

Arduradun nagusia den aldetik, guardiako ofizialaren jardunak nabigazioan, portuan eta ainguratzealdian:

- Ontzi-aldaketen definizioa guardian.
- Guardiako zainketa-lanak.
- Zainketa-protokoloak gainbegiratzea guardian.
- Kargatzeko eta atrakatzeko baliabideen prestakuntza eta zainketa.
- Galdararen funtzionamenduaren eta segurtasunaren egiaztapena.
- Makina-gelako alarmen egiaztapena eta doikuntza.
- Makinetako tresneriaren egiaztapena eta ikuskapena, guardian arduradun nagusia den aldetik.
- Hondakin-uren deskarga nabigazioan eta portuan, ingurumen-araudiak beteta.

Guardian lider izatea:

- Egoera kritikoak identifikatzea.
- Lehentasunak identifikatzea.
- Gorakoekiko eta mendekoekiko jarrerak.
- Komunikazio-jarraibideak.

Guardian eman eta hartzeko protokoloak:

- Ohiko erregistroak betetzea.
- Makinaren egunerokoa betetzea.
- Beste erregistro-sistema batzuk.

Egitekoak garatzeko ekimena.

Taldean jardutea eta integratzea.

Ordена eta metodoa jarduerak egitean.

Ezarritako epeakiko konpromisoa izatea.

Hondakinak birziklatu eta biltegitratzeko prozesuekiko konpromisoa.

4.– Ur mugatuetan eta nabigazio-egoera txarrean jardutea.

Propultsio-sistemaren dinamika aldatzea ur mugatuetan.

Propulstzailearen potentzia-baldintzak aldatzea egoera txarrean.

Makina-ganberetan alarmen bidez hauteman ez diren anomaliak (zirkuituetan ihesak izatea, mailak edo tenperaturak aldatzea, besteak beste) konpontzea.

Parametroen monitorizazioa:

– Tresneria guztietan aintzat hartu beharreko parametroak.

Ur mugatuetan propulstio-sistemaren dinamika aldatzeko prozesua:

– Indarrak eta uneak propulstzailean.

– Kroskora transmititutako indarrak eta uneak. Aurrera egiteko erresistentzia.

– Erregimenaren, pare motorraren, lanaren eta potentziaren arteko elkarreragina.

– Kontsumo espezifikoa. Kontsumo espezifikotan eragiten duten aldagaiak.

Propulstzailearen potentzia-baldintzak aldatzea egoera txarrean.

– Adierazitako potentzia eta potentzia efektiboa ardatzean.

– Errekuntza-diagramak eta adierazitako potentziarekiko erlazioa.

Hasierako erreakzioak propulstio-plantaren edo makineria osagarriaren funtzionamenduan anomaliarik gertatuz gero.

Komunikazioak. Propulstio-plantaren maniobrarekin loturiko hiztegi teknikoaren erabilera.

Jardunak propulstzailean eta tresneria osagarrian egoera kritikoak gertatzen direnean:

– Tresneria babestea arrisku bereziko nabigazioetan.

– Propulstzailearen erantzuna egoera kritikoetan.

– Nabigazioa egoera txarrean (eguraldi txarra eta izotza, besteak beste).

– Planta sorgailuaren behaketa.

– Konponketak egiteko jarraibideak eta protokoloak itsas bidaian egoera txarra suertatzen denean.

Egitekoak garatzeko ekimena.

Taldean jardutea eta integratzea.

Ordena eta metodoa jarduerak egitean.

Ezarritako epeekiko konpromisoa izatea.

Hondakinak birziklatu eta biltegitratzeko prozesuekiko konpromisoa.

5.– Larrialdi-egoeretan jardunak egitea eta ebaluatzea.

Alarma-kasuan jarduteko prozesua.

Itsasontzia uzteko protokoloa deskribatzea.

Ur-bidearen kasuko protokoloa deskribatzea.

Hondartze-kasuko protokoloa deskribatzea.

Makinaren larrialdiko geldialdia egitea.

Trafiko handia dagoen tokian nabigatzeko jardun-protokoloak deskribatzea.

Ainguratzealdian aingura arrastaka eramateko kasuko protokoloa deskribatzea.

Gizon-emakumerik kareletik jausi ostean makinaren prestaketa deskribatzea.

Gertatutako larrialdiak makinaren egunkarian erregistratzea.

Larrialdien zehaztapena.

Larrialdiko tresneria gainbegiratzea.

Makina motak eta itsas bidaia motak sor daitezkeen larrialdietan izan dezaketen eragina.

Larrialdiko alarma bat jasoz gero jarduteko protokoloa.

Tresneria automatikoetan matxurak gertatzearen ondoriozko larrialdien aurrean jokatzeko prozedura alternatiboak.

Guardiako ofizialaren jarduna, sor daitezkeen larrialdietan:

– Jarduna makina-gelan sutea izanez gero.

Itsasontzia bertan behera utziz gero, makinerian hartu beharreko neurriak.

– Ur-bideei eusteko teknikak.

– Uholde-kasuan ebakuazio-bidea hautatzea.

– Hondartze-kasuan egin beharreko jardunak.

– Larrialdiko geldialdian jarraitu beharreko prozedurak.

– Sakonera txikiko uretan nabigatzean makinan hartu beharreko neurriak.

– Makinaren prestaketa aingura arrastaka eramatean.

– Muturreko egoeretan hartu beharreko neurriak, gauzatu behar diren ekintzetan lider izanik.

Egitekoak garatzeko ekimena.

Taldean jardutea eta integratzea.

Ordena eta metodoa jarduerak egitean.

Ezarritako epeakiko konpromisoa izatea.

Hondakinak birziklatu eta biltegitratzeko prozesuekiko konpromisoa.

8. lanbide-modulua: Ingelesa

Kodea: 0179

Kurtsoa: 1

Iraupena: 132 ordu

ECTS kredituetarako baliokidetzeta: 7.

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Edozein komunikazio-bitarteko bidez hizkuntza estandarrean egindako orotariko ahozko diskurtsoetan bildutako informazio profesionala eta egunerokoa ezagutzen du, eta mezuaren edukia interpretatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Mezuaren ideia nagusia identifikatu du.

b) Hizkuntza estandarrean ahoskatutako irrati bidezko mezuen helburua eta bestelako material grabatuaren edo transmitituaren helburua ezagutu du, eta hiztunaren aldartea eta tonua identifikatu ditu.

c) Bizitza sozialarekin, profesionalarekin edo akademikoarekin lotzen diren hizkuntza estandarreko grabazioetatik atera du informazioa.

d) Hiztunaren ikuspuntuak eta jarrerak identifikatu ditu.

e) Hizkuntza estandarrean eta erritmo normalean egindako gai zehatzei eta abstraktuei buruzko mezu eta adierazpenen ideia nagusiak identifikatu ditu.

f) Hizkuntza estandarrean adierazten zaiona xehetasun guztiekin ulertu du, baita ingurune zaratatsu batean ere.

g) Hitzaldi, solasaldi eta txostenetako ideia nagusiak atera ditu, baita hizkuntza-mailan konplexuak diren aurkezpen akademiko eta profesionaleko beste modu batzuetako ideia nagusiak ere.

h) Mezu bat bere elementu guzti-guztiak ulertu gabe orokorrean konprenitzea zeinen garrantzitsua den konturatu da.

2.– Idatzizko testu zailtan bildutako informazio profesionala interpretatzen du, edukiak modu ulerkorrean aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Independentzia-maila handiarekin irakurri du, eta irakurmenaren abiadura eta estiloa testuetara eta xedeetara egokitu du eta erreferentzia-iturri egokiak modu selektiboan erabili ditu.

b) Bere espezialitateari dagozkion gutunak interpretatu ditu, eta erraz ulertu du funtsezko esanahia.

c) Zehatz-mehatz interpretatu ditu testu luze eta zail samarrak, bere espezialitatearekin lotzen direnak eta lotzen ez direnak, betiere atal zailak berriro irakurtzeko aukera badu.

d) Aztergai duen sektorearen esparruarekin erlazionatu du testua.

e) Berehala identifikatu du askotariko gai profesionalei buruzko albisteen, artikuluen eta txostenen edukia eta garrantzia, eta analisi sakonagoa behar den erabaki du.

f) Testu zailen itzulpenak egin ditu, eta, beharrezkoa izan denean, laguntza-materiala erabili du.

g) Euskarri telematikoen bitartez (posta elektronikoa, faxa, besteak beste) hartutako mezu teknikoak interpretatu ditu.

h) Bere espezialitateko jarraibide luzeak eta zailak interpretatu ditu.

3.– Ahozko mezu argiak eta ondo egituratuak ematen ditu, egoeraren edukia aztertzen du eta solaskidearen hizkuntza-erregistrora egokitzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Mezua igortzeko erabilitako erregistroak identifikatu ditu.
- b) Emari, doitasun eta eraginkortasunez mintzatu da askotariko gai orokorrei, akademikoei eta profesionalei buruz, edo aisialdiko gaiei buruz, eta argi lotu ditu ideiak.
- c) Naturaltasunez komunikatu da eta zirkunstantzien arabeko formaltasun-maila egokiaz egin du.
- d) Aurkezpen formaletan eta informaletan protokolo-arauak erabili ditu.
- e) Lanbidearen berezko terminologia zuzen erabili du.
- f) Argi eta garbi adierazi eta babestu ditu bere ikuspuntuak, eta azalpen eta argudio egokiak eman ditu.
- g) Bere konpetentziako lan-prozesu bat deskribatu eta sekuentziatu du.
- h) Lanerako aukera edo prozedura jakin bat hautatzea xehetasun guztiekin argudiatu du.
- i) Beharrezkotzat jo duenean diskurtsoa edo horren zati bat berriz formulatzeko eskatu du.

4.– Sektoreko edo bizitza akademikoko eta eguneroko bizitzako dokumentuak eta txostenak egiten ditu, eta hizkuntza-baliabideak xedearekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Espezialitatearekin lotzen diren askotariko gaiei buruzko testu argiak eta zehatzak idatzi ditu, eta hainbat iturritatik jasotako informazioak eta argudioak laburtu eta ebaluatu ditu.
- b) Informazioa zuzentasunez, doitasunez, koherentziaz eta kohesioz antolatu du, eta informazio orokorra edo zehatza eskatu eta eman du.
- c) Txostenak idatzi ditu, alderdi adierazgarriak nabarmendu ditu eta lagungarriak izango diren xehetasun garrantzitsuak eman ditu.
- d) Bere lanbide-esparruko dokumentazio espezifikoa bete du.
- e) Dokumentuak betetzerakoan, xedatutako formulak eta hiztegi espezifikoa aplikatu ditu.
- f) Artikuluak, jarraibideen eskuliburuak eta bestelako dokumentu idatzi batzuk laburbildu ditu, eta, horretarako, hiztegi zabala erabili du, errepikapenak saihestearren.
- g) Landu beharreko dokumentuaren berezko adeitasun-formulak erabili ditu.

5.– Komunikazio-egoeretan, jarrera eta portaera profesionalak aplikatzen ditu, eta atzerriko hizkuntzek dituzten berezko erlazio tipikoak deskribatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Atzerriko hizkuntza hitz egiten den erkidegoko ohitura eta usadioen ezaugarri esanguratsuenak definitu ditu.
- b) Herrialdearen berezko gizarte-harremanetako protokoloak eta arauak deskribatu ditu.

c) Atzerriko hizkuntza hitz egiten den erkidegoaren berezko balio eta sinesmenak identifikatu ditu.

d) Sektorearen berezko alderdi sozio-profesionalak identifikatu ditu edozein testu motatan.

e) Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdearen berezko gizarte-harremanetako protokoloak eta arauak aplikatu ditu.

f) Eskualde-jatorriaren hizkuntza-markak ezagutu ditu.

B) Edukiak:

1.– Ahozko mezuak aztertzea.

Ahozko mezu profesionalak eta egunerokoak ulertzea –zuzenekoak zein telefono bidezkoak, irrati bidezkoak edo grabatuak–.

Ahozko testu baten ideia nagusiak eta bigarren mailakoak identifikatzea.

Beste hizkuntza-baliabide batzuk ezagutzea, hala nola: adostasuna eta desadostasuna, hipotesiak eta espekulazioak, iritzia eta aholkuak, pertsuasioa eta ohartarazpenak.

Administrazioaren eta kudeaketaren sektoreko berariazko terminologia.

Ahozko testuak ulertzeko beharrezko gramatika-baliabideak. Adibidez: aditz-denborak, preposizioak, phrasal verbs, lokuzioak, izaeraren eta zalantzaren adierazpena, boz pasiboaren erabilera, perpaus erlatiboak, zeharkako estiloa, aditz modalak...

Ahozko hizkeraren azentu desberdinak.

Ulertzeko interesa izatea.

Hizkuntza bakoitzaren berezko adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak errespetatzea.

2.– Idatzizko mezuak interpretatzea.

Mezuak, testuak, eta oinarrizko artikulua profesionalak eta egunerokoak ulertzea.

Edozein euskarri tradizionaletan edo telematikotan (faksa, posta elektronikoa, burofaxa) emandako testuak ulertzea.

Sektorearekin lotzen diren mota guztietako testu-tipologiak ezagutzea.

Erlazio logikoak ezagutzea: aurkakotasuna, kontzesioa, konparazioa, baldintza, kausa, helburua, emaitza.

Denbora-erlazioak bereiztea: aurrekotasuna, gerokotasuna, aldiberekotasuna.

Administrazioaren ea kudeaketaren arloko berariazko terminologia.

Idatzizko testuak ulertzeko beharrezko gramatika-baliabideak: aditz-denborak, preposizioak, phrasal verbs, lokuzioak, izaeraren, zalantzaren eta desioaren adierazpena, boz pasiboaren erabilera, perpaus erlatiboak, zeharkako estiloa, aditz modalak...

Sektorean ohikoenak diren testu-tipologiaren egitura.

Ulertzeko interesa izatea.

Lanbidearekin lotzen diren edozein motatako testuak ulertzeko beharrezko baliabideak erabiltzen autonomiaz jardutea.

Hizkuntza bakoitzaren berezko adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak errespetatzea.

Informazio-iturriekiko jarrera erreflexiboa eta kritikoa izatea.

3.– Ahozko mezuak produzitzea.

Beste hizkuntza-baliabide batzuk erabiltzea, hala nola: adostasuna eta desadostasuna, hipotesiak eta espekulazioak, iritziak eta aholkuak, pertsuasioa eta ohartarazpenak.

Gizarte-harremanetarako hizkuntza-adierazgailuak, adeitasun-arauak eta erregistro desberdinak erabiltzea.

Ahozko diskurtsoa mantentzea eta jarraitzea: hitz egiteko txanda hartzea, mantentzea eta lagatzea, sostengua ematea, ulertzen dela erakustea, argibideak eskatzea, eta abar.

Intonazioa ahozko testuaren kohesio-baliabide gisa erabiltzea: intonazio-ereduak erabiltzea.

Gramatika-baliabideak, ahozko mezuak sortzeari dagokionez: aditz-denborak, preposizioak, phrasal verbs, lokuzioak, izaeraren, zalantzaren eta desioaren adierazpena, boz pasiboaren erabilera, perpaus erlatiboak, zeharkako estiloa, aditz modalak...

Ahozko mezuak igortzeko erabiltzen diren erregistroak.

Administrazioaren arloko berariazko terminologia.

Fonetika, intonazioa eta erritmoa, ahozko mezuei dagokienez.

Ikasgelan ingelesa erabiltzearen aldeko jarrera positiboa izatea.

Informazio-trukean bete-betean parte hartzea.

Atzerriko hizkuntzan komunikatzeko norberaren gaitasunaz jabetzea.

Hizkuntza bakoitzaren berezko adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak errespetatzea.

4.– Idatzizko testuak sortzea.

Hainbat euskarritan emandako sektoreko dokumentu eta testu profesionalak eta egunerokoak adieraztea eta betetzea.

Testu koherenteak lantzea:

- Testua komunikazio-testuingurura egokitzea.
- Testuaren mota eta formatua.
- Hizkuntza-aldaera.
- Erregistroa.
- Gairako sarrera eta diskurtsoaren hasiera. Garapena eta iritsiera: adibideak. Diskurtsoaren amaiera eta laburpena.
- Sektorearen berariazko terminologia egokia erabiltzea.
- Egitura sintaktikoak hautatzea.



– Puntuazio-markak erabiltzea.

Sektoreko terminologia espezifikoa.

Testuak igortzeko beharrezko gramatika-baliabideak: aditz-denborak, preposizioak, phrasal verbs, lokuzioak, aditz modalak, lokuzioak, boz pasiboaren erabilera, perpaus erlatiboak, zeharkako estiloa.

Bestelako baliabideak: aurkakotasuna, kontzesioa, konparazioa, baldintza, kausa, helburua, emaitza.

Loturak: although, even if, in spite of, despite, however, in contrast...

Eratorpena: adjektiboak eta substantiboak osatzeko atzizkiak.

Denbora-erlazioak: aurrekotasuna, gerokotasuna, aldiberekotasuna.

Sektorean ohikoenak diren testu-tipologien egitura.

Testuaren garapenean koherentziaren premia baloratzea.

Lanbidearekin lotzen diren edozein motatako testuak sortzeko beharrezko baliabideak erabiltzeko autonomia izatea.

Hizkuntza bakoitzaren berezko adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak errespetatzea.

5.– Ingelesarekin lotzen diren kultura-elementurik adierazgarrienak identifikatzea eta interpretatzea.

Enpresaren irudi ona proiektatzeko portaera sozioprofesionala eskatzen duten egoeretan baliabide formalak eta funtzionalak erabiltzea.

Komunikazioaren testuinguruaren, solaskidearen eta solaskideen asmoaren arabera, erregistrorik egokienak erabiltzea.

Ingelesa hizkuntza duten herrialdeetako gizarte- eta kultura-elementu esanguratsuenak.

Nazioarteko harremanetan, arau soziokulturalak eta protokoloak balioestea.

Atzerriko hizkuntza ezagutzea, bizitza pertsonalean eta profesionalean interesgarriak izan daitezkeen jakintzak areagotzeko.

9. lanbide-modulua: Larrialdien kontrola

Kodea: 0800

Kurtsoa: 1

Iraupena: 132 ordu

ECTS kredituetarako baliokidetzatza: 10.

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Itsasontzia uzteko plangintza egiten du, kontrol-zerrendak eginda, mantentze planak zehaztuta eta araudia aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Itsasontzi motaren arabera, salbamenduaren arloan aplikatu beharreko araudia antzeman du.

b) Itsasontzirako, tripulaziokoentzat eta bidaiarientzat arriskua ekar dezaketen larrialdiak larrialdi-kasuetarako betebeharren eta jarraibideen taularekin lotu ditu.

c) Itsasontzia uzteko ariketak eta bestelako trebatze-ekintzak planifikatu ditu; aurretiaz, salbamendu-planoak, betebeharren taulak, larrialdietarako jarraibideak eta prestakuntza-eskuliburuak kontsultatuta.

d) Larrialdietako seinale orokorra, uzte-egoerari dagozkion mezuak, eta horiek tripulaziokoentzat eta bidaiarientzat duten esanahia identifikatu ditu.

e) Itsasontzi motarako salbamendu-bitarteko eta -gailu egokiak zaintzeko planak eta egiaztatze-zerrendak egiteko alderdi araukoak eta teknikoak kontuan hartu ditu.

f) Itsasontzia uztearekin lotuta, langileak prestatzeko planak egin ditu.

g) Egindako jardueretan arretarako eta lankidetzarako jarrera erakutsi du.

2.– Biziraupen-teknikak aplikatzen ditu, bai uretan bai biziraupeneko itsasontzien barruan, egoerak aztertuta, eta salbamenduko bitartekoak eta gailuak erabilia.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Eskuragarri dauden salbamenduko bitartekoak eta gailuak dagozkien sinboloekin eta itsasontzi barruko egoerarekin identifikatu ditu, salbamendu-planoaren arabera.

b) Itsasontzia uzteko egoera simulatuetan, banako salbamendu-gailuak eta horien osagarriak eraginkortasunez eta segurtasunez erabili ditu.

c) Murgilduta irauteko banako eta taldeko teknikak aplikatu ditu.

d) Biziraupeneko itsasontziak eta erreskate-txalupak flotarazteko eta prestatzeko bitartekoak eraginkortasunez eta segurtasunez maneiatu ditu.

e) Salbamenduko txalupan laguntzarik gabe sartu da, adierazitako distantzia igerian egin ondoren eta hura iraulita.

f) Biziraupeneko itsasontziak eta erreskateko txalupak gobernatu ditu egoera simulatuetan: ezbeharrak izan duen itsasontzitik bereiztea eta askatzea, eta itsasoan galdutakoak erreskatatzea.

g) Sorospeneko tresneria irradi-elektronikoa eta larrialdietako haren erabilera ezaugarritu ditu.

h) Itsasoan galdutako biziraupenerako arrisku nagusiak lotu ditu bizirauteko hartu beharreko neurriekin, bai uretan, bai biziraupeneko itsasontzien barruan.

i) Taldeak biziraupeneko itsasontzian egin beharreko egonaldia antolatu du, adierazitako tekniken eta denboren arabera.

j) Egindako jardueretan arretarako eta lankidetzarako jarrera erakutsi du.

3.– Suteen aurkako borroka eta, horrekin lotuta, tripulazioaren prestakuntza planifikatzen du; larrialdi-plana, eta suteen aurkako tresneriaren eta sistemen kontrola eta zainketa garatuta, eta araudia aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Itsasontzi motaren arabera, suteen aurkako prebentzioaren eta borrokaren arloan aplikatu beharreko araudia antzeman du.

b) Arrisku-zona nagusiak eta itsasontzi barruan suteak saihesteko prebentzio-neurriak identifikatu ditu.

c) Suteen aurka borrokatzeko ariketak eta bestelako trebatze-ekintzak planifikatu ditu; aurretiaz, salbamendu-planoak, betebeharren taulak, larrialdietarako jarraibideak eta prestakuntza-eskuliburuak kontsultatu ondoren.

d) Alarma-seinaleak eta sute-egoerari dagozkion mezuak identifikatu ditu.

e) Agente itzaltzaileak su motekin, suteen aurka borrokatzeko sistema eramangarri eta finkoekin lotu ditu.

f) Errekuntzaren produktuak eta horien arriskuak detekzio-sistemekin lotu ditu.

g) Sutearen kokapena, mota eta garapena kontuan izanda erabili beharreko haren aurkako borroka taktikak- eta metodoak zehaztu ditu.

h) Suteen aurka borrokatzeko bitartekoak eta sistemak zaintzeko planak eta egiaztatze-zerrendak egiteko, alderdi arauemaileak eta erabilerako eskuliburuak kontuan hartu ditu.

i) Taldean lan egin du, ariketak egitean jarrera partaidetzazkoa eta arduratsua erakutsita.

4.– Suteen aurka borrokatzeko teknikak aplikatzen ditu, norbera babesteko sistemak eta suteen aurka borrokatzeko sistemak erabilia.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Suteen aurka borrokatzeko bitartekoak eta sistemak identifikatu ditu, dagozkien IMO sinboleen eta itsasontzi barruko egoerarekin, suteen aurka borrokatzeko planoaren arabera.

b) Zenbait motatako eta zenbait agente aktibotako su-itzalgailuak erabili ditu suteak itzaltzeko.

c) Arnasketa-tresneria autonomoa erabili du, ikuspen eskaseko baldintzak simulatuta, eta larrialdiko ebakuaziorako arnas aparatuak baliatu ditu.

d) Suteen itzaltzea simulatu du, zenbait motatako pitak/ahoak eta apar-sorgailuak dituzten mahukak erabilia.

e) Praktiketari, suteen aurka borrokatzeko langileentzako babes-tresneria behar bezala hautatu eta erabili du.

f) Suteen aurka borrokatzeko tresneria mantendu eta kargatzeko praktiketari aktiboki eta eraginkortasunez parte hartu du.

g) Egindako jardueretan arretarako eta lankidetzarako jarrera erakutsi du.

5.– Uholdeak kontrolatzeko teknikak aplikatzen ditu, sortutako egoerak aztertuta, eta eskuragarri dauden tresneria eta bitartekoak maneiatura.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Itsasontziaren planoetan konpartimentazio estankoa antzeman du.

b) Espazio mota bakoitza itsasontziak dituen xukatze-bitartekoekin lotu du.

c) Ate estankoen berariazko ezaugarriak eta arriskuak identifikatu ditu.

d) Barne-espazioetako suteak itzaltzeko ura erabiltzearen arriskuak identifikatu ditu.

e) Uholdeen kontrolarekin lotutako larrialdi-planak erabili ditu, itsasontzi barruan ariketak egiteko eta prestatzeko.

f) Xukatze-bitarteko eramangarriak erabili ditu, ateratako likidoak kudeatzean ingurumen-irizpideak kontuan izanda.

g) Ur-bide bat buxatzeko eta trenkada bat indartzeko simulazioak egin ditu.

h) Taldean lan egin du, ariketak egitean jarrera partaidetzakoa eta arduratsua erakutsita.

6.– Ustekabeko kutsaduraren aurkako prebentzio- eta borroka-teknikak ezaugarritzen ditu, aplikatu beharreko araudia interpretatuta eta larrialdi-plana kontuan hartuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Itsasontzi motaren arabera, ustekabeko kutsaduraren aurkako prebentzioaren eta borroka-aren arloan aplikatu beharreko araudia antzeman du.

b) Ustekabeko itsas kutsaduraren ondoriozko gorabeheren plan nazionalaren irizpide antolamendukoak eta logistikoak antzeman ditu.

c) Ustekabeko isuri motak itsasontzi barruan horiei aurre egiteko eskuragarri dauden bitartekoe-kin lotu ditu.

d) Hidrokarburoen edo bestelako substantzia kutsatzaileen ustekabeko isurien kontrolarekin lotutako larrialdi-planak (SOPEP/SMPEP) erabili ditu, itsasontzi barruan ariketak egiteko eta prestatzeko.

e) Aztertutako benetako kutsadura-kasuak horien sorburuekin eta ondorioekin lotu ditu.

f) Egindako jardueretan arretarako eta lankidetzarako jarrera erakutsi du.

B) Edukiak:

1.– Itsasontzia bertan behera uzteko plangintza.

Itsasontziarentzat, tripulazioarentzat eta bidaiarientzat arriskua ekar dezaketen larrialdien, eta larrialdi-kasuetarako betebeharrei eta jarraibideei buruzko taularen arteko loturak ezartzea.

Itsasontzia uzteko ariketak eta bestelako trebatze-ekintzak planifikatzea; aurretiaz, salbamendu-planoak, betebeharren taulak, larrialdietarako jarraibideak eta prestakuntza-eskuliburuak kontsultatu ondoren.

Larrialdietako seinale orokorra, uzte-egoerari dagozkion mezuak, eta horiek tripulazioarentzat eta bidaiarientzat duten esanahia identifikatzea.

Itsasontzi motarako salbamendu-bitarteko eta -gailu egokiak mantentzeko planak eta egiaz-tatze-zerrendak egiteko alderdi arauzkoak eta teknikoak bere gain hartu eta errespetatzea.

Itsasontzia uztearekin lotuta, langileak prestatzeko planak egitea.

Egindako jardueretan arretarako eta lankidetzarako jarrera erakustea.

Salbamenduko tresneriari eta gailuei buruzko araudi nazionala eta nazioartekoa.

SOLAS hitzarmenari buruzko erreferentziak.

Itsasontzia uztea.

Larrialdi-kasuetarako betebeharren eta jarraibideen taula.

Larrialdi-seinale orokorra eta itsasontzia uztearekin lotutako bestelako mezuak/seinaleak.

Salbamenduko banako gailuak eta horien osagarriak.

Biziraupeneko itsasontziak eta horien tresneria.

Erreskate-txalupak eta horien tresneria.

Biziraupeneko itsasontzietako flotarazteko eta ontziratzeko gailuak.

Itsasoko ebakuazio-sistemak (MES).

Soka-jaurtigailua.

Salbamenduko bitartekoen eta gailuen arloko araudi nazionala eta nazioartekoa, haien zainketa-dagokionez.

Segurtasuna kudeatzeko eskuliburua (IGS kodea), salbamenduko bitartekoak eta gailuak kontrolatu eta zaintzeari dagokionez.

Salbamenduko banako gailuak eta horien osagarriak zaindu eta ikuskatzea.

Salbamenduko txalupak eta baltsak, eta horien tresneria zaindu eta ikuskatzea.

Erreskate-txalupak eta horien tresneria zaindu eta ikuskatzea.

Biziraupeneko itsasontziak flotarazteko eta ontziratzeko bitartekoen zainketa eta ikuskapena.

Itsasoko ebakuazio-sistemen zainketa eta ikuskapena.

Salbamendu-gailuetarako zainketa-zerbitzu homologatuak.

Larrialdietako prozedurak, ariketak eta topaguneak, 1993ko Torremolinosko Protokoloaren eranskinen VIII. kapituluaren eta indarrean dagoen araudiaren arabera.

Aldizkako ariketak planifikatu eta antolatzea.

Bi noranzkoko irradi-telefonoak maneiatzea.

Tripulazioa eta bidaiariak prestatzea.

Larrialdi-egoeretan bidaiariak kontrolatu eta laguntzea.

Gizarte Segurantzako sistema orokorra unibertsala izateak duen garrantzia aztertzea.

Gizarte Segurantzaren prestazioei buruzko kasu praktikoak ebatzea.

Gizarte Segurantzako sistema: aplikazio-esparrua, egitura, araubideak, erakunde kudeatzaileak eta laguntzaileak.

Enpresaburuen eta langileen betebeharrak nagusiak Gizarte Segurantzaren arloan: afiliazioak, altak, bajak eta kotizazioa.

Babes-ekintza: osasun-asistentzia, amatasuna, aldi baterako ezintasuna eta ezintasun iraunkorra, baliaezintasun gabeko lesio iraunkorrak, erretiroa, langabezia, heriotza eta biziraupena.

Prestazioen motak, eskakizunak eta kopurua.

Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzeko sistemak.

Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko Gizarte Segurantzaren eginkizuna aintzat hartzea.

Gizarte Segurantzarako kotizazioan nahiz prestazioetan iruzurrezko jokabideak gaitzestea.

5.– Arrisku profesionalak ebaluatzea.

Lan-baldintzak aztertu eta zehaztea.

Arrisku-faktoreak aztertzea.

Segurtasun-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea.

Ingurumen-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea.

Baldintza ergonomikoei eta psikosozialei lotutako arriskuak aztertzea.

Enpresaren arrisku-esparruak identifikatzea.

Lanbide-eginkizunaren arabera arrisku-protokoloa ezartzea.

Lan-istripuaren eta lanbide-gaixotasunaren artean bereiztea.

Arrisku profesionalaren kontzeptua.

Enpresan arriskuak ebaluatzea, prebentzio-jardueraren oinarritzeko elementu gisa.

Profilarik lotutako lan-ingurunearen berriarazo arriskuak.

Antzemandako arrisku-egoeren ondorioz langilearen osasunean eragin daitezkeen kalteak.

Lanbide-jardueraren fase guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia.

Lanaren eta osasunaren arteko lotura balioestea.

Prebentzio-neurriak hartzeko interesa azaltzea.

Enpresan prebentziorako prestakuntza ematearen garrantzia balioestea.

6.– Enpresan arriskuen prebentzioa planifikatzea.

Planifikazio- eta sistematizazio-prozesuak bideratzea, oinarrizko prebentzio-tresna gisa.

Laneko Arriskuen Prebentzioari (LAP) buruzko oinarrizko araua aztertzea.

Laneko Arriskuen Prebentzioaren (LAP) arloko egitura instituzionala aztertzea.

Lan-ingurunerako larrialdi-plan bat egitea.

Zenbait larrialdi-plan bateratu eta aztertzea.

Lanak giza osasunean eta segurtasunean dituen ondorioak.

Eskubideak eta betebeharrak laneko arriskuen prebentzioaren arloan.

Erantzukizunak laneko arriskuen prebentzioaren arloan. Erantzukizun mailak enpresan.

Laneko Arriskuen Prebentzioan (LAP) eta osasunean esku hartzen duten agenteak, eta horien eginkizunak.

Prebentzioaren kudeaketa enpresan.

Langileen ordezkaritza prebentzioaren arloan (laneko arriskuen prebentzioko oinarrizko teknikaria).

Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak.

Prebentzioaren plangintza enpresan.

Larrialdi- eta ebakuazio-planak lan-inguruneetan.

Laneko Arriskuen Prebentzioaren (LAP) garrantzia eta beharra baloratzea.

Laneko arriskuen prebentzioko (LAP) eta laneko osasuneko (LO) agente gisa duen posizioa baloratzea.

Erakunde publikoek eta pribatuek laneko osasunean (LO) errazago sartzeko egindako aurrerapenak baloratzea.

Bere ezagutza baloratzea eta dagokion kolektiboaren larrialdi-planei zabaltzea.

7.– Enpresan prebentzio- eta babes-neurriak aplikatzea.

Norbera babesteko teknikak identifikatzea.

Norbera babesteko neurriak erabiltzeko garaian enpresak eta banakakoek dituzten betebeharrak aztertzea.

Lehen laguntzetako teknikak aplikatzea.

Larrialdi-egoerak aztertzea.

Larrialdietarako jardun-protokoloak egitea.

Langileen osasuna zaintzea.

Banako eta taldeko prebentzio- eta babes-neurriak.

Larrialdi-egoera batean jarduteko protokoloa.

Larrialdi medikoa / lehen sorospenak. Oinarrizko kontzeptuak.

Seinale motak.

Larrialdien aurreikuspena balioestea.

Osasuna zaintzeko planen garrantzia baloratzea.

Proposatutako jardueretan bete-betean parte hartzea.

13. lanbide-modulua: Enpresa eta ekimen sortzailea

Kodea: 1317

Kurtsoa: 2

Iraupena: 60 ordu

ECTS kredituetarako baliokidetzat: 4.

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Ekimen sortzaileari lotutako gaitasunak ezagutu eta aintzat hartzen ditu, eta lanpostuen eta enpresa-jardueren ondoriozko eskakizunak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Berrikuntzaren kontzeptua, eta gizartearen aurrerabidearekin eta gizabanakoen ongizatearekin duen lotura identifikatu du.

b) Kultura ekintzailearen kontzeptua, eta enpleguaren eta gizarte-ongizatearen sorburu gisa duen garrantzia aztertu du.

c) Norberaren ekimenaren, sormenaren, prestakuntzaren eta lankidetzaren garrantzia baloratu du, jarduera ekintzailean arrakasta lortzeko ezinbesteko eskakizuntzat.

d) Sektoreko enpresa txiki eta ertain bateko enpleguaren lanerako ekimena aztertu du.

e) Sektorean hasten den enpresaburu baten jarduera ekintzailea nola garatzen den aztertu du.

f) Jarduera ekintzaile ororen elementu saihestezintzat aztertu du arriskuaren kontzeptua.

g) Enpresaburuaren kontzeptua, eta enpresa-jarduera garatzeko beharrezko eskakizunak eta jarrerak aztertu ditu.

2.– Enpresa txiki bat sortzeko aukera zehazten du, enpresa-ideia aukeratzen du eta haren bidegarritasuna oinarritzen duen merkatu-azterketa egiten du, jardun-ingurunearen gaineko eragina baloratuta eta balio etikoak gaineratuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Negozio-ideiak sortzeko prozesu bat garatu du.

b) Tituluarekin lotutako negozio baten esparruan ideia jakin bat hautatzeko prozedura sortu du.

c) Hautatutako negozio-ideiaren inguruko merkatu-azterketa egin du.

d) Merkatu-azterketatik ondorioak atera ditu eta garatu beharreko negozio-eredua ezarri du.

e) Negozio-proposamenaren balio berritzaileak zehaztu ditu.

f) Enpresen gizarte-erantzukizunaren fenomenoak eta enpresa-estrategiaren elementu gisa duen garrantzia aztertu ditu.

g) Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten balantze soziala egin du, eta sorrarazten dituen kostu eta mozkin sozial nagusiak deskribatu ditu.

h) Sektoreko enpresetan, balio etikoak eta sozialak gaineratzen dituzten ohiturak identifikatu ditu.

i) Tituluarekin zerikusia duen enpresa txiki eta ertain baten bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioari buruzko azterketa egin du.

j) Enpresa-estrategia deskribatu du eta enpresaren helburuekin lotu du.

3.– Enpresa plan bat egiteko eta, ondoren, hura abiarazi eta eratzeko jarduerak egiten ditu. Dagokion forma juridikoa hautatzen du eta, horren arabera, legezko betebeharrak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Enpresa baten oinarrizko eginkizunak deskribatu ditu eta enpresari aplikatutako sistemaren kontzeptua aztertu du.

b) Enpresaren ingurune orokorraren osagai nagusiak identifikatu ditu; batik bat, ingurune ekonomiko, sozial, demografiko eta kulturalarenak.

c) Berriazko ingurunearen osagai nagusi diren heinean, bezeroekiko, hornitzaileekiko eta lehiakideekiko harremanek enpresa-jardueran duten eragina aztertu du.

d) Sektoreko enpresa txiki eta ertain baten ingurunearen elementuak identifikatu ditu.

e) Enpresa-kulturaren eta irudi korporatiboaren kontzeptuak, eta horiek enpresa-helburuekin duten lotura aztertu ditu.

f) Enpresaren forma juridikoak aztertu ditu.

g) Hautatutako forma juridikoaren arabera, enpresaren jabeek legez duten erantzukizun-maila zehaztu du.

h) Enpresen forma juridikoetarako ezarritako tratamendu fiskala bereizi du.

i) Indarrean dagoen legeriak enpresa txiki eta ertain bat eratzeko exijitutako izapideak aztertu ditu.

j) Erreferentziazko herrian sektoreko enpresak sortzeko dauden laguntza guztiak bilatu ditu.

k) Enpresa-planean, forma juridikoa aukeratzearekin, bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioarekin, administrazio-izapideekin, diru-laguntzekin eta bestelako laguntzekin zerikusia duen guztia barne hartu du.

l) Enpresa txiki eta ertain bat abian jartzeko dauden kanpoko aholkularitza eta administrazio-kudeaketako bideak identifikatu ditu.

4.– Enpresa txiki eta ertain baten oinarrizko kudeaketa administratibo eta finantzarioko jarduerak egiten ditu: kontabilitate- eta zerga-betebehar nagusiak identifikatzen ditu, eta dokumentazioa betetzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Kontabilitatearen oinarritzko kontzeptuak eta kontabilitate-informazioa erregistratzeko teknikak aztertu ditu.

b) Kontabilitate-informazioa aztertzeko oinarritzko teknikak deskribatu ditu, batez ere, enpresaren kaudimenari, likidezari eta errentagarritasunari dagokienez.

c) Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten zerga-betebeharrak zehaztu ditu.

d) Zerga-egutegian zerga motak bereizi ditu.

e) Sektoreko enpresa txiki eta ertain batentzako merkataritza eta kontabilitateko oinarritzko dokumentazioa bete du (fakturak, albaranak, eskabide-orriak, kanbio-letrak, txekeak eta bestelakoak), eta dokumentazio horrek enpresan egiten duen bidea deskribatu du.

f) Banku-finantzaketako tresna nagusiak identifikatu ditu.

g) Dokumentazio hori enpresa planean barne hartu du.

B) Edukiak:

1.– Ekimen sortzailea.

Tituluari lotutako sektorearen jardueran berrikuntzak dituen ezaugarri nagusiak aztertzea (materialak, teknologia, prozesuaren antolamendua, etab.).

Ekintzaileen faktore garrantzitsuenak aztertzea: ekimena, sormena, lidergoa, komunikazioa, erabakiak hartzeko ahalmena, plangintza eta prestakuntza.

Jarduera ekintzailean arriskua ebaluatzea.

Sektoreko berrikuntza eta garapen ekonomikoa.

Kultura ekintzailea gizarte-behar gisa.

Enpresaburu kontzeptua.

Ekintzaileen jarduna sektoreko enpresa bateko enplegatu gisa.

Ekintzaileen jarduna enpresaburu gisa.

Ekintzaileen arteko lankidetzak.

Enpresa-jardueran aritzeko eskakizunak.

Negozio-ideia lanbide-arloaren esparruan.

Kultura ekintzaileari lotutako jardunbide egokiak tituluari dagokion jarduera ekonomikoan eta toki-esparruan.

Izaera ekintzailea eta ekintzailetzaren etika baloratzea.

Ekimena, sormena eta erantzukizuna balioestea ekintzailetzaren bultzatzaile gisa.

2.– Enpresa-ideiak, ingurunea eta haien garapena.

Enpresa-ideiak zehazteko tresnak aplikatzea.



Internet bidez, sektoreko enpresei buruzko datuak bilatzea.

Garatu beharreko enpresaren ingurune orokorra aztertzea.

Lanbide-arloko ereduako enpresa bat aztertzea.

Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea.

Merkatu-azterketaren ondorioetatik abiatuta, negozio-eredua ezartzea.

Erabakitako ideia-aren gainean berrikuntza-eraketak egitea.

Enpresaren betebeharrak bere inguru propioarekiko eta sozietate osoarekiko (garapen jasagarria).

Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egitea.

Sektoreko enpresen erantzukizun soziala eta etikoa.

Merkatu-azterketa: ingurunea, bezeroak, lehiakideak eta hornitzaileak.

Enpresaren balantze soziala aintzat hartu eta baloratzea.

Genero-berdintasuna errespetatzea.

Enpresa-etika baloratzea.

3.– Enpresa baten bideragarritasuna eta abiaraztea.

Marketin-plana ezartzea: komunikazio-politika, prezioen politika eta banaketaren logistika.

Produkzio-plana prestatzea.

Sektoreko enpresa baten bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa aztertzea.

Enpresaren finantzaketa-iturriak aztertzea eta haren aurrekontua egitea.

Forma juridikoa hautatzea. Tamaina eta bazkide kopurua.

Enpresaren kontzeptua. Enpresa motak.

Enpresa baten funtsezko elementuak eta arloak.

Zerga-arloa enpresetan.

Enpresa bat eratzeko administrazio-izapideak (ogasuna eta gizarte-segurantza, besteak beste).

Lanbide-arloko enpresentzako diru-laguntzak, bestelako laguntzak eta zerga-pizgarriak.

Enpresaren jabeek duten erantzukizuna.

Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa zorrotasunez ebaluatzea.

Administrazio- eta legezko izapideak betetzea.

4.– Administrazio-funtzioa.

Kontabilitate-informazioa aztertzea: diruzaintza, emaitzen kontua eta balantzea.

Dokumentu fiskalak eta lanekoak betetzea.

Merkataritza-dokumentuak betetzea: fakturak, txekeak, letrak, etab.

Kontabilitatearen kontzeptua eta oinarrizko ideiak.

Kontabilitatea, egoera ekonomikoaren irudi zehatz gisa.

Enpresen legezko betebeharrak (fiskalak, lanekoak eta merkataritzakoak).

Dokumentu ofizialak aurkezteko eskakizunak eta epeak.

Sortutako administrazio-dokumentuei dagokienez, antolamendua eta ordena baloratzea.

Administrazioko eta legezko izapideak betetzea.

14. lanbide-modulua: Lantokiko prestakuntza

Kodea: 1318

Kurtsoa: 2

Iraupena: 360 ordu

ECTS kredituetarako baliokidetzat: 22.

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Enpresaren egitura eta antolamendua identifikatzen ditu, eta horiek enpresak egiten duen zerbitzu motarekin erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Enpresaren antolamendu-egitura eta arlo bakoitzaren eginkizunak identifikatu ditu.
- b) Enpresaren egitura eta sektorean dauden ereduazko enpresa-antolamenduak alderatu ditu.
- c) Zerbitzuaren ezaugarriak eta bezero mota lotu ditu enpresa-jardueraren garapenarekin.
- d) Zerbitzugintza garatzeko lan-prozedurak identifikatu ditu.
- e) Jarduera behar bezala garatzeko giza baliabideen beharrezko kompetentziak baloratu ditu.
- f) Jarduera honetan ohikoenak diren hedabideen egokitasuna identifikatu du.

2.– Lanbide-jarduera garatzean ohitura etikoak eta lanekoak aplikatzen ditu, lanpostuaren ezau-garrien eta enpresan ezarritako prozeduren arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Aintzat hartu eta justifikatu ditu:
  - Lanpostuan beharrezkoa den langileen eta denboraren eskuragarritasuna.
  - Lanposturako beharrezkoak diren jarrera pertsonalak (besteak beste, puntualtasuna eta enpatia) eta profesionalak (besteak beste, ordena, garbitasuna eta erantzukizuna).
  - Jarrerazko eskakizunak lanbide-jarduerak dituen arriskuen prebentzioaren aurrean.
  - Lanbide-jardueraren kalitatearekin zerikusia duten jarrerazko eskakizunak.
  - Lantalde barruko eta enpresan ezarritako hierarkiekiko harreman-jarrerak.
  - Lanaren esparruan egiten diren jardueren dokumentazioarekin zerikusia duten jarrerak.
  - Profesionalaren jardun egokiarekin lotuta, esparru zientifikoan eta teknikoan lan-munduratzeko eta berriro laneratzeko prestakuntza-beharrak.

b) Lanbide-jardueran aplikatzekoak diren laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen oinarritzko alderdiak identifikatu ditu.

c) Lanbide-jarduerak dituen arriskuen arabera eta enpresaren arauen arabera jarri du abian norbera babesteko ekipamendua.

d) Garatu dituen jardueretan ingurumena errespetatzeko jarrera izan du.

e) Antolatuta, garbi eta oztoporik gabe mantendu du lanpostua edo jarduera garatzeko eremua.

f) Zuzendu zaion lanaz arduratu da, jasotako argibideak interpretatuz eta betez.

g) Egoera bakoitzean ardura duen pertsonarekin eta taldeko kideekin komunikazio eraginkorra ezarri du.

h) Taldearen gainerakoekin koordinatu da eta sortzen diren gertakaririk adierazgarrienak komunikatu ditu.

i) Bere jardueraren garrantzia eta zereginen aldaketetara egokitzeko beharra baloratu ditu.

j) Lana garatzean arauak eta prozedurak aplikatzeaz arduratu da.

3.– Gainbegiratuta eta indarreko legediari jarraikiz, itsasontziko propulzio-plantaren, tresneriaren eta sistemen lehorreko eta ur gaineko zainketa programatzen du, ezarritako prozedurak aplikatuta eta lan-arriskuei eta ingurumen-inpaktuari buruzko prebentzio-arauak beteta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Saillkapen sozietateen eskakizunak eta itsasontziak berrikusteko erregelamenduak aintzat hartu ditu ikuskapenak planifikatzean eta egitean.

b) Itsasontziko makineriaren lehorreko eta ur gaineko zainketa-programazioan parte hartu du, honako hauen balioespenean oinarrituta: behatutako anomalien, lehentasun-irizpideen, itsasontziaren ustiapen-eskakizunei eta ziurtagirien baliozkotasunaren balioespenean.

c) Tailerreko, biltegiko eta, hala badagokio, makinen guardiako eta bezeroei arreta emateko espazioak antolatzeko bileretan parte hartu du, eta hartutako erabakiak balioetsi ditu.

d) Instalazioen eta tresneriaren zainketa-lanetan erabili beharreko teknikak eta lan-faseak identifikatu ditu, dokumentazio teknikoa, metodoak eta ezarritako lan-denborak balioetsita.

e) Lanak kalitatezko baldintzetan burutzeko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak zeintzuk diren zehaztu du, eskura dituen baliabideak eta hornidura-premiak aintzat hartuta.

4.– Propulzio-planta eta sistema osagarriak prestatzen, martxan jartzen eta gidatzen ditu, ezarritako protokoloak aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Erregaiaren, olioaren eta uraren ontzi-aldaketak egin ditu eta ontzi edo itsasontzia martxan dagoen bitartean horien hornidura bermatu du.

b) Sistema osagarri guztiak martxan jarri ditu, ontzi edo itsasontziaren propulzioa bermatzeko.

c) Propulzio-planta eskuzko moduan gobernatu du portuan sartzeko eta portutik ateratzeko maniobretan.

d) Instalazioaren funtzionamendu-parametroak erregulatzeko eta kontrolatzeko sistemen neurri zuzentzaileak eta doikuntzak aplikatu ditu.

e) Ontzi barruan larrialdien simulazio-ariketak egiten parte hartu du.

5.– Itsasontziko propulzio-motorrean, instalazioetan eta tresneria osagarrian funtzionamendu-anomaliak identifikatzen eta matxurak lokalizatzen ditu, eta tripulazioarekin lankidetzan jarduten du horien diagnostikoa eta esku-hartze plana egiten, berriro ere operatibo egon daitezen segurtasun-baldintzetan.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Ontzi edo itsasontzi baten propulzio-motorrean matxura hautematen eta ebaluatzen lagundu du, eta esku-hartze plana egin du funtzionamendua leheneratzeko, betiere arriskuen prebentzioari, lan-osasunari eta ingurumen-inpaktuari buruzko arauak beteta.

b) Ontzi edo itsasontziaren propulzio-motorreko alarmak eta anomaliak larrialdi-egoerekin erlazionatu ditu, eta horiek konpontzeko egin beharreko ekintzak zehaztu ditu.

c) Ontzi edo itsasontziaren propulzio-plantako makinetan eta sistema osagarrietan matxura bat hautematen eta ebaluatzen parte hartu du, zerbitzu alternatiboak edo larrialdikoak identifikatu ditu eta matxura eragin duen kausarekin lotu du.

d) Ontzi edo itsasontziaren planta elektrikoko instalazio batean akatsa hautematen parte hartu du eta kausa-efektu erlazioa zehaztu du, dokumentazio teknikoa erabilia eta ezarritako prozedurak segurtasun-baldintzetan aplikatuta funtzionamendua leheneratzeko.

e) Ontzi edo itsasontziaren hozteko edo girotzeko instalazio batean matxura hautematen eta ebaluatzen lagundu du, eta funtzionamendua leheneratzeko esku-hartze prozedura prestatu du.

6.– Ontzi edo itsasontzien zainketa egiten du aurreikusitako lan-prozeduren eta planen arabera, eta hala badagokio, makinetako guardian esleitutako zereginak egiten ditu, indarreko legeriari jarraikiz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Ontzi edo itsasontziaren propulzio-plantako instalazioaren zainketa eta, hala badagokio, instalazioa egin ditu, ezarritako prozedurak eta protokoloak beteta.

b) Ontzi edo itsasontziko tresneria osagarriaren zainketa eta, hala badagokio, instalazioa egin ditu, ezarritako prozedurak eta protokoloak beteta.

c) Itsasontziko instalazio elektrikoaren zainketa egin du, eta egin beharreko eragiketen sekuentzia interpretatzeaz gain, funtzionamendua bermatzeko egiaztatu behar diren osagaiak identifikatu ditu.

d) Hozteko eta girotzeko instalazioen zainketa egin du, esku-hartze plana interpretatu du eta funtzionamendua bermatzeko egin beharreko egiaztapenak identifikatu ditu.

e) Laneko espazioak, biltegiaren kudeaketa eta, hala badagokio, bezeroari arreta emateko jarduerak antolatzekeo jarduerak egin ditu, ezarritako protokoloei jarraikiz.

f) Hala badagokio, guardia hartzeko eta txandatzeko protokoloak, larrialdietan arreta emateko protokoloak eta egoera txarreko nabigazio-egoeretan jarduteko protokoloak bete ditu, jasotako aginduei kasu eginda eta dagokion prestakuntza-erregistroa beteta.

## UZTAILAREN 29KO 163/2014 DEKRETUAREN III. ERANSKINA

## GUTXIENeko ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK

## 1. atala.– Espazioak.

Prestakuntza espazioa	Azalera (m <sup>2</sup> ) 30 ikasle	Azalera (m <sup>2</sup> ) 20 ikasle
Balio anitzeko gela	60	40
Makinen zainketa-gunea	210	140
Elektrizitate elektronikako gunea	90	60
Fluidoaren gunea	90	60
Simulazio-aretoa (1)	90	60
Itsas segurtasuneko gela (2)	60	40
Lehen laguntzetako gela (3)	60	40
Suteen aurka borrokatzeko eta biziraupeneko eremua (4)	120	90

(1) Haren ordez, makinen guardiako prozeduren 1177 modulua garatzeko itsasontzi espezifikoak erabil daitezke.

(2) eta (3) Espazio bera parteka dezakete.

(4) Espazio berezia da, eta ez du zertan ikastetxean egon edo harena izan.

## 2. atala.– Ekipamenduak.

Prestakuntza espazioa	Ekipamendua
Balio anitzeko gela	Proiekzio-kanoia. Sarean instalatutako PCak. Internet-konexioa. Ikasgelako ekipamenduak. Planoak maneiatzeko mahaiak. Ikus-entzunezko ekipoak. Eskanerra. Inprimagailua.
Makinen zainketa-gunea	Diesel-motorra balaztadun saiakuntza-bankuan. Karelez kanpoko/ur-zurrustazko motorra. Motorra desmuntatzeko/muntatzeko tresna eta erreminta bereziak. Diesel eta gasolina motorren maketak. Turbo ebakiak. Erregai-arazgailua, disko sorta eta guzti. Abiarazteko aire-konpresorea. Injekzio-ponpetarako saiakuntza-bankua. Injektoreen saiakuntza-ponpa. Endoskopioa.

Prestakuntza espazioa	Ekipamendua
Makinen zainketa-gunea	<p>Konpresimetroa.</p> <p>Diesel motorretan errektuntza neurtzeko eta kontrolatzeko gailuak.</p> <p>Irteera-gasen analizagailuak.</p> <p>Errektuntzaren eta injekzioaren presioa adierazten duten piezoelektrokoak.</p> <p>Norbera babesteko ekipamendua (NBE).</p> <p>Elektrodo estalidun arkuzko soldadura elektrikorako makinak, banan-banan kabinatuta.</p> <p>MIG soldadura, hainbat aplikazio dituela.</p> <p>TIG soldadura, hainbat aplikazio dituela.</p> <p>Soldadura oxiazetilenikoa, sopele kabinatuak dituela.</p> <p>Oxibaketako tresneria.</p> <p>Xaflak ebakitzeko zizaila.</p> <p>Xafla meheak tolesteko gailua.</p> <p>Piezak trazatzeko, ebakitzeko eta prestatzeko lan-mahaia.</p> <p>Ingudea, matxarda, laneko torlojuak eta piezak manipulatzeko eskuzko erremintak.</p> <p>Mekanizazio-tresnak makina-erreminta guztietarako: hortzak, barautsak, fresak, otxabuak, abeilanatzailea, limak, lixak eta leungailuak, besteak beste.</p> <p>Neurgailuak: mikrometroak, galgak, kalibreak, goniometroak, erloju konparadorea, alexometroak, fleximetroak, kalibragailuak eta hariztatzeko orraziak, besteak beste.</p> <p>Makinak desmuntatzeko eta muntatzeko erremintak: ateragailuak, giltza dinamometrikoak, puska-kentzaileak, katu hidraulikoak, prentsak eta makineria desmuntatzeko/muntatzeko erreminta bereziak.</p> <p>Temperatura, bibrazioak eta gainazaleko akabera (rugosimetroa) neurtzeko tresneria, besteak beste.</p> <p>Durometroa eta trakzioko saiakuntza-bankua.</p> <p>Labea edo sopelea tratamendu teknikoan probak egiteko.</p>
Elektrizitate-elektronikako gunea	<p>Koadro elektrikoak abioa, inbertsioa eta izarra/triangelua muntatzeko.</p> <p>Alternadoreak akoplatzeko tresneria, benetakoa edo simulatua.</p> <p>Energia banatzeko koadroa, benetakoa edo simulatua.</p> <p>Transformadore trifasikoak eta monofasikoak.</p> <p>Zenbait motatako motor trifasikoak.</p> <p>Urtxintxa-kaiola, errore harilkatua, bi abiadura.</p> <p>Zenbait motatako motor monofasikoak: unibertsala, fase zatituko eta espirakoa zirkuitulaburrean.</p> <p>Bateriak kargatzeko alternadoreak.</p> <p>Dinamoia.</p> <p>Tako dinamoia.</p> <p>Takometroa.</p> <p>Korrante zuzeneko abio-motorrak.</p> <p>Abiarazteko hainbat bateria.</p> <p>Neurgailuak: polimetroak, matxarda anperimetrikoak, Hall efektuko matxardak, isolamendu-neurgailuak, osziloskopioak, bateria-egiaztagailuak eta dentsimetroak.</p> <p>Zirkuitu elektroniko sinpleak muntatzeko tresneria.</p> <p>Eztainuzko soldagailuak.</p> <p>Elikatze-iturriak.</p> <p>Maiztasuna erregulatzeko tresneria.</p> <p>Eskuzko erremintak.</p> <p>Ateragailuak.</p> <p>Material suntsikorra: kable elektrikoak, terminalak, konexio-blokeak, erreleak, kontaktoreak, sakagailuak, fusibleak eta etengailuak, besteak beste.</p>

Prestakuntza espazioa	Ekipamendua
Fluidoaren gunea	<p>Hotz-ekipamendua:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Huts-ponpa.</li> <li>– Hainbat aldaeretako hodiak.</li> <li>– Hotz-panelak eta aire girotuarenak.</li> <li>– Hozgarriak kargatzeko tresnak.</li> <li>– Olioak kargatzeko tresnak.</li> <li>– Hodiak mozteko tresnak.</li> <li>– Ahozabaltzeko tresnak.</li> <li>– Enbutitzeko tresnak.</li> <li>– Hodiak tolesteko eta garbitzeko tresnak.</li> <li>– Hegatsak garbitzeko tresnak (lurrungailuak eta kondentsadoreak).</li> <li>– Soldadura biguneko tresneria.</li> <li>– Hezetasun-neurgailuak.</li> <li>– Airearen abiadura neurtzeko gailuak.</li> <li>– Hozgarria eta olioak kargatzeko gailuak.</li> <li>– Presostatoak.</li> <li>– Termostatoak.</li> <li>– Manometroak.</li> <li>– Termometroak.</li> <li>– Hainbat motatako espantsio-balbulak.</li> <li>– Edukiera erregulatzeko balbulak.</li> <li>– Abioa erregulatzeko balbulak.</li> <li>– Erretentzio-balbulak.</li> <li>– Ur-balbulak.</li> <li>– Kargako eta hutseko balbulak (hiru bide).</li> </ul> <p>Ekipamendu pneumatikoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Automatismoak muntatzeko panel didaktikoak dituzten lan-mahaiak.</li> <li>– Efektu bikoitz eta bakuneko zilindroak, zainketa-unitatea, konpresore eramangarria, balbula monoegonkorra eta biegonkorra, pilotatuak eta serbopilotatuak, mikroetengailuak, sakagailuak, adierazle optikoak, manometroak, behe-presioko erreguladoreak, etapa bateko eta bi etapako amplifikadore pneumatikoak, gertutasun-detekttagailu pneumatikoak, aire-hesiak, tenporizadoreak pneumatikoak, sekuentzia-balbulak, manometroak, hodiak eta konexioatzeko elementuak. Eskuliburuak eta gardenkiak.</li> </ul> <p>Ekipamendu elektropneumatikoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Elektrobalbula serbopilotatu monoegonkorra eta biegonkorra, mikroetengailuak. Plaka automatismoak, honako hauek dituztela: sakagailuak, kontaktoreak, konektatzeko eta deskonektatzeko atzeratzeko aukera duten erreleak. Elikatze-iturriak. Gertutasun-sentsore inдукtiboak, kapazitiboak, magnetikoak eta optikoak.</li> <li>– Muntaketetarako kable sorta.</li> <li>– Zirkuitu olio-hidraulikoak muntatzeko panel didaktikoak dituzten lan-mahaiak.</li> <li>– Presio-taldeak.</li> </ul> <p>Ekipamendu hidraulikoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Efektu bikoitzeko zilindroak, zilindro diferentzialak, motor hidraulikoa, metagailu hidraulikoa, konexioak, manometroak, muntaketetarako hodiak, goi-presioko iragazkia.</li> <li>– Ponpa hidraulikoak. Bide-balbulak, hainbat motatakoak, presioa mugatzeko balbulak, emaria erregulatzeko balbulak eta desblokea daitezkeen atzera ezinezko balbulak.</li> </ul> <p>Ekipamendu elektrohidraulikoa:</p>

Prestakuntza espazioa	Ekipamendua
Fluidoaren gunea	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Hainbat motatako elektrobabulak, presostatoak, mikroetengailuak. Plaka automatismoak, honako hauek dituztela: sakagailuak, kontaktoreak, konektatzeko eta deskonektatzeko atzeratzeko aukera duten erreleak. Elikatze-iturriak.</li> <li>Ekipamendu hidrauliko proportzionala: <ul style="list-style-type: none"> <li>– Elektrobabula proportzionalak. Presioa mugatzeko babula proportzionalak.</li> <li>– Bi kanaleko anplifikadoreak.</li> <li>– Kontsigna-txartela.</li> <li>– PID erregulazio-sistemak.</li> </ul> </li> <li>Automata programagarriak: <ul style="list-style-type: none"> <li>– Kontroladore logiko programagarriak (PLC).</li> <li>– Ordenagailuak. Inprimagailua.</li> </ul> </li> </ul>
Simulazio-aretoa	STCW kodearen xedapenak betetzen dituen makinaren simulagailua.
Itsas segurtasuneko gela	<ul style="list-style-type: none"> <li>Laneko segurtasun-elementuak.</li> <li>Suteak detektatu eta itzaltzeko tresneria.</li> <li>Salbamendu-bitartekoak.</li> <li>Komunikazioetako tresneria.</li> <li>Ereduzko irrati-baliza.</li> <li>Ereduzko radar-erantzugailua.</li> <li>Komunikazioetako tresneria eramangarria.</li> <li>Biziraupeneko paketeak.</li> </ul>
Lehen laguntzetako gela	<ul style="list-style-type: none"> <li>Botikina.</li> <li>Ohatila.</li> <li>Bihotz-biriketako bizkortze-tresneria.</li> <li>Immobilizatzeko tresneria</li> <li>Sendaketa-tresneria.</li> <li>Oxigeno-tresneria eramangarria.</li> <li>Praktiketako manikiak.</li> </ul>
Suteen aurka borrokatzeko eta biziraupeneko eremua	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ur-hartuneak.</li> <li>Mahukak.</li> <li>Su-itzalgailuak.</li> <li>Hainbat motatako ahoak.</li> <li>Su-hiltzailearen tresneria.</li> <li>Arnasketa autonomoko tresneria.</li> <li>Su-erretiluak. (1)</li> <li>Salbamendu-jakak.</li> <li>Biziraupeneko jantziak.</li> <li>Salbamendu-uztaiak.</li> <li>Salbamendu-baltsa.</li> <li>Salbamendu-txalupa. (1)</li> <li>Erreskate-txalupa ez-azkarra. (1)</li> <li>Flotarazteko sistemak. (1)</li> </ul>

(1) Ekipamendu berezia da, eta ez du zertan ikastetxean egon edo harena izan.



## UZTAILAREN 29KO 163/2014 DEKRETUAREN VI. ERANSKINA

## IRAKASLEAK

1. atala.– Irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena, heziketa-ziklo honetako lanbide-moduluetan: Ontzi eta Itsasontzien Makineria Zainketa Antolatzea.

Lanbide modulua	Irakasleen espezialitatea	Kidegoa
1308. Itsasontzien propulzio-plantaren eta makineria osagarriaren zainketa antolatzea	Makinak, zerbitzuak eta produkzioa	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
1309. Ontzi eta itsasontzien lehorreko zainketa antolatzea eta motor termikoak muntatzea	Makinak, zerbitzuak eta produkzioa	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
1310. Ontzi eta itsasontzietako automatismo hidraulikoen eta pneumatikoen programazioa eta zainketa	Itsasoko nabigazioa eta instalazioak	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1311. Instalazio eta sistema elektrikoaren zainketa eta muntaketa antolatzea ontzi eta itsasontzietan	Makinak, zerbitzuak eta produkzioa	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
1312. Hozteko instalazioen eta girotzeko sistemen zainketa eta muntaketa antolatzea ontzi eta itsasontzietan	Makinak, zerbitzuak eta produkzioa	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
1313. Ontzi eta itsasontzien makineria-zainketa planifikatzea	Itsasoko nabigazioa eta instalazioak	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1314. Makinen guardia antolatzea	Itsasoko nabigazioa eta instalazioak	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
0179. Ingelesa	Ingelesa	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
0800. Larrialdien kontrola	Itsasoko nabigazioa eta instalazioak	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
0802. Itsasontziko osasun-laguntzaren antolamendua	Osasun-prozesuak	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1315. Ontzi eta itsasontzien makineria-zainketa antolatzeko proiektua	Itsasoko nabigazioa eta instalazioak	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
	Makinak, zerbitzuak eta produkzioa	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
1316. Laneko prestakuntza eta orientabidea.	Laneko prestakuntza eta orientabidea	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1317. Enpresa eta ekimen sortzailea	Laneko prestakuntza eta orientabidea	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1318. Lantokiko prestakuntza	Itsasoko nabigazioa eta instalazioak	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
	Makinak, zerbitzuak eta produkzioa	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak

edo araudian ager daitekeen beste edozein irakasle espezialitate.

2. atala.– Titulazio baliokideak irakaskuntzaren ondorioetarako.

KIDEGOAK	ESPEZIALITATEAK	TITULAZIOAK
Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak	Itsasoko nabigazioa eta instalazioak	Ontzi-makinetan diplomaduna. Itsas nabigazioan diplomaduna. Ontzietako irrati-elektronikan diplomaduna. Ontzigintzako ingeniari teknikoa, espezialitate guztietan.
	Laneko prestakuntza eta orientabidea	Enpresa-zientzietan diplomaduna Lan-harremanetan diplomaduna Gizarte-lanean diplomaduna Gizarte-hezkuntzan diplomaduna Kudeaketa eta Administrazio Publikoan diplomaduna.
	Osasun-prozesuak	Erizaintzan diplomaduna.

edo araudian ager daitekeen beste edozein titulazio.

3. atala.– Titulua osatzen duten lanbide-moduluak emateko beharrezko titulazioak, hezkuntzakoaz bestelako administrazioetako titulartasun pribatuko nahiz publikoko ikastetxeentzat.

Lanbide moduluak	Titulazioak
1308. Itsasontzien propulsio-plantaren eta makineria osagarriaren zainketa antolatzea 1309. Ontzi eta itsasontzien lehorreko zainketa antolatzea eta motor termikoak muntatzea 1311. Instalazio eta sistema elektrikoen zainketa eta muntaketa antolatzea ontzi eta itsasontzietan 1312. Hozteko instalazioen eta girotzeko sistemen zainketa eta muntaketa antolatzea ontzi eta itsasontzietan 1315. Ontzi eta itsasontzien makineria-zainketa antolatzeko proiektua	Lizentziaduna, ingeniaria, arkitektoa, edo dagokion graduako titulua, edo beste zenbait titulu baliokide. Diplomaduna, ingeniari teknikoa edo arkitekto teknikoa edo dagokion graduako titulua, edo beste zenbait titulu baliokide.
1310. Ontzi eta itsasontzietako automatismo hidraulikoen eta pneumatikoen programazioa eta zainketa 1313. Ontzi eta itsasontzien makineria-zainketa planifikatzea 1314. Makinen guardia antolatzea 0179. Ingelesa 0800. Larrialdien kontrola 0802. Itsasontziko osasun-laguntzaren antolamendua 1316. Laneko prestakuntza eta orientabidea 1317. Enpresa eta ekimen sortzailea	Lizentziaduna, ingeniaria, arkitektoa, edo dagokion graduako titulua, edo beste zenbait titulu baliokide.

edo araudian ager daitekeen beste edozein titulazio.

## UZTAILAREN 29KO 163/2014 DEKRETUAREN V. ERANSKINA

## BALIOZKOTZEAK, HEZKUNTZA SISTEMAREN ANTOLAMENDU OROKORRARI BURUZKO URRIAREN 3KO 1/1990 LEGE ORGANIKOAREN BABESEAN XEDATUTAKO ETA HEZKUNTZAKO MAIATZAREN 3KO 2/2006 LEGE ORGANIKOAREN BABESEAN XEDATUTAKO LANBIDE MODULUEN ARTEAN

Heziketa Zikloetako Lanbide moduluak (LOGSE, 1/1990)	Heziketa zikloaren lanbide moduluak (LOE 2/2006): Ontzi eta itsasontzien makineria zainketa antolatzea
Itsasontziko zerbitzu eta propulzio-sistemak	1308. Itsasontzien propulzio-plantaren eta makineria osagarriaren zainketa antolatzea
Zainketa industrialen teknika osagarriak	1309. Ontzi eta itsasontzien lehorreko zainketa antolatzea eta motor termikoak muntatzea
Itsasontziko sistema automatikoak eta erregulaziokoak	1310. Ontzi eta itsasontzietako automatismo hidraulikoen eta pneumatikoen programazioa eta zainketa
Itsasontziko instalazioak eta tresneria elektrikoa	1311. Instalazio eta sistema elektrikoen zainketa eta muntaketa antolatzea ontzi eta itsasontzietan
Arrantza erauzteko, prestatzeko eta kontserbatzeko instalazioak eta prozesuak	1312. Hozteko instalazioen eta girotzeko sistemen zainketa eta muntaketa antolatzea ontzi eta itsasontzietan
Instalazioen plangintza eta kudeaketa	1313. Ontzi eta itsasontzien makineria-zainketa planifikatzea
Segurtasuna, biziraupena eta lehen laguntzak itsasoan	0800. Larrialdien kontrola. 0802. Itsasontziko osasun-laguntzaren antolamendua
Atzerriko hizkuntza (ingelesa)	0179. Ingelesa
Enpresa txikien administrazioa, kudeaketa eta merkaturatzea	1317. Enpresa eta ekimen sortzailea
Itsasontziaren Makinak eta Instalazioak Gainbegiratzeko eta Kontrolatzeko goi-mailako teknikariaren tituluaren lantokiko prestakuntza	1316. Lantokiko prestakuntza.

## UZTAILAREN 29KO 163/2014 DEKRETUAREN VI. ERANSKINA

KONPETENZIA ATALEN ETA MODULUEN ARTEKO EGOKITASUNA (HORIEK BALIOZKOTZEKO),  
ETA LANBIDE MODULUEN ETA KONPETENTZIA ATALEN ARTEKO EGOKITASUNA (HORIEK  
EGIAZTATZEKO)

1. atala.– Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera egiaztatzen diren konpetentzia-atalen egokitasuna lanbide-moduluekin.

Konpetentzia atala	Lanbide modulua
UC1958_3: itsasontziko propulzio-motorraren eta horren zerbitzu osagarrien funtzionamendua kontrolatzea eta zainketa gainbegiratzea.	1308. Itsasontzien propulzio-plantaren eta makineria osagarriaren zainketa antolatzea
UC1996_3: ontzia lehorrean egoteari atxikitako elementuen eta propulsioko nahiz gobernuko sistemen zainketa antolatzea eta gainbegiratzea. UC1959_3: itsasontzia lehorrean egoteari atxikitako elementuen eta propulzio-plantaren makina eta sistema osagarrien funtzionamendua kontrolatzea eta zainketa gainbegiratzea.	1309. Ontzi eta itsasontzien lehorreko zainketa antolatzea eta motor termikoak muntatzea
UC1960_3: itsasontzian kontrol-sistema automatikoen funtzionamendua kontrolatzea eta zainketa gainbegiratzea.	1310. Ontzi eta itsasontzietako automatismo hidraulikoen eta pneumatikoen programazioa eta zainketa
UC1961_3: itsasontziko instalazio elektriko eta elektronikoen funtzionamendua kontrolatzea eta zainketa gainbegiratzea. UC1997_3: kirol-ontzietako eta laketontzietako energia elektrikoa sortzeko, metatzeko eta kontsumitzeko sistemen eta tresneriaren zainketa antolatzea eta gainbegiratzea.	1311. Instalazio eta sistema elektrikoaren zainketa eta muntaketa antolatzea ontzi eta itsasontzietan
UC1997_3: kirol-ontzietako eta laketontzietako energia elektrikoa sortzeko, metatzeko eta kontsumitzeko sistemen eta tresneriaren zainketa antolatzea eta gainbegiratzea. UC1998_3: kirol-ontzi eta laketontzietako sistema elektronikoen zainketa antolatzea eta gainbegiratzea	1311. Instalazio eta sistema elektrikoaren zainketa eta muntaketa antolatzea ontzi eta itsasontzietan
UC1962_3: itsasontziaren hozteko eta girotzeko instalazioen eta tresneriaren funtzionamendua kontrolatzea eta zainketa gainbegiratzea. UC1999_3: kirol-ontzi eta laketontzietako fluido-zerbitzuen eta hozteko eta girotzeko sistemen zainketa antolatzea eta gainbegiratzea.	1312. Hozteko instalazioen eta girotzeko sistemen zainketa eta muntaketa antolatzea ontzi eta itsasontzietan
UC1963_3: itsasontziko propulzio-plantaren, makinen eta tresneria osagarriaren zainketa kudeatzea. UC1993_3: Kirol-ontzi eta laketontzietako zainketa kudeatzea.	1313. Ontzi eta itsasontzien makineria-zainketa planifikatzea
UC1954_2: ontzi barruko segurtasunarekin, biziraupenarekin eta osasun-laguntzarekin loturiko jarduerak garatzea.	0800. Larrialdien kontrola 0802. Itsasontziko osasun-laguntzaren antolamendua
UC0808_2: ingelesez erabiltzaile independentearen mailan komunikatzea, ontziaren zainketaren, segurtasunaren, biziraupenaren eta ontzi barruko osasun-laguntzaren eremuan.	0179. Ingelesa (*)

Oharra: heziketa-ziklo honetan matrikulatutako pertsonak tituluaren barnean hartzen diren konpetentzia-atal guztiak 1224/2009 Errege Dekretuaren arabera egiaztatu badituzte –1224/2009 Errege Dekretua, lan-esperientziaren bitartez edo prestakuntza-bide ez-formalen bitartez eskuratutako lanbide-konpetentziak onartzeari buruzkoa–, honako lanbide-modulu hau izango dute baliozkotuta: «1314. Makinen guardia antolatzea».

(\*) Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 66.4 artikuluan xedatutakoaren arabera baliozkotu ahal izango da.

2. atala.– Egiaztatzeari begira, titulu honetako lanbide-moduluei dagozkien konpetentzia-atalak honako hauek dira:

Lanbide modulua	Konpetentzia atala
1308. Itsasontzien propulzio-plantaren eta makineria osagarriaren zainketa antolatzea	UC1958_3: Itsasontziko propulzio-motorraren eta horren zerbitzu osagarrien funtzionamendua kontrolatzea eta zainketa gainbegiratzea.
1309. Ontzi eta itsasontzien lehorreko zainketa antolatzea eta motor termikoak muntatzea	UC1996_3: Ontzia lehorrean egoteari atxikitako elementuen eta propulsioko nahiz gobernuko sistemen zainketa antolatzea eta gainbegiratzea. UC1959_3: Itsasontzia lehorrean egoteari atxikitako elementuen eta propulzio-plantaren makina eta sistema osagarrien funtzionamendua kontrolatzea eta zainketa gainbegiratzea.
1310. Ontzi eta itsasontzietako automatismo hidraulikoen eta pneumatikoen programazioa eta zainketa	UC1960_3: Itsasontzian kontrol-sistema automatikoen funtzionamendua kontrolatzea eta zainketa gainbegiratzea.
1311. Instalazio eta sistema elektrikoaren zainketa eta muntaketa antolatzea ontzi eta itsasontzietan	UC1961_3: Itsasontziko instalazio elektriko eta elektronikoen funtzionamendua kontrolatzea eta zainketa gainbegiratzea. UC1997_3: Kirol-ontzietako eta laketontzietako energia elektrikoa sortzeko, metatzeko eta kontsumitzeko sistemen eta tresneriaren zainketa antolatzea eta gainbegiratzea. UC1998_3: Kirol-ontzi eta laketontzietako sistema elektronikoen zainketa antolatzea eta gainbegiratzea
1312. Hozteko instalazioen eta girotzeko sistemen zainketa eta muntaketa antolatzea ontzi eta itsasontzietan	UC1962_3: Itsasontziaren hozteko eta girotzeko instalazioen eta tresneriaren funtzionamendua kontrolatzea eta zainketa gainbegiratzea. UC1999_3: Kirol-ontzi eta laketontzietako fluido-zerbitzuen eta hozteko eta girotzeko sistemen zainketa antolatzea eta gainbegiratzea.
1313. Ontzi eta itsasontzien makineria-zainketa planifikatzea	UC1963_3: Itsasontziko propulzio-plantaren, makinen eta tresneria osagarriaren zainketa kudeatzea. UC1993_3: Kirol-ontzi eta laketontzietako zainketa kudeatzea.
0800. Larrialdien kontrola 0802. Itsasontziko osasun-laguntzaren antolamendua	UC1954_2: Ontzi barruko segurtasunarekin, biziraupenarekin eta osasun-laguntzarekin loturiko jarduerak garatzea.
0179. Ingelesa	UC0808_2: Ingelesez erabiltzaile independentearen mailan komunikatzea, ontziaren zainketaren, segurtasunaren, biziraupenaren eta ontzi barruko osasun-laguntzaren eremuan.